



Idoia Arrieta
historialariari
elkarriketa

Komunikazio
Campusa uztailean,
bigarrenez



EUSKARALDIAK HARTU DU KORRIKAREN LEKUKOA

"Hitzaren eta ekintzaren urtean", Korrikak lekukoa pasa dio Euskaraldiari, eta 'Ahobizi' eta 'Belarriprest' herririk herri ari dira. Debagoieneren ere badabilta lanean; Arrasaten dagoeneko eratu dute batzordea / 4

Ahobizi eta Belarriprest, Korrikako Debagoieneren koordinatzaile izandako Ikuska Lizarralderen eskutik lekukoa jasotzen. XABIER URZELAI



Erakusketa eta egun osoko jaia, Aranzadi Ikastolaren mende erdia ospatzeko ekitaldien artean / 28

Autoaren sektorearen elektrifikazioa helburu duen taldean dago Bergarako Lazpiur enpresa / 3

Eskualdeko trikiti eskoletako neska-mutikoak Eskoriatzan batuko dira zapatuan, 17. Trikitixa Egunean / 22

Aniztasun mota guztiak ikusarazteko, egitarau zabala prestatu dute hainbat erakundek Arrasaten / 12

SINADURAK			
	XABIER MUGARZA / 8		MANU EGAÑA / 35
	OIANA SANCHEZ / 13		MIKEL BIAIS / 48

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA



TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 16 70



Aita Menni, lau urte konponbiderik gabe

Gatazka gordinean dira zuzendaritza eta enpresa batzordea, langileen lan baldintzak tarteko eta ospitaleko erabiltzaileak erdian direla. Preco-ren bitartekaritzara jotzea da enpresako arduradunen urrats berria, baina mesfidantzaz ikusten du komiteak

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Berriki jakinarazi du Aita Menni zuzendaritzak Gipuzkoako Precoaren bitartekaritza eskatu duela enpresa batzordearekin lan hitzarmenaren kontura duen konponezina gainditzeko saiatzeko. Bidalitako oharrean diote, gainera, besteak beste, negoziatzioa bizkortzeko eta akordioa lortzeko "langileek" egindako eskariari erantzunez hartu dutela erabakia.

Enpresa batzordeak, ordea, mesfidantzaz hartu du zuzendaritzaren iragarpena. "Batzordea saihestuta, zenbait jendekin bildu ziren, eta euren asmoa da, antza, han jasotakoekin joatea negoziaketara", dio komiteko presidente Txema Kortabarriak -ELAkoa, ordezkari duen sindikatu bakarrekoa-; eta jarraitzen du: "Ez, hori ez da euren lana. Langileekin egon eta euren eskaerak jasotzeko lan hori egin genuen guk, eta plataforma bat dago eta harekin aritu gara negoziatzen. Baina ematen du ez zaiela gustatzen ze egoeratar iritsi garen, eta orain ari dira gu saihestu eta negoziaketa berri bat proposatzen Precon, eta hori ez da bidezkoa". Negozia-keta mahaia egon badagoela eta Precora jotzea beharrezko ez dela dio Kortabarriak.



Ospitale aurrean egindako protesta bat. GOIENA

Batzordearen eskariak

Enpresa batzordeak eskatzen duena da, besteak beste, KPIren arabera soldata igoera: "Igoera handia dela diote. Esaten ez dutena da KPI negatiboa izan denean, orduan bai aplikatu izan dutela".

BATZORDEAK DIO INBERTSIOETARAKO BADUELA DIRUA ENPRESAK, BAINA LANGILEENTZAT EZETZ

Lau urte hauetan bi soldata igoera egin ditu zuzendaritzak. Aurten izan da berriena, %4,3koa, "akordio faltak langileei eragin ez ziezaien" egindakoa, zuzendaritzaren arabera, baina komiteak dio igoera hori aurreko bi urteei ere badagokiela, zegokio-

PERTSONAL FALTAK OINARRIZKO LANAK ATZERATZEA DAKARRELA DIOTE -GARBITASUNA...-

keena baino txikiagoa dela, eta, finean, enpresa batzordea kaltezea dela asmoa.

KPIren igoeraz gain, lanordua murriztea ere eskatzen du batzordeak, eta baita jardun-egun kopurua ere; hirugarrenik, lan-poltsa bat galdegiten dute, gaitasun onak dituen jende osatua, beharra denean bertara jotzeko, etorkizunean lantaldean egonkortzeko helburuarekin. Egungo baldintzekin, jende baliagarriak alde egiten duela eta enpresak, gero, edozeri heltzen diola diote.

Hori guztia, baldintza onetan liharduketen langileek zerbitzu hobia eskaintzeko proportzioa izango luketelako, enpresa batzordearen arabera; izan ere, GOIENARI nortasuna adierazi nahi izan ez dion ospitaleko erabiltzaile baten senideak dio, adibidez, "lan baldintza kaskarrak" igartzen direla gaixoei eskaintzen zaien arretan, "oso jende gutxi" dutela, eta ezin diela behar besteko denborarik eskaini. Dio, esaterako, arreta handiagoarekin, bere senideak oinez ibiltzen jarraituko lukela, baina, langileak iritsi ezin, eta "aulkian lotuta" dutela.

Lau urteko gatazkan 28 greba egun deitu ditu dagoeneko enpresa batzordeak. Zuzendaritzak behin baino gehiagotan salatu du "grebarako eskubidea oker erabiltzeak gaixoei familiekin komunikatzeko duten eskubidearen aurka" egiten duela, "bisitak eta irteerak oztopatzen dituela eta errehabilitazio ekin-tzak zailtzen", eta horrek "sentsibilitate falta" erakusten duela "giza talde zaurgarri" harekiko. Langileen ordezkariak, berriz, erabiltzaileen beharrez grebetan besterik ez arduratzea leporatzen diote zuzendaritzari.

Langile bat larri, Aramaion bigarren pisu batetik erorita

Eguazten goizean gertatu zen, Nardeaga kalean. Eraikin baten fatxadari ari zen behargina lanean, eskailera batean igota. Lurrera jausi eta kolpe handia hartu zuen buruan. Anbulantziak iritsitakoan, langilea egonkortzeko lanetan jardun zuten ordubetez, eta Santiago ospitalera eraman zuten gero. Zauritutako langilea oñatiarra da.

Uema Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Seguran

Hitanoari buruzko jardunaldia egingo dute 10:00etan, eta 13:00etan, ekitaldia. Herri bazkaria izango da ondoren, eta puzgarriak bazkalostean. Bakarrizketa bat eta Eidabe taldearen ikuskizuna ere izango dira. 18:00etan, toka eta bola txapelketa, eta erromeria 19:00etan. Debagoieneko hainbat udalerriri dira Uemako kide.

Ate irekiak egingo ditu Gurutze Gorriak etzi Elorregin

Elorregin ate irekiak egiten dituzten lehen aldia izango da. Debagoienean dituzten proiektuak, baliabide materialak eta giza baliabideak ezagutaraziko dituzte. Familia osoarentzako goiz-pasa antolatu dute: desfibriladorea erabiltzen irakatsiko dute, baita BBB egiten ere; txikientzako jolasak ere izango dira. 10:00etatik 14:00etara.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.

ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

NAFARROA
848 870 917

IGOGAILUAK
igogailuak | ascensores

www.bertako.eus

Lazpiurrekin batera *Future: Fast Forward* ekimena osatzen duten enpresetako ordezkariak. SEAT MEDIA CENTER

Lazpiur, automobilgintza irauli nahi duen taldean

Volkswagen eta Seat buru dituen eta automobil sektorearen elektrifikazioa jomuga duen 62 enpresako taldeko kide da; arloko PERTEari lotuta, Europako finantzaketa lortzeko hautagai sendo da taldea. Pozik mintzatu da Aitor Txurruka gerentea

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA

Automobil elektrikoaren garapenerako sortutako *Future: Fast Forward* taldeak 11 erkidegotako enpresak batzen ditu; Bergarako Lazpiur, tartean. Arloko PERTEari –ekonomia susperitzeko eta eraldatzeko proiektu estrategikoak– lotutako Europako finantzaketa lortu eta 62 enpresaren artean automobilgintza berriaren ekosistema osoa sortzea da ekimenaren asmoa.

Automobil elektrikoaren PERTEra 24.000 milioi euro bideratzea dago aurreikusita, eta horietatik 3.000 inguru izango dira ibilgailuen ekoizpenarekin loturikoetarako Espainiako Gobernuak emango dituenak: erdia, interesik gabeko maileguak, eta beste erdia, diru-laguntzak. Hala ere, aditzera eman dutenez, *Future: Fast Forward* ekimeneko enpresen artean 10.000 milioi euro bideratuko lituzkete helburu horietara, "PERTEaren ebazpena aldekoa izango balitz". Asmoen artean dago Valentzian baterien ekoizpenerako gigafaktoria bat eraikitzea –3.000 lanpostutik gora sortuko lituzkeen 2030era artean–.

Lazpiurren, gustura

Aitor Txurruka gerentearen esanetan, hartutako "erabaki estrategikoen" ondorio da enpresa talde horretako kide izateko aukera, eta "errekonozimendua, ilusioa eta poza" ekarri ditu Lazpiurrera. Txurrukak nabarmendu du Gestampekin duten lankidetzaren bitartez sartu direla "proiektu garrantzitsu" horretan, ahaztu gabe konpainiak tradizioz duen eta aurreko belaunaldietatik jaso duen "DNA sortzailea", halakotara "ausartzea" eragiten diena.

Taldeari egingo dioten ekarpenaz harago –*battery box* deritzona egiaztatzeko sistemari lotuta, batez ere–, oraingo lorpenak "ikusgarritasuna" eman go dio Lazpiurri, "merkatu eta bezero berrietara" iristeko.

Taldeak Europako finantzaketa lortzen duen ikusi behar da orain: iristen bada, elektrifikazioarako urratsen "exijentzia maila eta abiadura" handitzea ekarriko du, bete beharreko mugarrak egongo direlako; iristen ez bada, berriz, erritmoa bezeroen eta eskarien arabera izango da, Txurrukaren arabera.

SAN ANDRES HOMES • ARRASATE

Neinor HOMES

Bizi nahi
dugun
etorkizuna

Gimnasioa
Gourmet aretoa
Terraza zabalak

ERAIKITZEN



900 11 00 22 • neinorhomes.com

Korrikaren lekukoa hartu eta abian da Euskaraldia

Debagoieneko hainbat herritan dagoeneko hasi dira aurtengo ariketa sozialaren aurkezpenak egiten; halaber, Euskaraldiaren antolatzaileek batzordeetan partaide aktibo izateko eta ekimenen parte hartzeko dei egin diete herritarrei


Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Azaroaren 18tik abenduaren 2ra ospatuko da Euskaraldia aurtengoa, eta joan den astelehenean egin zuten hirugarren edizioaren aurkezpen ekitaldia, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Bertan izan ziren Alizia Iribarren AEK-ko koordinatzaile nagusia eta Goiatz Urkijo Euskaraldiko koordinatzailea.

Hain zuzen ere, Korrika, Euskaraldia eta halako ekimenak beharrezkoak direla azpimarratu zuten koordinatzaileek. Bestalde, gaineratu zuten "entitateei euskarazko praktika linguistikoak bultzatzeko neurri zehatzak hartzeko" eskatuko dietela aurtengo Euskaraldian. Horretaz gain, batzordeetan partaide aktibo izateko eta Euskaraldian parte hartzeko dei egin zieten herritarrei.

Euskaraldia Debagoienean

Euskaraldia batzordeak martxan jartzen eta aurtengo ariketa sozialaren aurkezpenak egiten hasi dira dagoeneko Debagoieneko zenbait herritan. Arrasaten, esaterako, egunean egin zuten aurkezpen bilera. Horretaz gain, aurtengo edizioaren antolakuntza ere izan zuten hizpide.

Eskoriatzan, berriz, foroko bilera duela astebete egin zuten,



Belarriprest eta Ahobizi Korrikaren lekukoa hartzen, asteon, Arrasaten. XABIER URZELAI

eta ekimenari forma nola eman lantzen ari dira. Ekintza gehienak udazkenerako utziko dituztela adierazi dute antolatzaileek, eta zer antolatu pentsatzen hasi dira. Halaber, adierazi dute gazteekin "lanketa berezia" egingo dutela, baina oraindik zehaztasun handirik ez daukate.

Bergaran, Udala eta Jardun euskara elkarteak ordezkariak lanean ari dira. Jarduneko ordezkariak aurreratu dutenez, dinamizatzaileak bilatzeko deialdia egingo dute datozen asteetan. Gainera, batzordeak irailtik

aurrera martxan jartzea aurreikusten dute.

Oñatin Udala eta Topagunea ari dira Euskaraldia antolatzen. Maiatzaren amaiera edo ekaina hasieran batzordea sortzeko eta ekimena martxan jartzeko deialdia egingo dute. Aurrerago jakinaraziko dute data zehatza. Bestalde, jakinarazi dute aurtengo dinamizatzailea kontratatzeko asmoa dutela irailtik abendura bitartean, egun erdiz.

Aretxabaletan eta Elgetan, aldiz, datozen egunetan deituko dituzte batzararak.



Arrikutzeko kobetako bisita bat. OIHANA ELORTZA

Bailarako ondare geologikoa ezagutzeko irteerak egingo dira

Debagoieneko Mankomunitateak hamabi jarduera antolatu ditu zaturako eta domekarako

I.A. DEBAGOIENA

Bailarako ondare geologikoa gertuagotik ezagutzeko doako irteerak antolatu ditu asteburu honetarako Debagoieneko Mankomunitateak. Hamabi ibilaldi dira eta Geoturismo Debagoienaren egitarauaren barruan daude. Naturaz gozatzeko eta hormak nahiz harriak beste begirada batez ikusteko aukera izango dute parte hartzaileek. Txango horietan parte hartzeko beharrezkoa da aldeztatik izena emanda egotea.

Maiatzaren 14an, zapatua, 09:00etan eta 11:00etan, Arrasateko Galarreko kobak bisitatu ahal izango dira. 09:30ean, berriz, Uretsen Ibilbidea osatuko da. Bergarako geologia ezagutzeko txangoa ere antolatu dute, eta arratsaldeko hiruretan izango da hitzordua.

Domekan ere egongo da zer bisitatu. 09:00etan, batetik,

Arrasateko Kobandi eta Leze-txikira egingo dute bisita. Bestetik, 09:30ean, Antzuolako geologia ezagutzeko txangoa izango da.

Jarduerak Geoaizkorri

Geoaizkorrik ere hartuko ditu jarduerak asteburuan zehar. Zapatuan, adibidez, 6 urtetik gorako haurrei zuzendutako Espeleotxiki bisita eskainiko dute Arrikutzen, 10:30ean; Oñati Geomonumentala, berriz, 12:00etan izango da.

Domekan, bestalde, Arrikutzeko kobak bisitatu dituzte izena emanda dutenek, 10:30ean. Gatzak ere badu lekua egitasmo honetan, eta 11:30ean, Urre Zuriaren Paisaia bisita gidatua egongo da Leintz Gatzagan.

Halaber, bi egunetan Bizipotoka jardueraz gozatzeko aukera egongo da: zapatuan, 16:00etan; eta domekan, 11:00etan.



LANBIDE HEZIKETA GARA!

22/23 Kurtsoa

> Izen-ematea:
Malatzaren 9tik 27ra

> Matrikula egitea:
Uztailaren 15etik 19era

www.eraiken.com

Oto Hiribidea, 33
01010 Gasteiz, Araba

Teknikaria


- Eraikuntza
- Barnealdeak, dekorazioa eta zaharberritzeak
- Instalazioa eta altzari hornikuntza
- Beroa sortzeko instalazioak
- Hozteko eta giroitzeko instalazioak

Goi mailako teknikaria

- Eraikuntza obren antolaketa eta kontrola
- Eraikuntza proiektuak
- Obra zibileko proiektuak
- Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa
- Instalazio termikoen eta fluidodunen mantentze-lanak
- Lan arriskuen prebentzioa

Espezializazioa

- Eraiken informazioaren modelaketa (BIM) 600ordua



Formakuntza

Trebakuntza

Enplegua

ERAKUNTZA

GOBIERNO VASCO

IKASLAN

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2022-2023

» Oñati gestio
heziketa

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA 5 COOP

Eskaintza akademikoa	
OÑATI Gestio Heziketa	MGEP
•Administrazioa eta Finantzak	•Automatizazioa eta Robotika Industrialak
	•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
•Zuzendaritza Idazkaritza	•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
	•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
•Salmenta Kudeaketa	•Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/ogh
nlopezp@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/lanbideheziketa
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

GEROA

EREIN

IZEN-EMATEA

Maiatzaren 9tik 27ra



Bergarako terraza bat, jasota. Taberna bakoitzak hamar mahai jar ditzake, gehienez. U.I.L

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Duela bi urte, 2020ko maiatzaren 11n, Itxialdia Arintzeko Planaren lehenengo fasea sartu zen indarrean. Hala, martxoaren 14an hasitako konfinamenduaren ostean, herritarrek terrazetan elkartzeko aukera izan zuten lehenengo aldiz.

Terrazak izan dira ordutik herritar askoren topaleku; bai barrualdeak ekiditearren eta bai ohitura berriak sortu direlako kontsumitzaileen artean. Halere, hori kezka-iturri ere bada zenbait bizilagunentzat; terrazetako zaratak gogaitu egiten dituela salatu baitute.

Debagoieneko udalek "oreka" bilatzearen aldeko apustua egin nahi dute, eta, horretarako, bakoitzak bere irizpideak eta jarduteko tresnak baliatu ditu, bai pandemian eta bai orain.

Bergaran, lehengora buelta

Pandemia iritsi zenean, terrazak arautzeko ordenantza zegoen indarrean Bergaran. "Ordenantzen kontra ezin da ezer egin, baina, egoera ikusita, alarma egoera oinarri hartu eta neurri batzuk moldatu genituen alkate dekretu baten bidez. Hala, besteak beste, kontratazio bat egin genuen terrazaren kudeaketa aztertzeko, eta banan-banan aztertu zen terraza bakoitzak nola irabaz zezakeen espazioa, mahai kopurua mantentzeko; baita terrazarik ez zuenak zein aukera zituen ere", dio Ainhoa Lete alkateordeak.

Terrazak eta bizilagunak: elkarbizitzarako aukerak aztertzen ari dira udalak

Pandemiak gizartearen ohiturak aldatu ditu; horren adibide da terrazetan egoteak tabernetan tradizioz egin den poteoa ordezkatu duela, hein batean. Horrek eguneroko elkarbizitzan eta herriaren ekonomian eragiten duena aztertzea dagokie orain udalei

Egun, pandemia aurreko egoerara bueltatu dira bergararrak, baina Letek azaldu du ordenantza berria ere badutela esku artean: "Ordenantza berriak jasotzen du terraza batek zein eremu okupatu ahalko duen, gehienez, zenbat mahai eta aulki sartu ahalko diren bertan, pasabideek zein zabalera izan behar duten, toldoek eta beste-lakoek nolakoak izan behar duten, egutegi eta ordutegia...".

Ostalari bergarar batzuek, baina, ez dute begi onez ikusi proposamen berria. Tabernari talde batek jakinarazi du orde-

nantza berriaren zirriborroa aztertzen ari direla zuzenketak proposatzeko.

Aurten eta iaiz, berdin Arrasaten Arrasaten ez dago Espazio Publikoaren Erabilera Arautzeko Ordenantzarik, baina, Ibon Arrupe Hirigintza batzordeburuaren esanetan, "irizpide bateratuak" hartzen ahalegindu ziren pandemian: "Terraza handiagoak jartzeko baimenak eman genituen, eta baita dirulaguntzak ere, terrazetarako hornikuntza erosteko. Tabernari batzuen aldetik mugimendua egon zen ordenantza eskatzeko, eta, azkenean, irizpide batzuk adostu genituen: terrazak nola handitu, itzalkinen itxura, aparkalekue-tako terrazak edo itxiturak...".

Momentuz, ez dago arau aldaketarik Arrasaten; iaizko irizpide berberak izango dituztela

azaldu du Arrupek: "Urte hasieran, omikron aldaera gurean zegoela kontuan hartuta, tabernari askok eskatu zuten terraza jartzeko baimena. Pandemiaren bilakaera ezezaguna zenez, 2021ean emandako baimen berak ematea erabaki genuen". Nola nahi ere, bizilagunekin egon daitezkeen bizikidetzaz arazoei lotuta, "neurriak aztertzen" ari direla aurreratu du.

Oñatin, "oreka bila"

Oñatin ere, ordenantza eduki arren, alkate dekretu bidez zenbait neurri hartu ziren os-

ARRASATEN IAZKO IRIZPIDE ETA ARAUAK JARRAITUKO DIRA AURTEN, TERRAZAK JARRI AHAL IZATEKO

talarien egoerari laguntzeko. "Posible izan den kasu guztietan espazioa handitzeko aukera eman da, distantziak gorde-ta, ordura arte zituzten mahai kopurua mantendu ahal izateko. Bestetik, itxiturak jartzeko aukera ere eman dugu", zehaztu du Xabi Igartua zinegotziak. Orain, pandemiaren aurreko baimenetara itzuliko direla aurreratu du: "2019an baino terraza handiagoa nahi dutenentzat irizpide batzuk definituko dira: tabernaren fatxadatik zenbat aldendu daitekeen terraza, oinezkoentzat utzi beharreko bidea, plaza baten okupazio portzentajea...". Horri lotuta, Igartuak azaldu du "oreka bilatzen" saiatzen ari direla Udalean: "Kaleko espazio publikoa gutxitu egin da, eta oinezkoendako eremua txikituta, kale batzuetatik ibiltzea ez da horren erosoa".

Aretxabaletan, "mugarik ez"

Aretxabaletaren kasuan, Unai Elkoro alkateak azaldu duenez, pandemian, lekua zuten tabernarietara "nahi beste mahai jartzeko aukera" eman zieten: "Gurean erraza da, taberna gehienek baitute lekua. Gure aldetik ere ez da arazorik egon: terraza jartzea baimendu dugu leku guztietan, eta baita eremua zabaltzea ere". Ordenantza pandemia betean egin zuten aretxabaletarrek: "Ziurtasun juridikoarengatik egin genuen, gehienbat".

Bestalde, gainerako hiru herrietan bezala, Elkorok azaldu du terraza jartzeagatik ordaintzen den kuota kendu zutela pandemian: "Orain egoera desberdina da. Hala ere, zenbait gauza mantendu ditugu; adibidez, espazioa duten tabernetan terrazak baimentzen jarraituko dugu; ez dugu lehengo murrizketetara itzultzeko asmorik. Hori bai: orain, ordaindu egin behar da".

Alkateak esandakoari jarraiki, Orly tabernako jabe Igor Ezkibelet azaldu du "ziurtasun falta" dutela Aretxabaletako tabernari askok. "Aukera badago terrazak jartzeko, baina ez dugu bermerik. Urtarrilean esan behar da nolako terraza nahi dugun, zein egiturarekin eta zenbat mahairekin, baina datorren urtarrilera arte ez dugu jakingo zein den horren kostua (...) Nik lehengora bueltatzea erabaki dut, mahai kopuru berarekin, badaezpada", adierazi du.

BERGARAKO UDALA TERRAZAK KUDEATZEKO ORDENANTZA BERRIA LANTZEN ARI DA

Eredu kooperatiboa, aukera profesional gisa

'Mondragon City Challenge' lehiaketaren bigarren edizioa ate-joka dago, eta gazteak parte hartzera animatzeko saio berezia egin zuten astelehenean, Garaian. Arizmendi ikastolako DBHko 4. mailako eta batxilergoko ikasleak bertaratu ziren

Uxue Igarza Loiola ARRASATE
Gazteak eredu kooperatibora gerturatzeko saioa egin zuten astelehenean Garaia Parke Teknologikoan. Arizmendi ikastolako gazteak joan ziren bertara, eta kooperatibismoa eta ekintzailetza gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Horretarako, kooperatibak eratu dituzten hainbat gazte ekintzaile izan ziren bertan, ikasleei euren esperientzia kontatzeko.

Jone Bengoa AI/ENE kooperatibako sortzailea izan zen hizlarietako bat. Azaldu zuen garrantzitsua dela gazteei "beste eredu eta bide batzuk" daukela erakustea: "Alternatiba oso interesgarria da bakoitzak bere lanpostua edo kooperatiba sortzea; horrela errazagoa da zure ezinegonak asetzea. Gainera, esan behar da hemen inguruan, orokorrean, ez dela ekintzailetza bultzatzen; txikitat bideratzen gaituzte beste pertsona batzuen enpresetan lan egitera".

Lehiaketa abiatuko da
Gazteei bide hori zabalik dagoela erakustez gain, ekitaldia *Mondragon City Challenge* lehiaketan parte hartzera animatzeko ere baliatu zuten antolatzaileek. Ekintzailetza kooperatiboko nazioarteko lehenengo lehiaketa da, eta irailean zabalduko da bigarren edizioan izena emateko aldia. Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak ere parte hartzera animatu zituen gazteak: "Txapelketa aukera ona da norberaren proiektua garatzeko eta lan mundura beldurrik gabe jauzi egiteko".

Ekitaldian Mondragon Taldeko ordezkariak, konfekoop-eko presidentea Rosa Lafin eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko Belen Balerdi ere izan ziren, besteak beste. "Gure erronka nagusia gazteei eredu kooperatiboa zabaltzea da", azpimarratu zuten guztiek.



Gazteak, ekintzaileen aurkezpena entzuten. U.I.L.



ULMA Packaging, S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2022ko maiatzaren 20a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Lekua: Zubiko Polikiroldegiko frontoia - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

- AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI 1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE EZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
- 2021EKO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2022KO GESTIO PLANA BERRISTEA
- ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
- 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
 - 2021eko ekitaldiko Urteko Banakako Kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 2021eko ekitaldiko Urteko Kontu Bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 2021eko ekitaldiko informazio ez-finanzario bateratuaren egoera aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea
- AUDITOREA EZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
- KAPITALAREN ORDAINKETA. 2021EKO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
- 2021EKO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
- HALA BADAGOKIO, POGU III-KO II. TITULUKO 1.3.2 ETA 1.3.3 ATALAK ETA III. TITULUKO 2.3.5.2 ATALA, "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOAK, ALDATZEA
- HALA BADAGOKIO, POGU III-KO III. TITULUKO 2.2. ATALA ALDATZEA, ESTATUTU SOZIALETAKO 64. ARTIKULUAN HAMABIGARREN ATALA SARTZEA, ETA 65. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, ERABILGARRI DAUDEN SOBERAKIN GARBI POSITIBOAK BANATZEARI, BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTSA APLIKATZEARI ETA DERRIGORREZKO ERRESERBA FUNTSEK EGOZTEKO MUGA MALTZUTZEARI DAGOZKIEZ
- HALA BADAGOKIO, HONAKO HAUEK ALDATZEA: POGU III-KO I. TITULUKO 4.4 ATALA, II. TITULUKO 2.1. ATALA ETA III. TITULUKO 1. ETA 2. ATALAK, KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEI ETA DEPARTAMENTU ZENTRALEI ESLEITUTAKO BAZKIDEEN EGOERA ANTOLATZEARI BURUZKOAK, ETA, HALA BADAGOKIO, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNI ARAUDIA ALDATZEA ETA EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEA, BAI ETA KOOPERATIBAREN BARNI ARAUDIAREN TESTU BATEGINA ONARTZEA ERE
- JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
 - 2021ean ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 2022an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
 - ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKekin eratutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
 - ULMA Fundazioak 2022rako aurreikusitako jardura sozialaren ildoan azalpena
- BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
- ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
- HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
- AHALMENAK ESKUORDETZEA
- GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Bazkideei gogoratu daiteke Kooperatibaren egoera eta interesen ebaluagari ditzatela urteko kontuak, informazio ez-finanzarioaren egoera bateratu, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak lortzeko egindako proiektuak. Batz. Nagusiaren deialdian oinarriturik aztertzea.

Halaber, bazkide guztiak jakinarazten da Kooperatibaren egoera eta interesen ebaluagari ditzatela urteko kontuak, informazio ez-finanzarioaren egoera bateratu, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak lortzeko egindako proiektuak. Batz. Nagusiaren deialdian oinarriturik aztertzea.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2022ko maiatzaren 4a



ULMA C y E, S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2022ko maiatzaren 20a
Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30etan bigarrena
Lekua: Zubiko Polikiroldegiko frontoia - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

- AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE EZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
- 2021EKO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2022KO GESTIO PLANA BERRISTEA HALA BADAGOKIO
- ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
- 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
 - 2021eko ekitaldiko Urteko Banakako Kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 2021eko ekitaldiko Urteko Kontu Bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 2021eko ekitaldiko informazio ez-finanzario bateratuaren egoera aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea
- AUDITOREA EZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
- KAPITALAREN ORDAINKETA. 2021EKO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
- 2021EKO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
- HALA BADAGOKIO, POGU III-KO II. TITULUKO 1.3.2 ETA 1.3.3 ATALAK ETA III. TITULUKO 2.3.5.2 ATALA, "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOAK, ALDATZEA
- HALA BADAGOKIO, POGU III-KO III. TITULUKO 2.2. ATALA ALDATZEA, ESTATUTU SOZIALETAKO 64. ARTIKULUAN HAMABIGARREN ATALA SARTZEA, ETA 65. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, ERABILGARRI DAUDEN SOBERAKIN GARBI POSITIBOAK BANATZEARI, BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTSA APLIKATZEARI ETA DERRIGORREZKO ERRESERBA FUNTSEK EGOZTEKO MUGA MALTZUTZEARI DAGOZKIEZ
- HALA BADAGOKIO, HONAKO HAUEK ALDATZEA: POGU III-KO I. TITULUKO 4.4 ATALA, II. TITULUKO 2.1. ATALA ETA III. TITULUKO 1. ETA 2. ATALAK, KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEI ETA DEPARTAMENTU ZENTRALEI ESLEITUTAKO BAZKIDEEN EGOERA ANTOLATZEARI BURUZKOAK, ETA, HALA BADAGOKIO, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNI ARAUDIA ALDATZEA ETA EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEA, BAI ETA KOOPERATIBAREN BARNI ARAUDIAREN TESTU BATEGINA ONARTZEA ERE
- JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
 - 2021ean ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 2022an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
 - ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKekin eratutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
 - ULMA Fundazioak 2022rako aurreikusitako jardura sozialaren ildoan azalpena
- BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
- ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
- HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
- AHALMENAK ESKUORDETZEA
- GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Bazkideei gogoratu daiteke Kooperatibaren egoera eta interesen ebaluagari ditzatela urteko kontuak, informazio ez-finanzarioaren egoera bateratu, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak lortzeko egindako proiektuak. Batz. Nagusiaren deialdian oinarriturik aztertzea.

Halaber, bazkide guztiak jakinarazten da Kooperatibaren egoera eta interesen ebaluagari ditzatela urteko kontuak, informazio ez-finanzarioaren egoera bateratu, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak lortzeko egindako proiektuak. Batz. Nagusiaren deialdian oinarriturik aztertzea.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2022ko maiatzaren 4a



ZABALIK

XABIER MUGARZA

Berrelikatzen diren indarrak

Macarena Olonak Espainiako Kongresuan erakutsitako gorroto eta enpatia falta gutxitan ikusi dudan tamainakoa izan dela esan beharra daukat. Entzun ahalaz bat tripak nahasi zitzaizkidan, torturak sufritu dituztenen errealitateari horrela barre egiten ikustean. Ulertezina da Kongresuko lehendakari Meritzel Batetek ez isilaraztea eta epaileren batek kargurik ez hartzea.

Zoritzarrez, honelako jarrerak babesten dituen VOX alderdiak behar baino indar gehiago du Espainian, PPren elkar aditze eta itsukeriak lagundurik.

Paradoxikoki, egoera honen onuradunetako bat ezker abertzalea dela uste dut, ezker independentista gisa birbataiatu dena. Espainiako ezkerrarentzat pelikuletako ona dela esan genezake, urte luzez egin beharrekoa egiten ari delako: politika.

TORTURATZEA ETA-K ERAILTZEA BEZAIN ONARTEZINA DELA USTE DUTENAK DIRA GEHIENGOA

nire uste apalean, ezker abertzalea horrexetara jolasten ari da, denbora irabazten ari da, gizarteak iraganarekiko autokritika egiteke duela ahaztu arte; finean, exijentzia hori desagerrarazi arte.

Euskal Herrira etorrita, zorionez, Olonaren hitzei erantzuna erabatekoa izan dela esan genezake. Hala ere, adostasun hori posizionamendu oso desberdinetatik dator: torturatzea ETak erailtzea bezain onartezina dela uste dutenak dira gehiengoa; beste batzuk ETArekiko jarrera akritikoa izan dutenak eta oraindik ere dutenak dira. Azken hauek Olonarena onartezina dela baderitzote, ezin ETaren ibilbidearekiko neutro edo, are okerrago, aldeko izan.

Ikuspegi partzial hori oraindik ere ugaria dugu gurean, kanpoko faxismoa berehala identifikatu baina bertakoa ezin errekonozitzerainokoa.

Espainiako ezkerrak ez dio behar bezalako garrantzirik ematen ezker abertzaleak urte luzeetan izan duen paperaren inguruan autokritika faltari. Baliteke PSOEk GALEkiko autokritika falta saihesteko estrategia izatea. Dena delakoa,

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Errealitate erreala

OSKIA UGARTE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Zazpi urte pasatu dira erretzeari utzi nionetik. Goizero, gosaldutik ondoren bi zigarro erretzen nituen bata bestearen atzetik. Bizio hura uzteko pipak modu konpultsiboan jaten hasi nintzen, betekada baten ondoren nazka hartu nien arte. Ondotik, beste bizio batzuk izan ditut, onargarriak guztiak, baina osasunerako kaltegarriak: esnea galletekin, *Candy crash*, edo martinia itxialdian ginenean.

Azkenaldian, sare sozialetan zabaltzen ari diren ikus-entzunezko edukiekin zaletuta nabil: *reels*-ekin. Hasieran, gosaldutik ondorengo minutu

batzuk besterik ez zidaten kentzen; gero, tableta komunera eramaten hasi nintzen; ondoren, haurrak lokartzen diren bitartean 20 minutuz ikusten hasi nintzen. Eta bat-batean, konturatu gabe, nire bizitzaren edozein momentutan agertzen dira.

- ...
Barkatu otoi, hementxe nago berriz ere, bizpahiru izan dira, besterik ez.

Horrez gain, algoritmo zikin hori dago, nire amak bezain ongi ezagutzen nauena. Batzuen esanetan, algoritmoaren bidez eraikitzen ari garen adimen artifizial honek gure askatasuna ahultzen du, eta giza balioak bukatuko dituela diote.

- ...

Kontxo, berririo gertatu da, beste lau ikusi ditut.

Mota askotako mikrobideoak ikusten ditut: paradisuko hondartza batean esnatzen diren furgoneteroak; trebetasun fisiko hipergaratu bat duen norbait; koreografia bat ezin hobeto burutzen duen talde bat; lan mekaniko errepikakorren bidez plazera ematen dituztenak; eta abar. Miresten duguna eta guretzat nahiko genukeena erakusten digute, errealitate birtual puntu bat dute, eta ispilu bat dela sinestaz ahal digute, baina kontuz ibili behar dugu, bizitzeko eta nahi dugun bizimodu hori eraikitzeko denbora haiekin eramaten baitute.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Edurne Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Italian eskola jantoki eredu interesgarriak ikusi ditugu"

AINHOA NARBAIZA EREINDAJAN

Larraitx Zeberio Lekuona BERGARA Gure Platera Gure Aukera plataformaren eskutik Italian izan da Ereindajaneke ordezkari bergarra. Elikadura eredu aldaketaren aldeko apustua egin duten esperientziak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan du. **Toskanan eta Erroman izan zarete. Zer eman du bidaia?** Eskola jantoki eredu osasuntsuago, bidezkoago eta hurbilagoa topatu nahian ari gara lanean, eta aukera izan dugu eskola jantoki eredu interesgarriak maila praktikokoan martxan ikusteko. Ikastera eta apunteak hartzera joan gara Italiara, eta eredu aldaketa egitea posible dela ikustera. Jangelak ezagutu ditugu, arduradun politikoekin izan gara eta elikadura politiken inguruan aritu gara hainbat jardunalditan. **Sesto Fiotentinoko ereduari buruz zer esango zenuke?** Ikusi dugu produktu freskoak eta ekologikoak dituztela



Ainhoa Narbaiza. L.Z.L.

oinarri, hondakinak gutxitzea ere bai, eta ekoizleekin harreman zuzena eta justua dutela esan digute. Sukaldeak bertatik bertara ikusi ditugu, baita ere umeekin zer-nolako lan pedagogikoa egiten duten,

errezetak eta aldaketak nola planteatu dituzten... Argi gelditu zaiguna da apustu bat egin dela, eta arduradun politikoez azaldu digute nola egin duten aldaketa. Oso interesgarria izan da.

Sienako eta Erromako egonalditik zer ekarri duzue? Azpimarratu dizkigute elikaduraren gaia hezkuntzan nola txertatu, gobernantza ereduak, familien erabakimena... eta esan digute elikaduraren bueltako edozein proiektuk askotariko ikuspegiak barnebildu behar dituela. Esaldi bat gelditu zait: familiei informazioa eman behar zaiela, eta hortik abiatu ekintzak. **Esperientzia honetatik ateratako ondorio nagusiak zeintzuk dira?** Esperientzia hauetan guztietan apustu bat egon dela, bai maila politikoan, bai herritarren aldetik. Buruan duguna posible dela ere ikusi dugu. Askotan, gai oso konplexu eta oso gatazkatsu bezala hartzen dira jangelak, baina ikusi dugu elikadurak beste gai asko barnebiltzen dituela: ingurumena, osasuna, ondarea, kultura, tokiko garapena... Benetan erdigunean jarri beharreko gai bat dela uste dugu. **Zertan da Bergarako San Martin eskolako proiektua?** Indarrean den araudiak oztupo asko jartzen ditu edozein aldaketa martxan jartzeko, baina badirudi bide berri bat irekitzen ari dela jangela kudeaketari dagokionean. Jaurlaritzak

esan du kudeaketa eredu osagarria eta deszentralizatuagoa egongo dela, non eskolek eta udalerriek erabakimen handiagoa izango duten. San Martingo proiektua horretan dago. Abenduan Jaurlaritzako ordezkariekin elkartzeko aukera izan genuen, eta aztertu dute proiektua. Hezkuntza komunitateak urteak daramatza proiektu hori lantzen. **Astelehenean izan zen gaia aztergai Jaurlaritzako Hezkuntza batzordean.** Agerraldia egon zen, bai. Alderdi politikoetako ordezkariak galdetu zuten ea noizko eredu berria. Aspalditik dakigu eredu osagarri hori mahai gainean dela, eta lanean jardun dugu guk ere ideiak ematen eta planteamenduak osatzen, ikus dezaten badaudela bideak hori egiteko. Esan zuten eredu osagarri hori zehazteari begira lanerako prest daudela bai Gure Platera Gure Aukerarekin, bai familiekin, baina data zehatzik eman barik. Edonola ere, lanean jarraituko dugu, nahiz eta data hori edukitzea garrantzitsua den planifikazioari begira eta proiektuak aurrerapausoak emateari begira.

ITURRI ONETIK

Eskoriatzar bat 'Forbes' zerrendan

Forbes aldizkariak argitaratzen duen 30 Under 30 Europako zerrendan dago Maria Jara Perea eskoriatzarra. Aurtengo zerrendan -300 aitzindari gazte-, 10 kategoriako 30 kide- Jara Perea eta Smallops enpresako beste bi sortzaileak sartu dituzte. Enpresa horrek biogasa (bio-erregaia) eta kapsulatutako burdinanopartikulak sortzeko -oliba-olio hondakinetatik- teknologia garatu du. Hondakinak sortzea saihestu eta ekonomia zirkularra sustatzen du.

ALBISTE IZAN ZEN

2012-05-09

UEFAko finalean, bigarrenenez porrot Athleticek

Historian bigarrenenez jokatu eta bigarrenenez galdu egin zuen, 2012n, UEFAko finala Athleticek. Lehena, 1977an, Juventus aurka, bi partidutara jokatu, Turinen eta Bilbon. Bigarren finala, 2012ko maiatzaren 9an, Atletico Madrilen aurka galdu zuen -3-0-, Bucaresten. Bielsaren mutilek sekulako txapelketa jokatu zuten, baina finalean ez ziren fin aritu. Debagoieneko zale zuri-gorriek -argazkian Bergaran- penaz hartu zuten emaitza.



HAU BE BADOGU!

'#EuskaraAurrera' traola, erabilienetakoa

Maiatzaren 21erako manifestazioa deitu dute, Donostian, *Euskara aurrera* lelopean: *@DEuskaraz*: "Pantailetan ere euskarak aurrera egin dezan, maiatzaren 21ean denok Donostiara! *#EuskaraAurrera*". *@topagunea*: "Euskalgintzak ere 'Euskara Aurrera' manifestazioan parte hartzeko deia egin du". *@ibaiborobil*: "Gaur euskalgintzako eragile nagusiak; atzo kulturgileak; herenegun kirolariak; Euskarak behar duen gazte bultzada *#M21Donostia #EuskaraAurrera*".

Erraustegirik ez, ez Bergaran, ez inon

EDURNE ARENAZA

LARRAMENDIKO ARNASA
BERGARA

Eusko Jaurlaritzak Valogreeneri atea ireki dio Bergaran erraustegi bat ipintzeko. Erabaki horrek agerian utzi du Eusko Jaurlaritzaren (EJ) asmoa: pribatuaren interes ekonomikoaren alde egitea, herritarren osasunaren gainetik. Horretaz gain, maila demokratiko eskasa erakutsi du, ez baitie erantzun zehatzik eman alegazioei, eta Bergarako HAPO (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) ez du kontuan hartu. HAPOk ez du hondakinak tratatzeko gunerik jasotzen, ezta araztegi ere, eta Valogreenek bi jarduera horiek ezarri nahi ditu.

Bestalde, herritarrok izan behar dugu honako alderdi hauen berri:

Valogreenek hondakinak tratatzean isuri toxikoak sortuko ditu; besteak beste, metal astunak, dioxinak eta furanoak, eta proiektu teknikoan ez da azterketa espezifikorik egin haien efektua ikertzeko. Jarduera kokapena ez da egokia, etxeak hurbil baitaude: baserri batetik 125 metrora, Basalgotik 440 metrora eta Bergarako hirigunetik kilometrora.

Valogreenek eta EJk karearen ekoizpenerako instalazio bat saldu nahi digute, baina ez da egia. Instalazioan hondakinak lehengai gisa baino ez dira sartuko, 155.000 tona/urtean

papergintzako hondakin –162.000 tona/urtean Zubietako erraustegian– erraustuko dute. Ondorioz, urtean hau sortuko du: 8.000 tona hondakin arriskutsu, 90.000 tona ur zikin, 592.000 tona ke eta 10 tona merkurio airera.

Isuriak 365 egunez, 24 orduz, baina kutsatzaile arriskutsuenak –dioxinak, furanoak, metal astunak...– sei ordu urtean bakarrik neurtuko dira. Nola jakin dezakegu ez direla mugak gaudituko?

EJk, hau jakinda ere, defendatzen du proiektua bat datorrela iraunkorreko helburuekin.

Nola fida gaitzke horrelako gezurra defendatzen duen erakunde publiko batekin? Ulertezina da eta jarduera hau gelditu behar dugu: erraustegirik ez, ez hemen, ez inon.

Gaurko inperioak

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Bizi garen Lur planeta mugatu honetan 193 estatu daude eta beste lau berezi bezala onartzen dira: Vatikanoa, Palestina, Kosovo eta Taiwan. Itzaropena daukat egunen batean Euskal Herria ere zerrenda horretan sartuko dela eta suposatzen dut herrialde asko gure egoera berean egongo direla. Ez pentsa Frantzia eta Espainia direla Euskal Herriaren arazo bakarrak; bi estatu hauen gainera beste batzuek agintzen dute, multinazionalak eta hauen

atzetik dauden agintari gutxi batzuek; munduko hamar multinazional handienek 184 estatuk baino diru gehiago mugitzen dute, hauek nahi duten dena egin dezakete botere gehiago hartzeko egarri ase ezin horretan, ez dute etikarik eta berdin zaie pertsonen sufrimendua.

Egoera honi aurre egiteko Euskal Herriak badu bere *edari magikoa*: kooperatibak. Mundu mailan oso ospetsuak eta zaindu egin behar ditugunak, gure zilborrari hainbeste begiratu beharrean; ez pentsa beste batek zuk baino hobeto zainduko duenik gure herria.

Gora langileen eskuetan dauden lantegiak!

Umekeria arriskutsuak

BEÑARDO KORTABARRIA

ANTZUOLAKO UDALAREN, AKE-REN ETA
OLALDE EUSKAL KIROLAK-EN IZENEAN
ANTZUOLA

Azken bi asteburuetan, herriko hainbat tokitan esprai bidez egindako pintaketak agertu dira: udaletxeko arkupe eta ate nagusian, frontoiko ate nagusian, Eztalako aldageletan... eta baita herritar baten autokarabana batean ere.

Baliteke ume-kontuak izatea, baina horrek ez die larritasunik kentzen gertakariei. Izan ere, ondorio ekonomiko garrantzitsuak dituzte. Adibidez, udaletxeko arkupeko pintaketak ezabatu ahal izateko, kanpoko enpresa espezializatu baten laguntza behar izan zen, eta udal-langile batek bi goiz zeregin horretan eman zituen. Frontoiko ate nagusian eta

Eztalako aldageletan egindako marrazkiek, berriz, ez dute konponbiderik; hortaz, herri-lanean egindako bi mural, auzolanean ari diren bi talderen egoitzetan... pikutara umekeria bategatik. Autokarabanaren jabeari ere kalte nabarmena egin diote, jakina.

Buruko minez eta kalte ekonomikoaz gain, pintaketan edukia –zakilen marrazkiak, *Putxa Antzuola*, *Putxa AKE*...– erabat salatu nahi dugu. Izan ere, Antzuola ez da zakil-erresuma bat, ez da elkarri *putxa*-ka bizi den jendarteak osatutako herri bat; alderantziz, elkarrenganako errespetuan bizi nahi duen herria da gurea, homofobiak tokirik ez duen plaza bat... Horregatik guztiagatik, salaketarik gogorrena egin nahi dugu gertakari hauen aurrean. Ez hori bakarrik: ume-kontuak izanda ere, pintaketan egileak zeintzuk diren jakiten badugu, egindakoak ondorioak izango ditu.

Arabako mendiak aske, Tapia legeari ez!

JUDITH ARRIOLABENGOA UNZUETA

ARABAKO MENDIAK ASKE
ARAMAIO

Bat egiten dugu Araba Bizirik plataformak Tapia legearen eta Tapia II legearen aurka maiatzaren 14rako Gasteizen deitu duen manifestazioarekin. Lehenengoan PIPS (Goi-mailako Interes Publikoko Proiektuak) izeneko figura sartzen da; bigarrenean, oraindik Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari dena, figura hori Goi-mailako

Intereseko Proiektu Pribatuatarako sartu nahi da.

Eusko Jaurlaritzak figura horiek aplikatzeak ekarriko luke udalek eta administrazio-batzarrek gobernatzen duten lurraldeen gainean duten subiranotasuna eta autonomia baliogabetzea. Aldi berean, Lurraldearen Antolamendurako legeak eta Natura Ondarea babesten duten legeak saihestu nahi dituzte. Pertsonengandik eta lurraldetik hurbil dauden erabakiguneak lekualdatzeko eta horietaz jabetzeko Eusko Jaurlaritzak egiten duen ahalegin horren guztiaren helburua hauxe da: toki-erakundeek gaur arte erabakitazunez babestu eta defendatu duten lurraldea mespretxatzen eta suntsitzen duten enpresek sustatutako makroproiektuak inposatzea.

Aurrez aurre ditugu herri-mendien pribatizazioa, ingurumen-balio handiko eremuen eta soroen industrializazioa eta, ondorioz, landa-eremuaren desegituraketa. Ohartarazten dugu espazio horiek babestea funtsezkoa dela bizitza babesteko, horiek suntsitzeak hori ahalbidetzen duten baldintzak suntsitzea ere ekarriko bailuke. Hori dela eta, Gasteizko Bilbo plazatik 19:00etan aterako den manifestazioan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Gure herrien bizitzatik hain hurbil dauden erakunde hauen gobernantzak arrisku larrian daude.

Ahalegin bateratuek mendiak mugitzen dituzte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



3,3 milioi euro gehiago, soberakinetik eratorrita

Udalak 5.700.000 euroko gerakina izan zuen 2021ean. Horietatik 3.328.000 euro txertatuko ditu Gobernuak 2022ko udal aurrekontuan, osoko bilkuran onartu ostean; gainontzeko 2.400.000 euroak gordetzea erabaki du, "ziurgabetasun egoeragatik"

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Zuhur" jokatzera erabaki du Udal Gobernuak, 2,4 milioi euro gordez. "Azken hilabeteen, esaterako, gasera eta elektrizitate-ria ia milioi erdi euro gehiago bideratu behar izan ditugu. Ukrainako gerraren ondorioak pairatzen ari gara eta zuhurrak izan gura dugu, beste behin ere", dio Maria Ubarretxena alkateak. Halere, urte bukaeran diru hori erabiltzeko beharrik ez badago, kirol azpiegituren mapara bideratuko lukeela gaineratu du. "Ekain hasieran aurkeztuko ditugu prozesu parte-hartzailean ateratako ondorioak eta plana azaltzeko".

Hala, 2022ko aurrekontua 41.064.997,49 eurokoa izatera pasa da -37.737.291,17 euroko aurrekontua onartu zuten abenduko osoko bilkuran-.

Zati handiena, Etxe Txikietara

Gerakinetik eratorritako partida handiena Etxe Txikien urbanizazioa bideratuko du Udal Gobernuak: 500.000 euro. Bestelako urbanizazio lanei erreparatura, Zalduspeko urbanizazioarekin jarraitzeko 120.000 euro erabiliko ditu. Era berean, behin Jose Luis Iñarra kaleko prozesu parte-hartzailea bukatuta, auzotarrek erabakitako proiektua idaztea falta da orain. Lehenagotik 40.000 euroko partida zegoen aurreikusita eta soberakinetik beste 50.000 euro bideratuko ditu proiektua idaztera.

Horrez gain, 450.000 euro erabiliko ditu Gobernuak elektrizitatearen prezioaren igoerari aurre egiteko, gasa ordaintzera beste 50.000 euro eta Mankomunitatera 419.000 euro.

Kirol Saileko inbertsioetarako 150.000 gehiago egongo dira aurrekontuan -220.000 euro zeuden lehendik-. Zati handiena errugbi zelaiko belar artifiziala aldatzeko erabiliko da. 340.000 inguruko inbertsioa izango da eta uda



Martitzenean egin zuten maiatzeko osoko bilkura. E.A.

2,4 MILIOI EURO GORDE EGINGO DITU GOBERNUAK, EDOZEIN BEHAR EDUKITA ERE, ERABILGARRI IZATEKO

aprobetxatuko dute lan horiek egiteko. Garayren esanetan, zelaia bakarrik aldatuko dute: "Atletismoko pista datorren urtean aldatuko dugu".

Aurrekontu parte-hartzaileei dagokienez, 261.000 euro handitu da partida eta Garagartza auzoko fibrozementua kentzeko, halaber, 140.000 euro gehiago bideratu ditu Gobernu taldeak -guztira, 490.000 euro-.

Bestalde, orain arte geldirik egon diren beste hainbat ekintza berriro ere martxan jartzen ari dira, eta horietara 103.000 euro joango dira soberakinetik. Hala, SUDC elkarteak antolatzen duen erretiratuen bazkarirako 25.000 euro bideratuko dira gerakinetik. Halaber, Ibai-artek antolatzen duen Arrasate Blues jaialdia antolatzeko 12.000 euro gehiago egongo dira aurrekontuan -24.000 euro, guztira-. Bestelako ekintza kul-

turaletarako 40.000 euroko partida gehigarri bat bideratuko du Gobernuak; aurrekontuan, guztira, 390.000 euro bideratuko dituzte.

Etxezarretako lorategia atontzeko 6.000 euro gehiago egongo dira -aurrekontuan, 15.000 euro zeuden-.

Ur-kontagailu digitalak

Azkenik, Victoriano Fuentes Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako zinegotzi sozialistak adierazi duenez, ur-kontagailuak berritzeko inbertsio bat ere egingo dute: "Legearen arabera, hamabi urtetik behin aldatu behar izaten dira eta kontaketa modu elektronikoa egin ahal izateko aldaketa egingo dugu oraingoan". 215.000 euro bideratuko ditu Gobernuak horra.

Ander Garay Ogasun zinegotziak gaineratu du datozen bost urteetan bideratuko dela partida hori kontagailuak aldatzera: "Ur-kontaketa digitalizatzea da helburua. Trantsizio energetikoaren baitan, beste pauso bat emango dugu horrela eta honekin beste azkartasun bat lortuko dugu, esaterako, ur-ihesak dauden kasuetan, unean bertan detektatzeko eta epe motzean moztu ahal izateko".

Udaltzainen balorazioa ez dute bozkatu EH Bilduko zinegotziek

Udaltzainen bueltako bi sententziaren gaineko txosten teknikoak falta direla salatuz, osoko bilkuratik irten dira

E.A. ARRASATE

Osoko bilkuran, udaltzainen eta lehen udaltzainen lanpostuaren balorazioa bozkatzerakoan, EH Bilduko bozeramaile Maider Morrasedek udaltzainen inguruko bi sententzia aipatu zituen. "Bi sententzia daude eta horien inguruko txosten tekniko bat eskatu izan dugu behin eta berri. Beraz, idazkariak eta kontu-hartzaileak egindako txosten tekniko bat eduki arte, ezin dugu bozkatu udaltzainen lanpostuen balorazio positiboa", azaldu zuen, eta EH Bilduko zortzi zinegotziak

irten egin ziren bilkuratik, protesta gisa, puntua ez bozkatzeko.

Udal Gobernuak erantzun zuen osoko bilkurara eraman den puntuari dagokion txostena badoela espedientearen, eta zera gaineratu: "Sententzia horien inguruko txosten juridikoa lantzen ari dira eta lantzen denean helaraziko zaizue, baina gaurko gaia ez da hori".

Bestalde, EAJren abstentzioarekin, onartuta geratu zen EH Bilduk eta PSE-EEk agintaldi honetan lehenengoz elkarrekin aurkeztu duten mozioa.

GORA ETA BEHERA



Jan eta edan, eta dena lurrean botata utzi

Zarugalde kalearen eta goiko pasealekuaren artean dauden eskaileretan atera zuen herritar batek argazki hori, joan den zapatuan. Aste bukaeretan janari eta janari-pote arrasto ugari egoten dela dio: "Guztiz deitoragarria da batzuen jarrera".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Udalak diruz lagunduko ditu herriko udalekuak

"Aukera berdintasunean eragiteko asmoz", dirulaguntza deialdi bat jarri du abian, irabazi asmorik gabeko tokiko elkarteek antolatutako udalekuetan Arrasateko haurren parte-hartzea sustatzeko. 3 eta 18 urte arteko seme-alabak dituzten familiei zuzendutako laguntzak izango dira. Ekainaren 30era arte aurkeztu daitezke eskaerak, BAZen.

Elikadurari buruzko solasaldia, Tasio Erkiziaren eskutik

Karkabatik Herria solasaldi zikloaren laugarren saioa maiatzaren 18an egingo dute, Irati Topagunean, 19:00etan, eta Tasio Erkiziak elikadurari buruz egingo du hausnarketa, hara joaten direnekin batera. Erkiziak argitaratu berri duen *Jan eta jabe* liburua izango da solasaldiaren abiapuntua eta dagoeneko eskuragarri dago, Iratin bertan.



Eguaztenean egin zuten egitarauaren aurkezpena askotariko eragileetako ordezkariak, Seber Altube plazan. E.A.

Aniztasun mota guztiak ikusaraztea da helburua

Gurutze Gorriak, SOS Arrazakeriak, IMMEK, AMSk, Ekin Emakumeak, Txatxilipurdik, Morborrek, Sexologia Zerbitzuak, Amerika Elkartek, Goyeneche Fundazioak eta Udalak bat egin dute, aniztasun mota guztiak ikusarazteko egitaraua zabala osatzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Azken urteetan, aniztasun kulturala izan dute oinarri Aniztasunaren Astea eta horren baitan antolatu izan dute egitaraua. Aurten, hala ere, begirada zabalduta eta beste aniztasun mota batzuk ere landuko dituzte, hala nola genero aniztasuna, aniztasun sexuala eta aniztasun funtzionala. "Udalarentzat garrantzitsua da mota guztiak erakustea, azken batean, hori baita gure errealitatea", azaldu du Maitane Muñozek, Garapen Komunitarioko zinegotziak.

Nabarmendu du "erronka komunitarioa" dela eta era kolektiboan jokatu behar duela gizar-teak. "Guztiok gara arduradunak

eta inportantea da halako ekin-tzak bultzatzea eta babestea. Onena da modu kolektiboan egin dugula, bakoitzak bere ikuspuntutik, eta hori guretzat opari hutsa da".

Tamara Perez Arrasateko Udaleko Aniztasun teknikariaren ustez, halaber, erakutsi egin behar da Arrasaten badaudela aniztasunaren gaia jorratzen duten elkarte, erakunde eta taldeak. "Aurten, guztiak gonbidatu gura izan ditugu, haien ikuspuntuak partekatu eta ekarpenak jasotzeko. Egitarau hau osatzerakoan, ikusi dugu garrantzitsua dela elkarlanean aritzea, helburu berberarekin egiten dugula lan. Hau da, berdintasuna

errealitate bat izatea gura dugu eta aukera berberak izatea pertsona guztiek".

Maiatzaren 17tik ekainaren 8ra Egitarauari dagokionez, maiatzaren 17an, martitzena, Arrasateko Sexologia Zerbitzuak *Sexualitateaz gehiago ikasi beste kulturak entzunez* solasaldia egingo du Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan.

Hilaren 19an, 18:00etan, leku berean, Goyeneche fundazioko kideek *La tortuga Marian* ipuina kontatuko dute, Downen sindromeari buruzkoa. Gainera, keinu hizkuntzan ere egingo dute kontaketa Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federaziokoek.

Maiatzaren 20an, murala margotuko dute Udalak plazan, Erguin kalearen hasieran. Aurrez, baina, gazte txokoetako gazteekin batera aniztasunaren eta elkarbizitzaren inguruko hausnarketa egingo dute eta hausnarketa horretatik irtengo da murala. Joana Mancisidor izango da muralgilea, margotzera animatzen diren gazteekin batera. 18:00etan, elkarbizitza eta aniztasunaren aldeko elkarretaratzea egingo dute.

Maiatzaren 21ean, Kulturataniztasunaren Nazioarteko Eguna da, eta Seber Altube plazan ospatuko dute. Poesia erreitaldia, musika eta folklore latinoaren ikuskizuna izango da eta pintxo latinoen dastaketa eskainiko du Amerika Elkartek.

Bi egun geroago, hilaren 23an, 18:30ean, Ekin Emakumeak elkarteak grabatutako dokumentala eskainiko dute Kulturaten: *IKRAM: Emakume bat, istorio bat, eredu bat*.

Maiatzaren 24an, bestalde, *Gazte migratzaileen integrazioa* hitzaldia egingo du Arkaitz Fullaondok, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia kideak, Kulturaten, 18:00etan.

Ekainaren 8an emango diote amaiera egitarauari. *El tren de la memoria* zinema-foruma egongo da Kulturaten, 18:00etan, Gurutze Gorriaren eskutik.

Parte hartzeko deia

Zinegotziak eragile guztiei esker-rak eman dizkie, "egiten duten lan guztiagatik", eta arrasatearrak ekintzetara joatera gonbidatu ditu. "Askotariko ekintzak egongo dira, ezagutzeko, informatzeko eta abar. Aukera berdintasunera joatea da inportanteena, bide horretan aurrera egin gura dugu", gaineratu du.

Hamar ibilaldi eta lau bisita historiko, bihar hasita, asteburuetan

Arrasateko Udalak maiatzerako eta ekainerako bisita historikoz zein mendi ibilbidez osatutako turismo eskaintza antolatu du. Horietako bi, bihar eta etzi egingo direnak, urtero egiten diren *Geoturismoa Debagoienean* bisita bereziak dira, Galarrako kobara eta Kobandi eta Lezetxikira, hain zuzen. Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en.

Herribusari 8,5eko nota eman diote erabiltzaileek

Arrasateko herribusaren zerbitzuak 10etik 8,41eko puntuazioa lortu du azaroaren 3tik 24ra erabiltzaileei egindako gogobetetze-inkestan. 185 inkesta egin zituzten; horietatik 93 lehenengo linearen erabiltzaileei dagozkie eta 92, bigarren linearen erabiltzaileei. Hirugarren linearen erabiltzaileen daturik ez dago oraindik.

OHARRAK

'Galera hunkigarriak'

Nagusien Kontseiluak antolatuta, Maite Urzainek hitzaldia egingo du eguaztenean, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean.

Kintadak Arrasaten

1965ekoek bazkaria egingo dute irailaren 24an. Ekainean jakinaraziko dute izena emateko era. 1949koek ere egin dute batzeko deia.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

Ab 80

BEILATOKI BERRIA ARRASATEN

TANATORIOA

Guztion zerbitzura 24 orduz

ARRASATE HILETA BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!

943 79 22 19

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com

Festak eztanda egingo du Musakolan gaur

Jubilatuen Eguna egingo dute gaur, Al-Andalus elkartearen afaria eginez; bihar Kuadrillen Eguna eta etzi San Isidro eguna ospatuko dituzte. Gau bereziak izango dira: bolo-txapelketa, San Isidro Rock jaialdia eta suzko erruberak daude programatuta

Hasier Larrea ARRASATE

Musakola auzoko jai batzordeak azken bi urteotan antolatu ezin izan duen egitarauaren parte hartzeraz animatu ditu auzotarrak eta herritarrak. "Gurekin ez daudenei" keinu eginez, "gogo handiz" prestatu dituzte jaiak, eta jendeari "alaitasunez" gozatzeko dei egin diote.

Horretarako, ekintza morderka dakartzate jai batzordeko kideek. Gaur, goizean zehar haurrentzako jarduerak egongo dira, kirol-jokoak 10:15ean eta danborrada 11:30ean. 17:00etan, spinning ikastaroa emango du aditu batek kiroldegian, eta gazte txokoan jolas bereziei egingo diete tokia. Ikurrina 19:00etan igoko dute, buruhandiek eta gaiteroek girotuta. 19:30ean, jai-afariaren gozatuko dute auzoko jubilatuek Al-Andalusen. Gauean, Kaixo taldeak joko du San Antolin plazan, eta San Isidro elkartearen alboko bolatokian txapelketa egingo dute, 22:30ean.

Bihar eta etzi, gehiago

Zapatuan, gaiteroak irtengo dira 11:00etan, eta ekitaldirik ez da faltako goizean zehar: puzgarriak eta umeendako asto jaiak 12:00etan puntuan. San Antolin eskolan, gimnasia erritmiko erakustaldia kiroldegian, txalaparta tailerra eta pailazoen ikuskizuna dira ekintzetako batzuk. 15:00etan egingo dute herri bazkaria, Legarra plazan, eta handik ordubetera hasiko da motorren topaketa. 18:00etan, sokatira txapelketan lehiatuko dira, sari eta guzti. San Isidro Rock kontzertua 20:30ean hasiko da, Banana Shake, Guadalupe Plata eta Qverno taldeekin.

Eta domekarako, egunean zehar, lauko eskubaloitxo txapelketa, pintura lehiaketako sari banaketa, magia-poteoa, kalejira eta Oztopo Trialsinen erakustaldia daude antolatuta. Gauean, osterak, suzko erruberak eta sorpresa ikusgarriak egongo dira ikusgai. *Goiena.eus*-en datu gehiago.



Musakolako jaien batzordeko kideak egitarauaren kartelak erakusten, asteon. H.L.



NIRE USTEZ

GOIENA SANCHEZ

Jaiei gasolina

Gogoz egindako lanak bere fruituak emateak poztasun handia dakar. Endorfinak sortzen dituela ziur nago, eta momentu txarrak, estresa eta galdutako lo orduak ezabatzeke gai dira horiek. Hori dela eta, urtero berdinari ekiten diogu, San Andres auzoko jaiak antolatzeari.

Nahiz eta ezustekoak jasateko prest egon, urtero berriak sortu izaten baitira. Esperientziak hauei erantzun azkarra emateko balio digu. Askotan, zientzia fikziozko egoerak bizi izan ditugu. Antolakuntza bileretako lokaleko paretek hitz egingo balute...

Azken finean, gure lansaria auzoa jendez, irribarrez eta zorionez lepo ikustea da. Hain justu ere, hori da gure gasolina, gaur egun hainbeste garestitu zaiguna. Izan ere, erregaia ondasun preziatu bihurtu da, auzokideak guretzako preziazatu diren moduan.

Horregatik, lerro hauek eskerrak emateko hartu nahi nituzke. Mila esker hala edo nola jaiak handi egiten lagundu duzuen denoi. Batera gasolina erretzen segituko dugu. Gora San Andres eta gora jai herrikoia!

Eskaintzak 2022/05/13 arte balio dute.

EROSKI markekin aurrezten lagunduko dizugu

EROSKI basic **EROSKI Natur** **EROSKI SELEQTIA**

-17%
1,09 €/alea
0,90 €/alea
EROSKI Olio-edarria, 1 l

-14%
1,36 €/ud
1,16 €/ud
EROSKI Pikilo pipera zementatua, baraketa, 225 g

Eta gainera %5% deskontuarekin adierazizako EROSKI produktuak bazkide bazara

-12%
1,89 €/ud
1,74 €/ud
Lekia luza, 500 g

-10%
1,78 €/alea
1,59 €/alea
Bulu tipula, 1 kg

-11%
4,85 €/ud
4,30 €/ud
EROSKI Atun angia alba-olatan, 80 g-ko 6 ale

EROSKI ARRASATE

Musakola ARRASATE

Tel.: 943 71 10 30

*Kutxatik paratzean, EROSKI Club kartarekin sortutako diruzko, bereziki: erositate produktuen/erakundearen baliokidea den zenbakia. Zenbakia hori hurrengo erosketetan trukatuz aldatu izango da. Deskontu hori ez da baliokidea. Azken unifikatutako jaiaren duen produktuetan.

Gurdiz ibiltzen ziren garaira atzera begiratua

Mondragon Korporazioko ISEA laborategiak, Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ekimenaren baitan, XIX. eta XX. mendeen artean Arrasaten ateratako irudien galeria jarri du Etxaluzen. Hilaren 21ean, Arizmendiarietari buruzkoen txanda izango da

Hasier Larrea ARRASATE

Kristalezko material fotosentitkorrez errebelatutako irudiak ikusgai daude joan den domekatik datorren ostiralera arte Etxaluze gizarte zentroan. *Gipuzkoa belaunaldien artekoa* proiektuaren atal bat osatzen du erakusketak, ISEA enpresako kideek osatu dutena; tartean, Aitor Orobengoak: "Gure ardura nagusia ingeniariarekin lotutako ikerketak bultzatzea da, baina, noizean behin, gizartearekin lotutako dinamikak egiten ditugu; gazteak eta helduak inplikatzeko egitasmoa jarri dugu martxan, eta argazki zaharren erakusketak Arrasate zenbat aldatu den egiaztatzeko balio izango dio jendeari".

Mendia familiaren ondarea

Guztira, 46 argazki aukeratu dituzte paneletan erakusteko, gehienak 1880 eta 1936 urte artekoak. Herriko Plazako iturriaren parean bizi zen Mendia familia aberatseko kide baten argazki-makinarekin ateratakoak dira. Balio historiko handikoak, bide batez: "Egin kontu zelulosa XX. mende hasieran asmatu zela, eta ikusgai daudela lehenago ateratako argazkiak. Material plastiko horren faltan, kristalezko plakak erabiltzen zituzten



Orobengoak, Etxaluzeko argazki historikoei begira; gurdia ageri dira irudietan. H.L.

kameretan, *western* filmetan agertzen diren tankerakoak", azaldu du Orobengoak. Mendia sendiarena zen etxea birgaizterakoan aurkitu zituzten irudi zuri-beltzak, eta Arrasate Zientzia Elkarteko eskutara iritsi ziren. Bertako kideek utzi dizkiete ISEAkoei, beraz.

Detaillez betetako argazkietan zaldizko gurdien presentzia nabarmena ageri da; Canovas del Castilloren hilotza eramaterakoan eta Donostiako Orfeoia herrira iristerakoan, esaterako: "Trena hartzeko Zumarragara joan beha-

rra zegoen; ondorioz, bailarako ibilgailu handiena hura zen".

Hamarkada horiei buruz "ezagutza gutxi" dagoela dio antolatzaileak, eta galeriak "laguntzen" duela testuinguruaren ideia bat egiteko.

Iraganaren dibulgazioa

Argazki zaharren erakusketaren atea martitzenetik domekara daude zabalik, arratsaldero, eta asteburuetan goizez baita. Hilaren 20an izango du azken eguna, Jose Maria Arizmendiarieta erdigunean jarriko duen galeria insta-

Herri "txiro" baten erretratuak

Gaur egungo Arrasate "urbanoa" nekazari herri txikia zen XIX. mende bukaeran, oraindik argindarrik ez zegoen garaian. Alde zaharreko kaleen inguruan baserriak zeuden, eta aberastu nahi zutenak Ameriketara joaten ziren sarri, herri euskaldunak "nahiko txiroak" zirelako.

Jendartearen nolakotasunaren informazio grafikoaz gain –janzkerak, ohiturak...–, basoak ze desberdinak ziren ere frogatu daiteke: "Ez zegoen pinurik, tokiko zuhaitzak –arteak, pagoak...– bakarrik. Pinua XX. mende hasieran ekarri zuten Eusko Ikaskuntzako kideek Kaliforniatik, hazkunde azkarreko zuhaitzak behar zirelako armak eta garraioak egiteko".

Santa Agedako hasierako bainu-etxe eta 36ko gerraren osteko Aprendices eskolako irudiekin dago osatuta erakusketa.



Boloa bataio egunean. AZE

latuko baitute hurrengo egunean, ekainaren 6ra arte. Egitasmoaren bigarren kapitulua izango da, Orobengoaren esanetan, asmo argi bati erantzun diona: "Arrasatear askori lana eman dion eredu kooperatiboa sortu zuenaren bizitza erakutsi nahi dugu argazkitan, gaur egun herritarren %10ek baino ez baitakite nor izan zen, inkesta baten arabera". Gazteenek herriko iragana ezagutu dezaten, herriko ikastetxeetako ikasleei zuzendutako bisita gidatuak egingo dituzte Etxaluzen datozen egunotan.

Adituen hitzaldiekin indartuko dute "XIX eta XX. mende arteko garai ezezaguna eta Arrasate garaikidea" azaltzeko egitasmoa. Euskararen sorrerari ere helduko diote, nahiz eta oraindik ez duten ponentziaren datarik zehaztu.

Hitzaldiak Etxaluzen

- Hilaren 19an, 18:00etan, Josemari Velez de Mendizabalen eskutik, **1880-1936: Inflexio historikoko puntua.**
- Hilaren 26an, 18:00etan, Ana Isabel Ugaldere eskutik, **Arrasateko modernizazioa: Pedro Viteriren bultzada.**
- Ekainaren 6an, 18:00etan, **COPRECiren sorrera**, enpresako sortzaileen eskutik.
- Ekainaren 16an, 18:00etan, Jose Mari Larramendiren eskutik, **Arizmendiarietaren balioen unibertsoa.**

Belaunaldi guztiak, batera

Arrasate Rugby Taldearen 50 urteko ibilbidea irudi batean laburtu dezake ondokoak. Jokalari ohiek eta gaur egungoek egin zuten bat joan den zapatuan Mojatetik harmailetan. Nondik datozen jakinda egingo dio aurre klubak errugbi-eskola, emakume taldea, inklusio taldea eta entrenatzaileen formakuntza indartzeko egitekoari.



H.L.

MUko emakumezko taldea etxeko lanak egitera doa Bilbora

Zapatuan, 18:00etan hasita, jokatuko dute Bilboko Casilla kiroldegian ligako azken neurketa Iñaki Ogarak zuzentzen dituen jokalariek, eta aurrean Mazarredo Fisioterapia Unamuno taldea izango dute. Ez da, ordea, denboraldiko azken partidua izango, datorren asteburuan Euskal Ligako lehenengo mailara igotzeko lauko finala izan-

go dute-eta jokoan. Erabakitze-ko falta dena da zein kantxa izango den kanporaketan eszenatoki. Ointxe!-k Unamunori irabazten badio, sailkapeneko bigarren postuari eutsi eta lauko finalaren enbaxadorea izango da Iturripen, baina galduz gero, litekeena da etxetik kanpo jokatu behar izatea.

Marea moreak badaki haizea aldeko duela. Domekan Logroño-ko Maristak jipoitu zituen, eta biharko aurkariei joaneko partiduan irabazi egin zieten.

Hari-instrumentu musikarien txanda da

Udaberriko Musikaldiaren baitako hirugarren kontzertua Arrasate Musikalen hari-orkestrak girotuko du gaur, San Frantzisko elizan, 19:30ean hasita, askotariko estilo eta aroetako kantuekin. Bihar, ordu berean, Piacere dei Traversi joko du Kulturaten

Hasier Larrea ARRASATE

Musika eskolaren orkestra sinfonikoa Udaberriko Musikaldiko ohiko gonbidatua zen pandemia aurretik. Testuinguru berrira egokituta, hari-orkestra osatu zuten 2020an, eta halaxe hasi ziren parte hartzen Udaleko Kultura Sailak antolatzen duen ziklo musikaleko horretan. Irailetik aurrera orkestra sinfonikoa berreskuratzea espero du Arrasate Musikalek, baina gaur, biolin, txelo, biola eta kontrabaxuz osatutako musikariak igoko dira San Frantzisko elizako oholtzara.

Iker Olazabalek zuzenduta, guztira, musika eskolako 26

ikasle, ikasle ohi eta irakasle arituko dira biolinak, txeloak, biolak eta kontrabaxua astintzen. Olazabalek berak onartu du "poz handia" ematen diela Musikaldian urtero parte hartzeak, "maila handiko talde garrantzitsuak" etortzen direla kontuan hartuta. Urtarrila ezkeror darabate errepertorioa lantzen; zuzendariak aurreratu duenez, "kontraste handiko kantuak" joko dituzte, eta amaierarako gordeko dute zatirik "indartsuena". Albinoni, Norman Leider, Edward Elgar eta L. Bernsteinen obrak interpretatuko dituzte; tartean, azken konpositore horren *West Side Story* filmeko abestiak.



Hari-orkestraren emanaldia. A.M.

Udaberri musikala, ate joka

Datorren ostiralean hasita, gainera, Arrasate Musikaleko kideek Udaberri ziklo musikaleko egitarauari ekingo diote. Ekainaren 17ra arte iraungo du eta, guztira, hoge kontzertuz gozatzeko aukera izango dute herritarrek, musika eskolako ikasleek eskainitakoak guztiak.

Musika errenazentista

Udaberriko Musikaldira itzulita, bihar jarraipena izango du kartelak, Valentziatik etorriko den Piacere dei Traversi emakumezko laukotea arituko baita Kulturaten, 19:30ean. Zeharkako flauta eta sopranoaren ahotsa musika-tresna bezala darabilen kon-sorta da, Errenazimendu garaiko doinuak lantzen dituzte, eta musikaren eta arteen historian emakumeek izan zuten eginkizuna aldarrikatzea eta musikaren eta literaturaren artean dagoen harremana erakustea da kontzertuetan bilatzen dutena. Daukaten kalitatearen froga da GEMA sarrietan finalistak izan zirela 2019an eta 2020an, Errenazimenduko musika talde eta disko onenen kategorietan.

Aste kulturala Al-Andalus elkarteak, eguaztenean hasita

Maiatzero legez, ekitaldiz betetako egitaraua antolatu du egoitza Zigarrola kaleko lehen zenbakian duen Al-Andalus kultura elkarteak. Hilaren 18tik 22ra izango da aurtengoa. Eguaztenean, 65 urtetik gorako bazkideei zuzendutako otordua egingo dute, 18:30ean; hurrengo egunean, ordu berean, Andaluziako produktuak dastatu ahaliko dira. Egubakoitz arratsaldean, haurrak izango dira protagonistak, txokolate-jana eta Linaje magoaren emanaldia egongo baitira. Zaturako gorde dute egunik beteena: eguerdian parrillada, Alegria de la Sierra Rociero taldearen kontzertua eta Male-dantza flamenko fusio ikuskitzuna daude antolatuta, eta gauean, berriz, bazkide eta jarraitzaileentzako afaria eta playback jaialdia. Domekan amaituko dute aste kulturala, Lourdes Oncala sevillana eskolaren emanaldiarekin. Ekintza guztiak Al-Andalus elkartearen egoitzan egingo dituzte.

AZKENEKO ETXEBIZITZA TASATUAK

(San Andres - ARRASATE)

2 logelako etxebizitzak
182.830€-tik + BEZa*

3 logelako etxebizitzak
199.212€-tik + BEZa*

*Garajea eta trastelekua barne

SUSTATZAILEA

SALTZAILEA

BIBAI

943 253 821

info@inmobibai.com

www.inmobibai.com

Dastatzea eta azoka, asteari amaiera emateko

Lorabari Astearen barruan, azoka egingo dute bihar, Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etatik 14:00etara; gaur, karpa muntatzen ibiliko dira, eta, gainera, ekonomatuko produktuak dastatzeko aukera egongo da, 19:00etan hasita

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Lorabari Astea amaierara iritsi da. Biher egingo duten azokarekin borobilduko dute aurtengoak eman duena. Azokarako karpak gaur muntatuko dituzte, plazan, 18:00etan.

Gaurko ekitaldi nagusia ekonomatuko produktuen dastaketa izango da. "Aitzakia polita izango da ekonomatuko atek zabaltzeko eta ekonomatua eza gutzen ez dutenek eta baita eza gutzen dutenek ere ditugun produktuak ezagutu eta dastatzeko", azaldu du Lorabari Astea antolatzaile Irati Mujikak. Kontuan hartuta udaberri sasoi hau ez dela onena izaten ortuko produktuak jasotzeko, urtean zehar ekonomatuan izaten dituzten produktuak jarriko dituzte dastatzeko. "Urte osoan ditugun produktuak izango dira. Nafarroako eta Arabako ardoa izaten dugu, Aramaioko sagar-zukua, Arabako garagardoa, humusa eta tofua, olio, marmeladak, gazta, txorixoa, saltxitxoia...", zerrenda luzea bota du Mujikak. Dastatzea 19:00etan izango da, ekonomatuan.

Azokako postuak

Beti bezala, askotariko produktuz osatutako azoka izango da biharkoa. Arbelek, esaterako,

ortuko landareak eta loreak eramango ditu; Bedoñako Errastiko ogia eta gozogintza egongo da; frutak eta barazkiak egongo dira; baita marmeladak eta barazki artzituak, *chucrut* erakoak; olio; baratxuri beltza; Nafarroako kontserbak; Aleka hazi elkarte... "Baita Aitor Bastarrika ere. Galtzerdiak nola egiten dituen ikusiko dugu", dio Mujikak.

Lorabari Astea antolatzaileak gustura daude orain arteko ekitaldiek izan duten harrearekin: "Oso ondo joan da.

Jendea animatu da ekintzetan parte hartzera. Gai interesgarriak landu ditugu eta parte-hartzea ona izan da". Kontsumoaren eta kontsumo ohituren inguruan jardun dute; izan ere, hori da Lorabari Astearen oinarria. Bada, energia, turismoa, elektrizitatearen faktura, lixiba tailerra, hazien ugalketa... izan dituzte hizpide edo aztergai maiatzaren 4tik hasita. Hasiara batean Salaberriko agestoiria bisita antolatu bazuten ere, azkenean, bertan behera geratu da bisita hori.



2021eko azokan, erosleak eta ekoizleak. IMANOL SORIANO



Basalandareak kozinatzen, domekan. IMANOL SORIANO

Basalandareekin osatutako menua

Hogeit bat lagun batu ziren domekan, Azkoagan, basalandare jarriak batu, kozinatu eta dastatzeko. Clara Gutierrezen laguntzarekin asunak, plantainak, milorriak, elorri zuriko loreak, ilena... batu eta entsalada koloretsuak egin zituzten.

Herriko ekoizleak

Aramaioko ekoizleak ere izango dira azokan: Ibabe Gaztak eta Gardoki Eztiak. Marion Granouillet artzainak Idiazabalgo gazta eramango du azokara, gatzagi naturalarekin egindakoa. Horrez gain, esne freskoa ere saltzen du, botiletan. Nabarmendu du: "Sektorea ukituta dago, eta egia da azoketan ez dela askorik saltzen, baina jendeak etorri, ikusi eta dastatzeko aukera izatea beti da ona".

Jesus Gardokik ezia eramango du azokara. "Iaz joan ginen lehenengoz Lorabari azokara, eta aurten berriro ere", dio. Ezti poteak eramango ditu, mila lore erakoa eta txilar erakoa; baita argizaria ere, kremak eta bestelakoak egiteko... "Azoka ona izaten da", dio Gardokik, eta nabarmendu du beti datorrela ondo herrian mugimendua egon eta horrelako azokak antolatzea. 30 bat urte darama Gardokik ezia egiten: "Baserrian beti izan ditugu erleak, eta ezia beti egin izan dugu. Egia da asko aldatu dela ezia egiteko modua. Lehen, zuhaitzetako enborretan egoten ziren erleak, eta gaur egun, kaxetan izaten ditugu". Nabarmendu du ezia egiteko modua aldatzeaz gain, gaur egun bestelako arazoak dituztela gaixotasunekin, eta baita Asiako liztorrearekin ere.

Bi ekoizleak gustura daude herrian horrelako azokak antolatzeak ematen duen aukerarekin.

Maiatzaren 31ra arte eman daiteke izena udalekuetan

2 eta 12 urte bitarteko gazteei zuzendutako udalekuak egingo dituzte uztailaren 6tik 22ra bitartean

A.E.G. ARAMAIO

Uztailaren 6tik 22ra bitartean egingo diren udaleku irekietan izena emateko aukera zabalik dago. Umeen kasuan -2 eta 12 urte bitartekoak-, maiatzaren 31ra arte izango dute izena ema-

teko aukera. ES38 30350161 29 1610004897 kontu korrontean sartu beharko da dirua; ondoren, eskaera orria eta bankuko agiria ludotekan entregatu beharko dira. Prezioa: lehenengo umeak 70 euro, bigarrenak 50

euro eta hirugarrenak 40 euro. Autobusa egongo da auzokoen dako.

Aldi berean, udalekuearako begiraleak ere nahi ditu Udalak. Begirale izateko, 17 urtetik gorakoa izatea eskatuko dute. Egutegia izango da uztailaren 6tik 22ra, 09:30etik 13:30era. Udalekuearako programazioa lantzeko formazioa egingo dute ekainaren 11n; bada, derrigorrezkoa izango da asistentzia. Begiraleek 400 euroko soldata jasoko dute udalekuetan lan egiteagatik.



Umeak 2021eko udalekuetan. GOIENA

Ibilgailuen gaineko zerga ordain daiteke maiatzaren 22ra arte

Trakzio mekanikoko ibilgailuen urteko zerga ordaintzeko epea zabalik dago. Ordainagiria helbideratu barik dutenek maiatzaren 22ra arte izango dute borondatez ordaintzeko epea. Data hori igaro ondoren, ordaindu gabeko kuotak %5eko gainkarguaz kobratuko dira. Helbideratuta dauden ordainagiriak dagoeneko kobratu dituzte.

Finalerdietarako txartela jokatu dute bihar

Aramaiokoa bigarren faseko hirugarren saioa izango da. Sei bertsolarik parte hartuko dute, 17:30ean, kultura etxean. Beste bi final laurdenak kontuan hartuta, Manex Agirre, Xabi Igoa eta Peru Abarrategi sartu dira dagoeneko finalerdietan.

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Arabako Bertsolari Txapelketa-ko hirugarren final laurdena jokatu da bihar, zapatua, Aramaioko kultura etxean. Sei bertsolari ibiliko dira final laurdenetarako txartela lortzeko lehian: Andere Arriolabengoa, Asier Rubio, Felipe Zelaieta, Manuel Bendala, Oihane Perea eta Unai Anda.

Arriolabengoa gogotsu dago herrian aritzeko, aspaldian ez du eta herrian kantatu. "Animatuta nago herrian abesteko; hala ere, esan behar da zapatuan erabakiko dela zeintzuk pasako diren final laurdenetara, eta horrek urduritasun puntu bat ematen du, tentsioa sortzen du", azaldu du bertsolari aramaiorrak. Izan ere, oholtza gainean lagunak direla dio, baina ezberdina dela lagun arteko saio batean aritzea edo txapelketako saio batean aritzea.

Etxekoan aurrean, ardura

Aramaion abestea berezia izango da Arriolabengoarendako: "Beti da berezia: etxekoak egoten dira, herrikoak, ezagunak, lagunak... Horrek bestelako *txute* bat ematen dizu". Eta gaineratu du: "Bestalde, ardura puntua ere badago. Etxekoan aurrean ondo kantatu nahi izaten dugu, disfrutatu gura izaten dugu; izan ere, guk ez badugu disfrutatzen, etxekoek igarri egiten dute ez zaudela gustura".

"Baina bako" saioa

Saio "oso polita" izango dela uste du Arriolabengoak: "Kontuan hartu etorriko dela behin baino gehiagotan txapeldun izandako Oihane Perea, Manu Bendala eta Unai Anda ere egongo dira... Bertsotan ondo dabilzanak dira". Nabarmendu du bertsolarien esku egongo dela saio txukuna egin eta hurrengo faserako txartela lortzea: "Gure esku egongo da, ez da bainarik egongo".



Andere Arriolabengoa, Trebiñuko final zortzirenetan. 'BERTSOZALE.EUS'

SAIO "OSO POLITA" IZANGO DELA USTE DU ARRIOLABENGOAK, "BAINA BAKOA" IZANGO DELA DIO

Saioa kultura etxean izango da, zapatuan, 17:30ean. Aintzane Irazusta Arzallus izango da aurkezlea eta sarrerak online eros daitezke bertsosarrerak.eus atarian, eta, edukiera bete ezean, egunean bertan kultura etxean. Final laurdenetako sarrerak 6 euroren truke daude salgai -4 euro bazkideek-.

Beste bi final laurdenak

Joan den aste bukaeran jokatu zituzten beste bi final laurdenak. Bigarren faseko lehen saioan, Dulantzín, Asier Otamendik lortu zuen finalerdietarako txartela -242 puntu-; saio berean abestu zuen Paula Amilburu aramaiorrak -230,5 puntu-; Zigoitiko final laurdenean, berriz, Manex Agirre nagusitu zen, eta finalerdietarako txartela lortu zuen -245,5 puntu-; saio berean, Xabi Igoa bigarren geratu zen

233 punturekin eta Peru Abarrategi hirugarren 232 punturekin. Final laurdenetako irabazleek zuzenean lortuko dute finalerdietarako txartela; gainontzeko bertsolariek puntuazioaren hurrenkeraren arabera sailkatuko dira.

Kontuak kontu, finalerdietara hamabi bertsolari sailkatuko direla kontuan hartuta, eta geratzen den Aramaioko saioaren zain, behin behineko sailkapenaren arabera lehen seiek ziurtatuta dute txartela; tartean dira Agirre, Igoa eta Abarrategi aramaiorrak.

"Serio" dabilen eskola

Aramaioko bertso eskolaren lana agerian geratzen ari da txapelketan honetan zehar; ez bakarrik bertsolariak ematen ari diren mailarekin; horrez gain, kontuan hartu behar da txapelketan izena eman zuten 30 bertsolarietatik zazpi aramaiorrak izan direla. "Astero-astero biltzen gara bertso eskolan eta, azkenaldian, nahiko serio ari gara txapelketa prestatzen. Asko poztu nintzen Manexek Zigoitiko saioan lortutako emaitzarekin, adibidez".



2021-2022ko denboraldiko taldea. ARAMAIO TROPIKALA FUTBOL TALDEA

Dagoeneko erdietsi du igoera Aramaioko futbol taldeak

Denboraldia amaitzeko bi jardunaldi falta dira eta sailkapeneko lehenengo postuan daude aramaiorrak.

A.E.G. ARAMAIO

2021-2022ko denboraldiko azken partidua jokatu dute etxean aramaiorrek domekan, 18:00etan. Dinamo Lakuabizkarrak taldea izango dute aurrez aurre. Etxean ondo jokatu eta herrikideen aurrean garaipena lortzea izango da aramaiorren asmoa; izan ere, dagoeneko zilarrezko ligako txapeldunak dira eta igoera lortu dute.

Igoera lortzearekin "pozik" daudela azaldu du taldeko kide Jon Ander Erizek, eta liga hasieran jarritako helburua bete dutela dio.

Garaipena eta golegilea

Erizek dio ez dakitela domekan bertan jasoko duten txapelduaren garaikurra edo Gasteizera joan beharko duten bila. Gainera, domekako aurkaria ligako bigarren sailkatua da: aramaiorrek 52 puntu dituzte eta Lakuabizkarrak, 42 puntu. Liga amaitzeko azkeneko partidua datorren aste bukaeran jokatu dute, Bitcoin Club Vitoriaren aurka.

Nabarmentzekoa da ligako golegile onena, gaur-gaurkoz, Asier del Campo aramaiorrek dela, 34 golekin.

Tapia legearen aurka egingo dute bihar Gasteizen, 19:00etan

Araba bizirik! lurra defendatuko dugu plataformak deitu du manifestazioa, eta Arabako Mendiak Aske taldeak bat egin du deialdiarekin. Manifestazioa bihar, zapatua, egingo dute, Gasteizen, Bilbo plazatik 19:00etan irtenda.

Tapia legea deritzonaren aurkako manifestazioa izango da. "Lege horren arabera, Goi-mailako Interes Publikoko Proiektuak izeneko figura sartu da; eta, gainera, oraindik Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari dena, figura hori Goi-mailako Intereseko Proiektu pribatueta-rako sartu nahi da", azaldu du Arabako Mendiak Aske! taldeak ohar bidez.

Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa abiarazi dute

Aramaioko Udalak San Martin jaietarako kartel lehiaketa deitu du. Hiru kategoriatan banatuta egingo dute lehiaketa: ume eta nagusien kategorian parte hartzeko Aramaiokoa izan behar da, eta helduen kategorian edonork parte hartu ahal izango du. Pertsona bakoitzak gehiezin bi kartel aurkezteko aukera izango du, originalak izan behar dute eta derrigorrez ondorengo testua eraman beharko dute: *San Martin jaiak 2022. Uztailak 1, 2, 3 eta 4*. Gaia librea izango da. Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira, maiatzaren 26a baino lehen.

Saria da: umeek eta nagusiek 60 euro eta helduek 150 euro.

Artzain txakurren lehia lehenengoz Ojala Zelain

Domekan, Ojala Zelai eguna ospatuko da, eta, herri krosarekin batera, herri bazkaria, musika, dantzaldia eta abar izango dituzte bertaratzen direnek. Horrekin batera, bezperan, lehenengo aldiz egingo da artzain txakur txapelketa, 17:30ean hasita

Imanol Beloki ARETXABALETA

Asteburu betea izango da datorrena Aretxabaletako Ojala Zelai inguruan. Bi urteko geldialdiaren ostean, Ojala Zelai eguna egingo dute domekan. Baina bezperan, zapatuan, Aretxabaletako lehenengo artzain txakurren lehiaketa egingo dute. Artzain txakur txapelketen antolatzaileen elkarteak, Artxatek, antolatutako lehiaketa izango da, eta bertan parte hartuko du antolatzaile lanetan dabilen Javier Gastañaga aretxabaletarrak, besteak beste.

Bezperan, lehiaketa

Zapatuan 17:30ean hasiko da artzain txakurren lehiaketa, eta bertan arituko diren sei parte-hartzaileek zazpi minutuko bi proba egin beharko dituzte. Esan moduan, Javier Gastañagak berak ere hartuko du parte txapelketan, 22 hilabete dituen *Cool* txakurrarekin. "Antzuolan bizi naizen arren, Aretxabaletakoa naiz, eta bertan parte hartuko dut. Data bat jartzerakoan, Ojala Zelai egunean pentsatu genuen, baina, zarata askorik egotea ez denez komeni, bezperan egitea erabaki dugu. Ligatik kanpoko txapelketa izango da, eta bertaratzen direnen gustukoa izango delakoan gaude". Txapelketa



Ainhoa Cabero eta Javier eta Xabier Gastañaga egitaraua aurkezten. TXOMIN MADINA

ofizialaz gain, Javierren seme Xabier Gastañaga antzuolarrak eta Aretxabaletakoa bertakoa den Asier Dacostak erakustaldia egingo dute.

Aretxabaletako Udalak babes-tutakoa izango da zapatuko proba; hasiera batean, 2020an egin behar zen, eta, Ainhoa Cabero Kultura zinegotziaren esanetan, "ekimen interesgarria" iruditu zitzaizen proposamena jaso zutenean: "Tokia egokia da artzain txakurren lehiaketa egiteko, lehenengo aldiz izango da, eta Ojala Zelaiko ekintzekin bat

egiten du, ekintzen programa osatuz".

Domekan, Ojala Zelai eguna

Domekan egingo duten Ojala Zelai egunari dagokionez, bestalde, 11:00etan, herri krosa egingo dute, haurrentzat zein helduentzat, eta gero etorriko dira, 13:00etan, animalien jolasak; 13:30ean, sagardo festa, Aretxabaletako Leizarra musika eskolako trikitilariak alaituta; 14:30ean, herri bazkaria; 16:00etan, euskal disko festa DJ Bulekin; 18:00etan, dantza saioa

'Mardo'-ren omenezko kros herrikoia

Joseba *Mardo*-ren omenez Ojala Zelaiko herri krosaren 42. edizioa izango da domekan. Lehenbizi, 10:00etan, haurrentzako lasterketak egingo dira –benjaminak, alebinak eta infantilak–. Ostean, 11:00etan, helduen krosa hasiko da, eta parte-hartzaileek Ojala Zelaitik irtenda bira eman beharko diote Urkulu urtegiari. Hiru kategoriatan banatuta egongo da lasterketa: gizonezkoak, emakumezkoak eta bikote mistoak.

Izen-emateak, aurrez, *herrikrossa.eus*-en edo Ibarra kiroldegian egin daitezke, zortzi euro ordainduta, eta egunean bertan parte hartu nahi duenak hamabost euro ordaindu beharko ditu.

Leizarra dantza taldekoekin; eta amaitzeko, berriz izango da DJ Bull. "Pandemiaren ostean, ekintzak antolatzeko gogoz geunden, eta gauza ugari izango ditugu. Haurren eta Joseba *Mardo*-ren omenezko krosen ostean egingo diren kontuez gain, herri bazkaria izango da, eguerdian, eta bertara nork bere bazkaria ekarriko du. Horretarako, mahaia jarriko ditugu, eta musika ere izango da hitzordua girotzeko. Hala ere, arratsaldean ere izango da zertaz gozatu...", adierazi du Caberok.

Urtebete luzatu diete kontratua Athlon eta Gizadi enpresei

Ibarra kiroldegiko jardueren ardura Athlon kooperatibari eman zion Udalak iazko maiatzean, eta kontratu hori beste urtebete luzatzea erabaki du orain. Beste horrenbeste gertatu da etxerik etxeko zerbitzua ematen duen Gizadi enpresarekin; honi ekainean bukatzen zaio kontratua. Aste honetan egindako osoko bilkura banatan onartu du udalbatzak, aho batez. Lau urte arte luzatu ahal izango diete bie.

EH Bilduk hobetsi zuen urtearen gorabeheren gaineko balorazio txiki bat egitea onartu aurretik, dagokion batzordean, eta Udal Gobernuak kideak bat etorri ziren.

Begiraleak behar dituzte uztaileko udalekuetarako

Uztailaren 8tik 22ra bitartean egingo diren udalekuetan, begirale izan nahi dutenek formulario bat bete beharko dute loratutoramendielk.wixsite.com/loratu webgunean, eta, bertan eskatzen diren datuak betetzeaz gain, curriculum eta ziurtagiriak txertatu beharko dituzte. Horretarako azken eguna maiatzaren 18a izango da.

Formularioan ezarrita daude ezinbesteko baldintzak, eta baita hautaketarako erabiliko den eta lan-esperientziaren puntuazio sistema. Horrez gain, begiraleen formakuntzak ekainaren 11n eta 17an izango direla eta horietara joatea derrigorrezkoa izango dela azpimarratu dute.



ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

Etorri eta lagunduko dizugu

2021eko errenta kanpaina

Aholku pertsonalizatua

Araba ibilbidea 20A • ARETXABALETA • Tel./Fax.: 943 79 29 26 • naiara@asesoriaandramari.com

Merkataritzan euskara pizteko ekintzak laster

Ekintza plana diseinatuko du Udalak hizkuntzaren egoera hobetzeko. Aurretik, diagnostikoa osatuko dute, eta aurrera begirako ildo nagusiak zehaztu; horretarako, bi bilera egingo dituzte, maiatzean, merkatariekin eta ostalaritzako kideekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko merkataritzan eta ostalaritzan euskararen egoera hobetzeko eta erabilera sustatzeko helburuarekin ekintza plana diseinatuko du Udalak. Gogoeta-prozesua bat abiarazi gura du, sektore horrek euskararen normalizazioan jokatzen duen rolaz jabetzeko eta hizkuntza hori indartzeko proposamen zehatzak adosteko, besteak beste.

Egoera ezagutzeko diagnostikoa egin zuen Udalak 2020an. Aretxabaletako establezimenduen %75ek hartu zuten parte orduan, 72k, hain zuzen ere, eta 228 langileren datu soziolinguistikoak jaso zituen. Elhuyar Aholkularitzari eman zion horren ardurara, 16.000 euroko aurrekontuarekin. Pandemiak, baina, geldiarazi egin zuen prozesua, eta orain, berriro abiaraziko dute.

Hamazortzi lagun deituta

Plangintza zehazteko bi bilera egingo dituzte merkataritzako eta ostalaritzako hamazortzi ordezkariarekin: maiatzaren 17an eta 31n, 15:00etatik 16:30era, Arkupen. Lehenengoan, egingako diagnostikoa partekatuko diete; eta bigarrenetan, aurrera begirako lan ildoak adostuko dituzte.



Durana kaleko komertzio bat. MIRARI ALTUBE

Diagnostikoa jasotako datuak

Galdetegiari erantzundako langileen %88k esan dute ondo edo erdizka moldatzen direla euskaraz.

- **Jakintza:** %72 ondo moldatzen da euskaraz; %16 erdizka; eta %12k ez daki.
- **Errotuluak:** %74 euskaraz; %8 gaztelaniaz; eta %18 ele bietan.
- **Tiketak:** %53 euskaraz; %14 gaztelaniaz; eta %33 ele bietan.
- **Menua:** %14 euskaraz; %29 gaztelaniaz; %57 ele bietan.
- **Sare sozialak:** elementuen %21 euskaraz; %22 gaztelaniaz; %57 ele bietan.
- **Ahozko harremanak:** %51 euskaraz; %24 gaztelaniaz; %25 ele bietan. Lehenengo hitza %74k euskaraz egiten du, eta %49k bezeroekin euskaraz dihardu.

Aretxabaletarren jakin-mina piztu du Ekiola proiektuak

Arkupen egindako aurkezpenera 70 bat lagun joan ziren, eta egunean bertan, hainbatek eman zuten izena

M.A. ARETXABALETA

Leintz Bailarako Ekiola Koooperatibaren gaineko xehetasunak azaldu zituzten martitzenean Aritz Otxandianok, Fagor Taldeko Iraunkortasun arduradunak, eta Elene Santa Mariak, Ekiolaren Gipuzkoako eta Bizkaiko proiektuen arduradunak.

Trantsizio energetikorantz pausoak ematen hasia dela kooperatiba berriaren helburua jakinarazi zieten Arkupen elkartutako 70 bat herritarrei. Hala, Arrasateko lurzoruan jarriko den parke fotovoltaikoan megawatt bateko potentziako eguzki parkea eraikiko da. Leintz bailarako 450 bazkidek izango dute lekua kooperatiban, eta horien energia beharrak %100 asetzera da asmoa. 25 urterako bizitza izango du parke horrek eta "ingurumenarekin eta lehen sektorearekin bat" egingo du.

Aurretiko izen-ematea zabalik

Herritarren kezka ere argitu zituzten hizlariak. Etxebizitzaren lantegien teilatuetan plakak jartzea ez dela nahikoa izango adierazi zieten, "%100 hornitu gura bada". Jakinarazi zuten sortutako energia beti sarera salduko dela, eta handik kontsumitu gero, "energia berdea etiketarekin". Eta unean uneko erronkei erantzuteko erabakiak kooperatibako bazkideek hartuko dituztela gogorarazi zieten.

Aurretiko izen-emate epea dagoeneko zabalik dago helbide honetan: ekiola.eus/leintz-bailara. Orain ematen dutenek lehentasuna izango dute irail inguruan abian jarriko den bazkidetze kanpaina. Parke fotovoltaikoa eraikitzen azaroan hasiko dira, eta 2023ko otsailean funtzionamenduan izatea gurako lukete.

Areto futbolaren bueltan kirola eta musika bat eginda

Areto futboleko kideek jaieguna antolatu dute biharko. Goiz partean (10:00) hiruko txapelketa eta penalti-bikoitzaren tonbola jokatu dituzte Kurtzebarri eskolako kantxan. Arratsaldean (18:00) kontzertuak izango dira, Erne, Iluminatizz, Berandu Baina Lehen, Biris eta Cryne taldeen eskutik. Gau partea, oster, AZ Gaubelakek girotuko du.

Odola emateko aukera dago datozen hiru astelehenetan

Arabako odol bankuko autobusa etorriko da Durana kalera datozen hiru astelehenetan: maiatzak 16, 23 eta 30. Bertan eman ahal izango dute odola aretxabaletarrek, 16:45etik 20:00ak bitartean. Arduradunen esanetan, egunean 400-500 emalderen odola behar izaten da; horregatik, odola ematearen garrantzia azpimarratu dute.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Mbam udalerri inguruko neska kuadrilla bat. YAAKAR ELKARTEA

Ospitaleak emandako materiala, Senegalera

Debagoieneko Ospitaleak emandako oheak, mahaitxoak, besaulkiak, ekografiak egiteko makina eta beste hainbat altzari eta babes-material jaso ditu Aretxabaletako Yaakar elkarteak; horiek bidali ahal izateko diru-bilketa kanpaina jarri dute abian

Mirari Altube ARETXABALETA

Lankidetzatza proiektu bat du martxan Aretxabaletako Yaakar elkarteak Senegalgo Mbam herrian; hango osasun zentroan erditze eta kontsulta gelak eraiki dituzte azken urtean. Horiek hornitzeko materiala jaso dute orain, dohaintzan, eta hori bidaltzeko diru-bilketa kanpainari ekin diote.

Diru-batze kanpaina

2019az geroztik lanean diharduten Yaakar elkarteak kideak pozik agertu dira Debagoieneko Ospitaleak jaso duten materialarekin: ospitaleko lau ohe, lau mahaitxo, bi besaulki, lau ohatila finko, ohatila hidrauliko bat, ekografiak egiteko makina, bestelako hainbat altzari eta babes materiala; besteak beste, mantal berrerabilgarriak. "Dohaintza horrek herriko emakumeen bizitzara hobekuntza handia ekarriko du, haurdunaldian eta erditzeko orduan laguntza eskainiz, eta haurren

heriotza-tasa murriztuko du", azaldu dute elkarteko kideek.

Material hori Senegalera zelan bidali da orain erronka: "Hori guztia Mbam udalerriko osasun etxera eramateko edukiontzi bat ordaindu behar da, eta gastu horri aurre egiteko kanpaina bat abiarazi dugu". Ordainketak bi eratar egin daitezke: Bizum aplikazioan sartuta: klik egin *Dohaintza -Eman-* botoian eta Yaakar Aretxabaletako elkarteak bilatu; edo banketxe-transferentzia bidez, zenbaki honetan: ES60 3035 0002 16 0020077455 -Laboral Kutxa-. Gainera, maiatzaren 28an, Txakolin Egunean, kalean ere izango direla dirua jasotzen jakinarazi dute: "Dohaintza guztiak dira ondoetorriak!".

**DIRU EKARPENAK
EGIN DAITEZKE BIZUM
BIDEZ EDO
TRANSFERENTZIA
EGINDA**

Emakumeendako arreta

Senegalgo hego-mendebaldean, Fatick eskualdean eta Foudiougne departamenduan dago Yaakarrek abian duen proiektua, eta Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzako udalen eta Mbam herriko eragileen laguntzarekin eraiki du amatasun-kontsulta. "Proiektuaren helburu nagusia da larrialdiko obstetriziaz-arreta eta jaioberriena hobetzea; izan ere, Mbam udalerriak ez du instalazio egokirik amaren eta jaioberriaren osasuna bermatzeko", adierazi dute eta aurrez aurre dituzten erronken berri eman: amaren heriotza-tasa murriztea; arreta medikoa jasotzeko aukera bermatzea, bereziki populazio ahulenei eta nekazari-ingurukoei; kalitatezko osasun publikoko zerbitzua lortzea; eta osasun plan baten bidez bertako osasun sistema hobetzea.

Uztailean herriko ordezkariak bat joatea hara bisitan da asmoa, egindakoen berri bertatik bertara jasotzeko.



Auzoko taldeko kideak karapaixoa erakusten, labetik atera berritan. AUZOKO

Auzoko taldeko kideak sukaldean elkartuko dira maiatzean

Herrialde askotariko jakien berri jasotzen dabilta eta karapaixoa eta kuskusa egin dituzte astean

M.A. ARETXABALETA

Herritarrak euskarara gerturatzeari helburu duen Auzoko taldeko kideak gaztelekuko sukaldean elkartuko dira maiatzeko hainbat astetan. Herrialde askotariko jakien gainera lanketa egiten dabilta, euskarazko berbak ikasten, eta kozinatzen.

Datorren astean bi saio

Astelehenean, karapaixoa izan zuten langai; ohituraren berri jaso eta aditua den herritar batekin zelan egin ikasi zuten. Eguaztenean, osteratzen, kuskusaren txanda izan zen, eta hori kozi-

natzen irakatsi zieten. Datorren astean ere izango dituzte beste bi saio: martitzenean (12:30-16:30), jaki arabiarren bueltan jardungo dute lanean; eta eguaztenean (09:00-11:00), janari pakistandarrek izango dira protagonista.

"Ikastaro horiei esker munduko janari ezberdinak kozinatzen ikasteaz gain, sukalde kontuak euskaraz bizitzeko aukera izaten gabilta Auzokoa", azaldu du taldeko arduradun Miren Igarituak. Maiatzaren 22an egingo den kultura arteko bazkarian, saio horietan ikasitakoa probatzeko aukera izango da.



XABI URZELAI

Batzokia, berrinauguratuta

Batzokia eraberritu egin dute, "beste itxura bat eman eta herrira gehiago zabaltzeko asmoarekin", eta, hori ospatzeko, hainbat alderdikide gonbidatu zituzten Aretxabaletako EAJko kideak joan den domekarako; besteak beste, elkartu ziren GBBko presidente Joseba Egibar, Maria Eugenia Arrizabalaga eta Debagoieneko hainbat herritako ordezkariak.

Larrain dantza ikastaroa, plazan berriro egin eta ohitura bihurtzeko

Ferixa egunean, ekainaren 4an, Fernando Eskoriatza plazan larrain dantza egiteko ikastaroa hasi zuten astelehenean 44 lagunek. Esperientziadunak, hasiberriak, ikasitakoak eta gogorazartera joan zirenak batu ziren, eta batuko dira, astelehenero

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Oihane Vicente dantza irakaslearen gidaritzapean hasi dira larrain dantza ikastaroak asteon. Talde ederra batu zen astelehenean Joseba Iñurrategi pilotalekuko gimnasioan, eta larrain dantzaren lehen zatiak zeintzuk diren ikasteko lehen saioa izan zuten bertaratuek: ezkerreko edo eskuineko hankarekin hasi behar den, zapia noiz eman behar zaion bikotekideari, eraman beharreko erritmoa, alde batera edo bestera mugitu behar den eta abar.

Hamabi minutuko dantza da, zati ezberdin asko dituen, eta irakasleak adierazi zuenez, "dantza luzea da eta pazientzia hartu beharko da ikaste-prozesua". Hala, pauso guztiak dakizkiten herritarrak egon arren, lehenengo aldiz dantzara animatu direnak ere badira, eta horiek

ere gogotsu daude. Aurreikuspenen arabera, gainera, hogeit lagun inguru espero zituzten ikastaroan, baina, 44 lagunek izena eman eta aurreikuspenak gaindituta, Ferixa egunean 19:30ean egingo den dantza-saioa ere beste zenbait herritar batuko direla ere uste dute zenbait partaidek.

Teleskoko irudiak

Ikastaroa antolatzeaz gain, duela hogeita bost urte Fernando Eskoriatza plazan egindako dantza-saioko grabaketa ere aurkitu eta digitalizatu dute,

BI SAIO ETA ENTSEGU OROKORRAREKIN, FERIXAN DANTZA EGITEKO GERTU EGOTEKO ASMOZ

herritar guztiekin partekatzeke. 1997an dantza egindako herritar batek zuen Teleskok grabatutako bideo-zinta etxean, eta, digitalizatuta, Youtuben jarri dute: batetik, dantza ikastarora animatzen direnek ikus dezaten, eta, bestetik, ikastarora joan ez denak edo ezin duenak bideoa ikusiz bere kontura ikasteko.

Hiru saio eta entsegu orokorra


Hiru saio egingo dira: astelehenean -maiatzaren 9an- egindakoa, maiatzaren 16an eta 23an egingo direnak eta, horiekin batera, dantza jakin eta entsegu beharrik ez dutenentzat zuzenduta ere badagoen maiatzaren 30eko entsegu orokorra. Saiok 20:00etatik 21:00etara bitartean egiten dira, eta lehenengo saioa pasa arren, izena eman nahi duenak 636 78 59 71 zenbakira deitu edo idatzi beharko du.



Duela 25 urte, plazan, dantzan

Sanpedroen bueltan dantza taldeko kideek eta zenbait herritarrek larrain dantza egin zuteneko une bat. Garai hartan dantzan aritu zirenek, 1997ko bideoa zabaltzeaz batera, ikastaroa antolatu dute, berriz plazara ateratzeko asmoz eta gogoz.

Dantzarako gogoa dagoelako




OIHANE VICENTE
DANTZA IRAKASLEA

"Hiru saio ikasteko Dantza taldeko ikasleek esan zidaten larrain dantza ikasteko gogoa zutela, eta ikastaroa antolatu dugu. Hamabi minutuko dantza bat da, hainbat zati ditu, eta hiru saiotan ahal duguna egiten saiatuko gara."




MIREN DIAZ DE GEREÑU
IKASLEA

"Duela 25 urte egin genuen dantza plazan, eta berreskuratzea eta ohitura bihurtzea polita izango litzateke. Hala, urtean bi saio, behintzat, egitea ederra izango litzateke. Azken zatiak dira zailenak, baina egingo dugu".



IRATI UNANUE
IKASLEA

"Dantza taldeko kidea naizen arren, larrain dantza ikastarora joango naiz, nire lehenengo urtea delako eta ikasi egin nahi dudalako. Gainera, herrian antolatzen diren ekintzetan parte hartzea garrantzitsua dela uste dut, eta horregatik animatu naiz".



AIORA DIAZ DE GEREÑU
IKASLEA

"Ezagutzen dut larrain dantza eta badakizkit pausoak, baina errepasatzea ezinbestekoa zait, gero Ferixa egunean plazara irteten garenean ondo egiteko. Dantza luzea da, baina ez da gogorra; entseatuta, guztiok lortuko dugu ikastea".



Astelehenean, Joseba Iñurrategi pilotalekuko gimnasioan, larrain dantza ikastaroko parte-hartzaileak hasteko gertu. I. BELOKI

Hauspoa astintzeko eta larrua kolpatzeko eguna

2005ean egin zen lehenengoz Debagoieneko Trikitilari Eguna, eta zapatua honetan, Eskoriatzan, hamazazpigarren edizioa ospatuko da. Bederatzi trikiti eskolako ikasleak arituko dira herriko kaleetan zehar, trikitia sustatzen eta ondo pasatzen

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Zapatuan, Debagoieneko Trikitilari Eguna ospatuko da Eskoriatzan. Hamazazpigarren edizioa izango da aurtengoa, eta egun osoko programa gertu dute.

12:00etan, kalejira egingo da herrian zehar, eta, kasu horretan, trikiti eskola bakoitza bere aldetik arituko da. 13:00etan, trikiti eskolen joaldia izango da, Fernando Eskoriatza plazan; eta 14:30ean, bazkaria egingo dute Manuel Muñoz kiroldegian. Guztira, 260 lagun batuko dira bazkaltzeko. Arratsaldean, kalejira erraldoia egingo dute eskola guztiek batera; eta 18:00etan, Mugi Panderoa taldearekin erromeria izango da. Egunari amaiera emateko, triki-poteoa egingo dute, 20:00etan.

Bederatzi trikiti eskola

2005ean hasi ziren jai egun hori antolatzen, eta zapatuan Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko, Aramaioko, Oñatiko,



2012an, bailarako trikitilari eguna Eskoriatzan ospatu zeneko une bat. GOIENA

Bergarako, Antzuolako, Elgetako, eta Soralezko trikiti eskolako ikasleak batuko dira, berriz ere, trikiti eta pandero doinuak plazaratzeko. Aurten Eskoriatzan egin ostean datorren urtean Elgetan egingo denarekin

bigarren bira edo zikloa itxiko dute.

Bailaran, Gatzaga da herri bakarra trikiti-eskolarik ez duena, nahiz eta duela hiruzpalau urte izan zen, eta, bailarakoa ez izan arren, 2010a ezkerro Sora-

luzeko trikiti eskolakoez ere hartzen dute parte. Hala, guztiek batera, trikitia sustatzeko, ikasleei kalean jotzeko aukera emateko eta beste eskola batzuk egiten dutena ikasteko helburua du jaiak.

"Dozena bat ikasle ari dira Eskoriatzako trikiti eskolan"

ADOLFO JAINAGA ESKORIATZAKO TRIKITI ESKOLAKO IRAKASLEA

Eskoriatzako eta Elgetako trikiti eskolako irakasleak 28 urte beteko ditu urtarilean Eskoriatzan eskolak ematen ari dela, eta apirilean, berriz, 31 urte bete zituen Elgetako trikiti irakasle. Biak eta bailarako trikiti eskola guztiak osasuntsu daudela dio Jainagak, eta urtez urte itxarote-zerrenda egoten dela azpimarratu du.

Trikiti eskolek zein bilakaera izan dute hasi zinenetik?

Trikiti eskolen irakaskuntza era masifikatuan 80ko hamarkada amaieran zabaldu zen, 1985-1986 inguruan. Hasierako urteetan, egun bateko loraldia izango zela pentsatzen genuen, eta gero beherakada etorriko zela, baina ez da horrela izan. Eskola gehiago ireki dira, eta geroz eta jende gehiago dago.



T.I.

Kopuru aldetik osasuntsu dago bailaran, eta kantitateak kalitatea ekartzen du sarritan. **Eskoriatzan zein da gaur egungo egoera?**

Eskoriatzan dozena bat lagun ari naiz irakasten gaur egun, eta zenbaki polita dela esango nuke. Urte hauetan guztietan, trikiti eskoletara joateari utzi dioten ikasle asko ere badira; ikasketak egitera kanpora joan direlako izan da gehienetan. Hala ere, saiorik ez hartu arren, segitzen dute euren kabuz hainbatek.

BAILARAKO ETA SORALUZAKO TRIKITI ESKOLETAKO IKASLEAK BATUKO DIRA JAIA

Biodibertsitatea, elikadura eta ura landuz, ekarpenak eginda

Ikastetxeetako haurrek hiri eta komunitate jasangarrien azterketaren ondorioak aurkeztu dizkiote udalbatzari

I.B. ESKORIATZA

Eguaztenean, maiatzeko ezohiko osoko bilkura izan zuten Eskoriatzako udalbatzako kideek, eta, urtero moduan, Agenda 2030 izan zuten berbagai. Horretarako, herriko ikastetxeetako haurren bisita izan zuten osoko bilkuren aretoan, eta gaztetxoek proposamenak egin zituzten, kontuan hartzeko helburuarekin. Aurten, *Hiri eta komunitate jasangarriak* gaia ardatz, herriko zenbait aspektu aztertu dituzte, eta baita ondorioak atera.

Besteak beste, ura aurrezteko mekanismoak proposatu zituzten udalbatzari, eta baita haiek hartuko dituzten konpromisoak helarazi ere. Dieta aberatsak duen garrantzia ikusita, herrian bertan jateko aniztasuna ere aztertu dutela adierazi zuten gaztetxoek, eta fruta dendak eta ortuak bisitatu dituztela gaineratu. Hori horrela, egubakoitzetako azokari eta ortu komunitarioei balioa eman zieten, eta zero kilometroren alde jokatzeari nabarmendu zuten. Azkenik, Almen inguruan dagoen biodi-



Ikastetxeetako haurrak osoko bilkuren aretoan, martxoko ezohikoan. IMANOL BELOKI

bertsitatea aztertu dute, eta espezie inbaditzaileak, ongariak... berbagai izan zituzten.

Egindako proposamenekin bat egin zuten udalbatzako kideek, eta honako hau adierazi zuen Joserra Zubizarretak, Eskoria-

tzako alkateak: "Udalari eskari asko eta gogorrak jartzen dizkiote, eta euren buruari gutxi. Egia da Udalak zeregin asko dituela, baina gutariko bakoitzak hartu beharreko konpromisoak ere badaude".

San Pedro jaietako kontzertuak zehaztu dituzte dagoeneko

Eskoriatzako Udaleko Jai Batzordeak ez du guztiz itxita herriko jaietarako programazioa, baina San Pedro jaietan izango diren musika taldeak zeintzuk izango diren jakinarazi du, nahiz eta Eskoriatzako Txosna Batzordeak antolatutakoak oraindik ez dituzten argitaratu.

Ekainaren 28an, San Pedro egun bezperan, Iratzar erromeria izango da. San Pedro egunean, Goazen, Kilimak -euskal rumba- eta Dave -rapa-. Ekainaren 30ean, Mexiko Lindo -mariatxiak- eta Bon Scott Revival Show -AC/DC taldearen bertsioak-. Uztailaren 1ean, Lehian erromeria. Eta uztailaren 2an, berriz, Duo Imperial eta En Esenzia Orquesta.



Atxorrotx Kultura Elkartearen egunean, Fernando Eskoriatza plazan, puzgarriak haurrentzat ireki zituzten unea. IMANOL BELOKI

Laguntzeko borondate handia ikusita, eskertuta

Imanol Beloki ESKORIATZA

Joan den zapatuan ospatu zen Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna, herritar ororentzat zuzendutako ekintzekin. Herritarren erantzuna ona izan zen, eta, beraz, gustura agertu dira elkarte kideak; horrek aurrera begirakoak prestatzeko bultzada eman diela nabarmendu dute.

Esker mezua

"Txistulariei, talogileei, Motxila 21 taldeari, buruhandiei... eskerrak eman nahi dizkiegu. Azpimarragarria izan zen Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek eta baita elkartetik kanpo daudenek laguntzeko borondatea agertu zutela. Batez ere, herri bazkarian. 160 pertsonatik gora batu ginen, eta guztiek une oro laguntzeko borondatea erakutsi zuten. Modu horretan, lanak askoz samurrago egiten dira. Elkartearantz indarbertitzeko eguna izan zela esan dezakegu".



Inkernu taberna kanpoan egin zuten herri bazkaria. ATX



Motxila 21 taldearen emanaldian. ATX

Ekainaren 18an izango da Gabez Takarraran, oinez eta korrika

Izen-ematea zabalik dago ekainaren 13ra arte, 'inscripcion.kirolprobak.com' webgunean

I.B. ESKORIATZA

Gabez Takarraran gaueko mendilasterketari jarri diote eguna Eskoriatza Kirol Elkarteko antolatzaileek. Hain zuzen ere, ekainaren 18an izango da, eta dagoeneko aukera dago izena

emateko, *inscripcion.kirolprobak.com* webgunean. Plazak mugatuak direnez, eta antolakuntza lanak aurreikuspenekin prestatzeko asmoz, interesdunei lehenbailehen izena emateko gomen dioa egin nahi izan diete anto-

latzaileek. Horrekin batera, izena emateko azken eguna ekainaren 13a izango dela nabarmendu dute.

Azken edizioetan egin den moduan, parte hartzaileek korrika egin ahalko dute 25 kilometroko ibilbidea, eta, modu horretan barik, lasaiago oinez egin nahi duenak ere aukera izango du era horretan egiteko. Hala, korrikalariak 22:00etan hasiko dira Fernando Eskoriatza plazatik, eta oinez egingo dutenak, berriz, 20:00etan.

LEINTZ GATZAGA 23



Otxandiano, Ekiolaren aurkezpenean, Arrasaten, Amaia antzokian. GOIENA

Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba aurkeztuko dute

Astelehenean egingo da, 18:30ean, Leintz Gatzagako kultura etxean, eta ekitaldia irekia izango da

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Astelehenean, hilaren 16an, Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba ezagutzeko hitzaldi-informatiboa egingo dute kultura etxean, 18:30ean. Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba zer den, nola funtzionatzen duen eta proiektuari buruzko xehetasun guztiak azalduko dituzte.

Besteak beste, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako udalen, Fagor Taldearen, Mondragon Taldearen, Debagoiena 2030 sarearen eta Energiaren Euskal

Erakundearen babesa du Leintz Bailarako Ekiola Kooperatibak.

Zalantzak argitzeko tartea

Ekiolaren bitartez gatzagarriak eguzki-parke txiki bidez hornitu ahal izango dira eta kooperatiban parte hartzeko aukera izango dute energia sortzeko eta kudeatzeko. Hori horrela, kooperatibako hainbat ordezkari –Aritz Otxandiano eta Amaigoia Barandiaran– egitasmoaren xehetasunak azalduko dituzte, baita herritarren zalantzak argitu ere –ekitaldian ez da egongo itzulpen zerbitzurik–.



IMANOL BELOKI

Aurreikuspenak gaindituta

Aurreikusi baino hobeto joan dela Makilakorta jaia adierazi dute antolatzaileek, eta ekintzek harrera aparta izan dutela azpimarratu: "Eskerrak eman beharrean gaude pilota partiduetan parte hartu zutenei, bazkarian izan zirenei, Kontralde eta Unidad Alavesari eta horietaz disfrutatzea etorri ziren guztiei. Hurrengo hobetzea zaila izango da".



Gotzon Arzelus, Ainhoa Lete, Estepan Plazaola, Rosa Errazkin, Marije Unamuno eta Oihana Garmendia, asteon. JOKIN BEREZIARTUA

ZTB jardunaldiak: etekin handiagorako, urte osoan

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sustatzeko ekimena urte osora irekiko dute aurten, 'ztbergara.eus' webgunean iragarriko dituzten saioei ahalik eta zuku gehien ateratzeko; antolatzaileek "elkarlanaren balioa eta gizartea 'zientziaraztearen' garrantzia" berretsi dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldiek al daketa esanguratsu bat izango dute aurten. Eta, hain justu ere, aldaketa horren berri emateko eta dagoeneko ospea eta izena duen ekimen horren barruan epe motzean izango diren ekitaldiak iragartzeko agerraldia egin dute asteon Laboratorium museoa. Ainhoa Lete alkateordeak honela azaldu zuen aurtengo egituraren aldaketa: "Urrats berri bat egingo dugu, eta udazkenean egin ohi ditugun jardunaldien barruan egiten dugun lana eta ekarpena urte osora zabalduko dugu. Eta jardunaldiak zientziaren astearen

testuinguruan egingo ditugu, baina astebetera mugatuta. Eta horrela indartu egingo dugu zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren dibulgazio lana".

Jatorria, IKT astean

Ezin da ahaztu ZTB jardunaldiak garai bateko IKT asteari jarraipena emateko sortu zirela, 2015ean, Laboratorium museoa ireki zen urtean. "Azken urteetan jardunaldion egitura handitzen joan da, ekintza mordo batekin, eta, azkeneko, hilabete osoko egitaraua osatzen zen. Horregatik, eraginkortasunari begira, 2021eko edizioaren balorazioa egin genuenean, komenigarri ikusi zen beste modu batera an-

tolatzea; denbora tarte motz batean horrenbeste ekintza antolatu beharrean, urte osoan zehar banatuago egongo dira ekitaldiak", gaineratu du Letek.

Elkarlanaren garrantzia

Jardunaldion helburua gizarte zabalarri zientzia gerturatzea izanik eta Laboratoriumeko misioarekin guztiz bat datorrela esanda, elkarlanaren balioa azpimarratu du museoko arduradun Rosa Errazkinek: "Eragile asko dira ZTB jardunaldion parte eta hor dago, hain zuzen, ekimenaren zutabe garrantzitsuenetako bat: elkarlana. Jardunaldi hauek badute marka, eta, marka horren azpian ekitaldiak urte osora za-

balduta, etekin gehiago aterako dugula uste dugu; guretzat, gainera, urteko mugarri inportanteenetako bat da".

Epe laburrenean datorren ekitaldi berezi bat azpimarratu du Errazkinek; maiatzaren 15ean amaituko den Jot Down lehiaketa, alegia. Zientzia dibulgatzeko lehiaketa da, eta lau modalitate ditu: argazkigintza, ilustrazioa, saiakera eta narraitiba. 1.000 euroko lau sari eman- go dira, ekainean.

Ikasleengan pentsatzen

Aurtengo ekintza guztiak ez dituzte erabat lotu, baina, agerraldian azaldu zuten, www.ztbergara.eus webgunean emango dute ekitaldion berri. Iaz 24 jarduera antolatu zituzten eta 19 erakunderen laguntza izan zuten; tartean, Miguel Altuna Lanbide Heziketa. Izan ere, ikasleak oso aintzat hartu ohi dituzte antolatzaileek jardunaldiok antolatzerakoan. Ikasleek aurten ere zuzenean hartuko dute parte eta bereziki bi ekintza nabarmendu ditu Oihana Garmendiak: "Datorren astean hasiko da *STEAM komunitatea indartuz* proiektua, eta DBH 3. mailako ikasleekin enpresetara gerturatuko gara, besteak beste, estereotipoak kentzeko. Horrez gain, urritik aurrera LHko 5. eta 6. mailetak *scape room*-a ere izango dugu, harrera oso ona izan ohi duena".

Maijoku eta Game Erauntsia

Beste klasiko bat izan ohi da bide-ojoko presentzia. Azaroan helduko da hori, baina aurreratu dute Maijoku elkarteok Game Erauntsia komunitatearekin duten elkarlanaren berri emateko baliatuko dutela euren dako horren berezia den zita.

Auzuak Ala Hil: 200 lagun elkartuko dira bihar Osintxun

Auzoen arteko harremanak sendotzeko asmoz, bueltan dator Auzuak Ala Hil ekimena. Pandemia aurretik Angiozarren eta Uberan elkartu ostean, bihar Osintxun batuko dira, egitarau zabalarekin: Osintxun bisita gidatua eta triki-poteoa (12:30); 200 bat lagun batuko dituen bazkaria (14:00); puzgarriak (15:30); lekuko aldaketa -2023an Elorregin eta San Kristobalen ospatuko da- (17:00); umeendako ipuin kontaketa (17:30), nagusiendako jolasak (17:30), Got elektrotzaranga (19:00), Laket taldearen kontzertua (23:00) eta DJ Arno (02:00). "Osintxuarrak oso motibatuta daude, inoizko jende kopuru handiena batuko dugu", diote antolatzaileek.

50 urte bete dituen Aspacek emango die hasiera Pentekosteei

Aspacek emango die hasiera ekainaren 3tik 7ra arteko Pentekoste jaiei. "Orain dela 50 urte, inklusioa hitzez bakarrik ez, ekintzez egiteko helburuarekin konprometitu sortu zuten Aspace. Hori baita Aspace: konpromisoa", adierazi du Gorka Artola alkateak. Bestalde, Soiar-tze Heras Moreno bergararrak irabazi du kartel lehiaketa.

OHARRAK

Hiru kinto bazkari

1942koak hilaren 21ean elkartuko dira, Zumelagan; izena emateko: ES50 3035 0009 1700 9116 0485 (Laboral Kutxa). 1949koak maiatzaren 22an elkartuko dira, Tartufon; izena emateko: ES19 3035 0009 1300 9116 0463 (Laboral Kutxa). 1952an jaiotakoak maiatzaren 28an elkartuko dira; eskatu dute lehenbailehen emateko izena: ES17 3035 009 1800 9009 8783 (Laboral Kutxa).

Liburua: Carlos Taibo

Angiolillo liburutegiaren eskutik, *Rusia fronte Ucraina. Imperios, pueblos, energia* liburua aurkeztuko du Taibok hilaren 17an, kartzela zaharrean (19:30).



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

'Kafekonpon' egitasmoa San Joxepera itzuli da

Kafe baten bueltan, etxean apurtuta dauden tresna txikiak konpondu eta berrerabiltzea du helburu ekimen honek; bi urtez jarduna etenda egon bada ere, hileko bigarren eguaztenetan izango du hitzordua datozen hilabeteetan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Osasun egoera dela-eta bi urtez geldirik egon da *Kafekonpon* ekimena. Aste honetan, ordea, berriro bueltatu da San Joxepera; zehazki, eguazten arratsaldean. Dozena bat lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan: batzuek etxean hondatuta zituzten tresnak eraman zituzten; beste batzuk, berriz, horiek konpontzeko lanean aritu ziren.

Gorka Artola alkatea ere bertaratu zen aurreneko saio horretara. Haren hitzetan, "bazertertutako tresnak berrerabiltzeko eta berria erosi aurretik konpontzeko saiakera egin beharko litzateke etxe guztietan". Mahaiaren bueltan zirenek ere argi daukate: "Askotan eskulana ez da baloratzen, eta horrelako ekimenekin ikusten da zenbat denbora behar den objektu bat eraberritzeko".

Helburu bat baino gehiago

Pili Arin da antolatzaileetako bat, eta ekimen horrek hainbat helburu dituela adierazi du: "Alde batetik, birziklatu egin nahi dugu eta, era berean, kontsumoari kontra egin nahi diogu". Bestetik, jasagarritasunaren aldeko apustua egiten dute: "Hemen egonda ikusten duzu mugimendu bat dagola. Talde

batek borondatez lan egiten duela, gailuei beste bizitza emateko".

2013a ezkerro martxan

2013an abiatu zen *Kafekonpon* ekimena Bergaran. Iñaki Satorretxe izan zen bultzatzailea: "Aldizkari batean irakurri nuen Europako zenbait herrialdetan *Cafe Repair* izeneko egitasmoa zegoela. Hondatutako tresnak konpontzen zituzten bertan, kafe baten bueltan". Ideia hori inguruko artean zabaltzeko, eta hainbat arlotan trebeak diren pertsonekin osatu zuten taldetxo. Horrela, haiek ere kafe baten bueltan hasi ziren tresnei beste bizitza bat ematen.

Etxean hondatuta dauden eta erabiltzen ez diren tresnak konpontzen dituzte; horrela, beste aukera bat ematen diete gailuei. Hortaz, bazertertutako tresnak dituzten eta haiek konpontzen laguntzeko prest dauden herritarrak batzen ditu ekimenak. Doan egiten dute konponketa eta edozein tresna txiki eraman daiteke. Aste honetan, ileko plantzak, kafe-makina, bozgorailuak, txigorgailuak eta tren elektrikoa konpondu dituzte, besteak beste.

Pili Arinek adierazi duenez, "gizonak nahiz emakumeak, gazteak... denetarik etortzen

da". Gailua konpontzen duten bitartean denak mahai bueltan egoten dira begira edo ikasten. Hala ere, bada lanean hasten denik ere: "Asko esku trebeak dira, eta animatu egiten dira gurekin eurek ekarritako tresnak konpontzen. Batzuetan, gainera, erreminta faltagatik-edo zaila egiten zaigu kon-



Herritarrek emandako tresnak konpondu zituzten. AITOR AGIRIANO

ponketa etxean egitea. Guk hemen era guztietako tresneria daukagu".

Datozen hilabeteetan ere izango du jarraipena ekimen horrek.

Hileko bigarren eguaztenetan elkartuko dira, arratsaldeko lauretan, San Joxepen. Herritarrak gailuak berrerabiltzera animatu ditu boluntario taldeak.

Elvira Otaño

Cafe Bergara tabernako arduraduna

"Azken 25 urteotan erakutsitako babesak eskertu nahi diegu bezeroei; haiek gabe ez ginatke ezer izango"

Maiatzaren 16an, luntxa prestatuko dute, 19:00etatik 21:00etara. Aurrerantzean ere betiko eskaintzarekin segituko dute: gosariak, plater konbinatuak eta kazolatxoak.

1997ko maiatzaren 16an ireki zituen ateak Bidekurutzeta kaleko Cafe Bergara tabernak. "25 urte ez dira oharkabeen pasa. Pentekosteak ziren ireki genuenean, jai giroan eta ilusio handiarekin ekin genion. Atzo izango balitz moduan gogoratzen dut... 1997tik asko aldatu dira jendearen ohiturak; lehen askoz gehiago poteatzen zen, adibidez. Pandemiatik, gainera, askoz afari gutxiago ematen ditugu", dio tabernako arduradun Elvira Otañok. Mende laurdena



Elvira Otaño, Cafe Bergara tabernako barran.

“ Denok zaudete gonbidatuta hilaren 16an egingo dugun 25. urteurreneko luntxera, 19:00etan ”

bete izana eskertu nahi dute eta horregatik luntxa prestatu dute maiatzaren 16rako, 19:00etatik 21:00etara: "Denok zaudete gonbidatuta, bereziki ohiko bezeroak; haiek gabe ez ginatke ezer

izango". Gustura dabil lanean, baina dio ostalaritza "oso gogorra" dela; hala ere, erretiratu arte jarraituko du bertan, tragoz gain askotariko gosariak, plater konbinatuak eta kazolatxoak ematen.

Bergarako Sortuk 'Maiatza feminista' ekimena antolatu du

Eguaztenean eman zitzaion hasiera *Maiatza feminista* ekimenari, Marina Sagastizabalen *Posible al da militantzia eta zaintza uztartzea?* hitzaldiarekin. Gaur, berriz, *Magma mia* izeneko bakarrikzeta egingo du Beatriz Egizabal ipuin-kontalaria eta aktoreak Arrano tabernan, 22:30ean hasita. Bakarrikzeta horretan, patriarkatuaren ertzak

umoretik lantzen ditu lasarteak.

Halaber, datozen bi asteetan jarraipena egongo da. Alde batetik, Leire Moñux bakarlarik kontzertua emango du maiatzaren 20an, Arrano tabernan. Bestetik, maiatzaren 27an, bertso musikatuarekin girotuko dute kartzela zaharra Ane Labakak, Haizea Aranek, Ane Zuazubiskarrek, Aner Euzkitzek, Libe Goenagak eta Jone Igartuak. Ondoren, DJ gaua prestatu dute DJ Txillardegiren eskutik.



CAFE
BERGARA

Bidekurutzeta, 34 • Bergara • Tel.: 943 76 17 41

- kazolatxoak • pinxoak
- plater konbinatuak • bokatak

Eskerrik asko
25 urte hauetan gure
ondoan izateagatik!

LUNTXA
maiatzaren 16an, astelehenean
19:00etatik 21:00etara
Etorri, gonbidatuta zaudete!

Mailari eustea dute helburu azken txanpan

Jaitsiera fasea ari da jokatzen eskubaloiko Bergarako taldea. Zazpitik lau jaitsiko dira mailaz eta sailkapenean hirugarren doaz bergararrak. Azken bi partidu erabakigarri dauzkate aurretik eta biak irabazi behar dituzte dauden mailan mantentzeko

Amaia Txintxurreta Guridi BERGARA Denboraldi irregularra egiten ari da Joseba Elorzak entrenatzen duen Soralue BKE taldea. Hain zuzen ere, jaitsiera fasea jokatzen dabil Gipuzkoako senior lehenengo mailan jokatzen duen Bergarako eskubaloiko taldea, eta azken bi partidu erabakigarri gelditzen zaizkio aurretik.

Jaitsiera fasean zazpi talde daude, horietatik lau jaitsiko dira mailaz, eta bergararrak hirugarren postuan daude, hamahiru punturekin –bigarren doan Ormaiztegi hamalau dauka eta laugarren doan Egia Kostok, hamaika–. Dena den, dauden mailan mantentzeko



Bergarakoek Zumaiaiko Pulpo taldearen aurka jokatutako partiduen une bat. i.s.

esperantza daukate. Hauxe adierazi du eskubaloiko saileko arduradun Josetxo Muniategik: "Bi partidu dauzkagu aurretik eta biak irabazi behar ditugu. Egia da ez direla talde gogorren kontra, baina kirola kirola da; hortaz, ea mailari eustea lortzen dugun".

Aurrekoa, Hondarribian

Aurreko asteburuan, Hondarribiko taldea izan zuten etsai eta 26-27 galdu zuten bergarrek: "Oso partidu ona eta gogorra izan zen. Erasoan kosta egin zitzaigun golak egitea eta ez genuen lortu nahi genuen emaitza. Baina ondo lehiatu ginen".

Azken biak aurretik

Asteburu honetan, Zarautzen jokatuko dute: "Betidanik kalitate handiko taldea izan da Zarauzkoa, eta ez da erraza izango, baina guztia ematera joango gara". Hurrengo Donibaneren kontra jokatuko dute, eta hor bukatuko zaie denboraldia: "Taldea ahulena da ligan –azkena doa sailkapenean–, eta etxean jokatuko dugu; beraz, ea hori ere irabazten dugun".

Nagusietan Labaka eta promesetan Arambarri irabazle

Lau eta erdiko XII. Soralue pilotari txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu da astean Bergarako pilotalekuan, promesen eta nagusien mailan. Promesetan Mikel Arambarri azkoitiarrak Beñat Apezetxea goizuetarrari irabazi zion (22-20). Joko azkarra egin zuten biek, erasora jokatuz. Saketik hamar tanto egin zituen Arambarri eta bost Apezetxea. Bestalde, jokoa, tanto on ugari egon ziren bien partetik.

Nagusien mailan, Uharteko Iker Espinalek ezin izan zuen Albizturgo Eneko Labaka garaitu (12-22). Lehenengo erdian Espinal hobeto ibili zen, hark jarri baitzuen erritmoa, baina erditik aurrera Labaka izan zen jauna eta jabe. Sakearekin min egin zion eta erremateetan ere oso fin ibili zen; bigarren zatian tanto asko bukatu zituen. Bigarren zatian, baina, Labakak eraman zuen erritmoa eta ezin izan zuen Soraluezko txapelketako azken txapelkunak martitzenean jokatutako partidua aurrera atera.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS
ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAJNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45



Bergarako eta Baionako margolariak Kortsarioak galeria atarian. BAIONAKO KORTSARIOAK

Lapurdiko artelanak egunotan Bergaran

Baiona Ttipiaren erdigunean dagoen Kortsarioen Arte Galeriako artisten lanak izango dira ikusgai Laboratorium museoan, ekainaren 8ra arte. Zazpi sortzailereren lanekin osatu dute bilduma; gaur da egitekoa aurkezpen ekitaldia

Larraitx Zeberio Lekuona BERGARA
Ez da berria Bergarako Beart elkartearen eta Baionako Kortsarioen Arte Galeriaren arteko lotura. Trukeak egin ohi dituzte eta behin baino gehiagotan izan dira Bergarako ar-

telanak Baionan ikusgai, eta alderantziz.
Oraingo honetan, Errobi eta Aturri ibaien ertzeko sortzaileen lanak izango dira ikusgai Bergaran. Zazpi sortzailereren lane-kin osatuta dago Laboratorium

museoan gaur inauguratuko duten erakusketa. Artista horiek dira Andre Goupille, Eric Bourdon, Claude Jammaerts, Alain Jouve, Mica, Julia Ratsimandresy eta Patrick Dupre *PAT*. "Pandemia garaian egindako

lanak erakutsiko dizkigute Bergaran", azaldu du Bearteko presidente Karlos Galarragak. "Ikusten duguna eta esperimintatzen duguna adierazteko aukera ematen digun babeslekua da artea (...) Baiona-Bergara, Bergara-Baiona, joan-etorriko bidaia da, baina askoz urrutia-go doa; askatasun emozional, psikologiko eta espiritualerako bidaian parte hartzen dugu artearekin. Goza dezagun Baionako Kortsarioek hain maitasun handiz prestatu duten erakusketa honetaz".

Galerie des Corsaires artista-kolektiboko presidente Andre Goupilleren esanetan, oso pozik daude lanak leku berri batean ikusgai jartzeaz.

Ordutegia eta sarrerak

Erakusketa zabalik egongo da ekainaren 8ra arte eguazten eta eguenetan 10:00etatik 14:00etara, bariku eta zapatuetan 10:00-14:00 eta 16:00-19:00 ordutegiarekin eta domeketan 10:00etatik 13:00etara. Sarrera arrunta 4 eurokoa da, murriztua 2 eurokoa eta taldeen kasuan, 2,5 euro pertsonako

'Bidaide' antzezlanaren Seminarixoa zapatuan, 20:00etan

Herrietako erraldoien irudite-riatik abiatuta, handia eta txikia izatearen arteko aldeaz, herrietako kulturgileen ikusezintasun hautazkoaz edo ez-hautazkoaz eta kultura bizitzeko moduez dihardu *Bidaide* antzezlanak. *Geuretik sortuak* ekimenaren baitan sortu dute Metrokoadroka Sormen Laborategiko kideek. Sarrera 8 euro da.

Gaur, 'Koloretako munstroa', Musika Eskolako eskutik

Anna Llenasen *Koloretako munstroa* taularatuko dute Bergarako Musika Eskolako musika eta mugimendu tailerreko 5-6 urte bitarteko ikasleek. Emanaldia 18:00etan hasiko da, Seminarioan, Eli Mendiaren eta Cristina Larrañagaren zuzendaritzapean. Gitarrako ikasleek ere hartuko dute parte. Emozioak lantzea da proiektu horren helburua.

URBIETA | Barne diseinua



Etxeari aldaketa eman nahian?

Zatoz gurera!

Etxeko gela bat zein etxe osoa eraberritzea, gremioen koordinazio eta guzti!

Utzi dena gure esku!



Erakusleiho zabala, sukaldeak, komunak, egongelak, logelak, sarrerak... Etxea janzteko osagarri guztiekin! Aholkularitza eta aurrekontuak neurrira, 3D irudiekin.

Aranzadi: mende erdia herriarekin ospatu nahi dute, aurrera jarraitzeko

Aranzadi ikastolak asteen aurkeztu ditu 50. urteurreneko ospakizunak, eta lehen ekintza da gaur bertan Aroztegin irekiko duten erakusketa. Maiatzaren 28an izango da urteurreneko festa nagusia, egun osoko egitarauarekin; herri osoa gonbidatu dute jaira



50. urteurreneko ospakizunak iragartzeko agerraldia, eguaztenean. J. BEREZIARTUA

Jokin Bereziartua BERGARA

2021eko ekainean bete zituen Aranzadi ikastolak 50 urte, eta, pandemiak eragindako atzerapenaren ostean, "indarberrituta, gogotsu eta ilusio biziz" dago ikastolako komunitatea urteurrena ospatzeko. Bergarako ikastola gaur egunera nola heldu den ulertzeko, baina, atzera begiratu beharra dago; horretarako, 50 urteotan ikastolako zuzendari izan diren Fernando Etxeberria, Inazio Arregi, Patricia Urrutia eta Ane Barruso elkarrizketatu ditu GOIENAK, eta baita gaur egungo zuzendari Agurtzane Loidi ere.

Hasiera, domingotarrei helduta

Gaur egun Iruñean bizi den Fernando Etxeberria izan zen lehen zuzendaria. Domingotarra zen, eta domingotarrek erabateko

garrantzia izan zuten ikastolaren sorreran. Seminarioan irakaskuntza jardunean ziharduten, eta ikastola martxan jarri nahi zuten gurasoen aurrean jarrera ona erakutsi zuten hasieratik. Ikastolako lokalak Seminarioan kokatzearen truke eskaera batzuk egin zizkieten gurasoei; tartean, ikastolako zuzendaria Seminarioko erretore Fernando Etxeberria izatea, hilero 2.000 pezetako errenta ordaintzea eta erlijio eskolak domingotar batek ematea. Hala ere, onarpen juridikoa lortzeak lan asko eman zuen, garai hartan ez zelako erraza baimen ofizialak lortzea. Etxeberriak "sekulako borroka" gogoratzen du: "Domingotarrok Seminarioa irakaskuntzara bideratzen genuenez, Gobernuak ezin gintuen handik bota. Hori bai, ikastolakoei esanda nien eskolak behin egon-

kortu ostean Gobernuak ez zituztela botako eta nik zuzendari izateari utziko niola. Eta hala egin nuen". Etxeberriak aitortu du oraindik ere bihotzean daroala 1975eko uztailaren 10ean legalizatu zuten ikastola: "Eta Bergara, oro har. Urte asko egin nituen han".

1980-1999: hainbat mugarri

Aranzadi ikastolako zuzendari gisa urte gehien egin dituen Inazio Arregi izan da, ia bi hamarkada oso egin zituen eta. 1981eko maiatzeko batzar orokorrean, elkarte izatetik kooperatiba izatera pasatzeko jauzia eman zuen Aranzadik; Arregik gogoratzen duenez, irakasle batzuek ez zuten garbi ikusi izaera juridikoaren aldaketa hura, baina aurrera egin zen kooperatiba moduan. "Beste inflexio puntu

bat" izan zen 1991-1992ko ikasurtean baimenik gabe ere batxilergoa ematea erabaki izana: "14 urtera arte eskaintza motz gertatzen zela ulertuta baimena eskatu genuen Delegazioan, batxilergoa emateko, baina, baldintza guztiak betetzen genituen arren, ukatu egin ziguten. Modu alegalean batxilergoa ematen hasi ginen, ikasleak Donostiako Santo Tomas Lizetean matrikulatuta; Fernando Buesa Hezkuntza sailburu zela, gogoan dut ikuskatzailer bat etorri zela eta pasilloetan elkartu ginela. Ikuskatzaileak bazekien non zeuden gelak, baimen eskaerarekin batera horren berri ere eman genielako, eta esan zidan gelak ikusi nahi zituela. Esan nion ezetz, hor atzean ez zegoela ezer eta ez zela hortik pasatuko. Esan zidan pasatzen utzi ez niola zioen dokumentu

bat sinatzeko, eta nik sinatu egin nuen; bakoitzak bere rola jokatu zuen orduan, eta kito. Gerora ez zen ezer pasatu, hor gertatu zen kontua". Sasoi haiek "oso gogorak" izan ziren, Arregiren arabera: "Zatiketa itzela zegoen arlo guztietan eta tentsio handiko garaiak izan ziren. Jarrerak oso polarizatuak zeuden; gaur egungo prismatik ikusita pentsaezina dirudi, eredu ezberdinek modu oso naturalean egiten dute bat herri batean. Baina garai haietan oso bestelakoa zen egoera...".

Jende gutxi gogoratuko duen gertaera bat ere ekarri du gogora Arregik: "Akta-liburuak oso ondo gordetzen genituen, eta ez dakit ze urtetan Gipuzkoako Federazioak Aranzadiren historia jasotzen zuen dokumentazio guztia eskatu zigun. Gipuzkoako ikastola guztien

Bost zuzendari, hamaika erronka



FERNANDO ETXEBERRIA LEHEN ZUZENDARIA, 1971TIK 1974RA

"Sekulako borroka gogoratzen dut orduko Gobernuarekin, ez zuten ikastola onartu nahi. Guraso elkarerik ere ez zuten nahi, Serafin Esnaola apaiza ere tartean zegoelako. Uste zuten Esnaola ikasleetako baten aita zela; esan nien Serafin Esnaola, izatekotan, ikastolako aita espirituala izango zela [Barreak]".



INAZIO ARREGI ZUZENDARIA 1980TIK 1999RA

"1981era arte ikastola elkarte bat zen; izaera juridiko ahula zen hori, eta erabaki genuen kooperatiba bat sortzea. Beste data garrantzitsu bat izan zen 1991-1992ko ikasurtea, baimenik gabe eta egoera alegalean batxilergoa ematen hasi ginenean. Oso garai zailak izan ziren, jarrerak oso polarizatuta zeuden".



PATRICIA URRUTIA ZUZENDARIA 1999TIK 2008RA

"Trantsizio fase estrategikoa izan zen. Jarduera egonkortzeko eta modernizatzeko premia handia genuen eta hainbat eragile batu ginen horretarako. Historikoa izan zen Udalarekin hitzarmena Seminarioa erabiltzeko, eta XXI. mendeko erronkei ere heldu genien. 2007ko Kilometroetan batu genuen indarra itzela izan zen".



ANE BARRUSO ZUZENDARIA 2008TIK 2018RA

"Ekonomia saneatzeaz gain, eraldaketa pedagogikoa izan zen gure erronka nagusia. Ikasleak ahalmenak garatzeko baliabideak eskainiko zituen pedagogia eredu bat garatu nahi genuen, ikaslea izatea protagonista. Eredu hura martxan jartzeak lan handia ekarri zuen, baina baita ilusio handia ere".



AGURTZANE LOIDI ZUZENDARIA 2018TIK GAUR EGUNERA ARTE

"Hezkuntza proiektua berritzeko lanean ari ginela pandemiak harrapatu gintuen bete-betean; bi ikasturtetan ziurgabetasunean lan egin behar izan dugu, beste era batera lan egiten ikasi. Aurrera begira bi erronka ditugu: hezkuntza proiektu berria sozializatzea eta komunitatea ehuntzen jarraitzea".



LHko hirugarren mailako ikasle guztiak, 1991ko otsailaren 18an; 1991n ospatu ziren lehen Kilometroak Bergaran. ARANZADI

historia jaso nahi zuten eta esan genien gurera etortzeko eta erakutsiko geniola nahi zuten guztia. Baina behin eta berriz eskatu ziguten dokumentazioa pasatzeko eta akta-liburu batzuk pasatu genizkien; akats handi bat izan zen, Martutenen zituzten lokal batzuetara eraman zituztelako eta ur handi batzuetan gure akta-liburu horiek betirako galdu zirelako. Ez dakit esaten zenbaterainoko garrantzia duten liburu horiek, baina ikastolaren historiaren zati bat ur handi haietan galdu ziren betirako".

1999-2008: eraikina lortu dute

1999tik 2008ra zuzendari izan zen Patricia Urrutiak "lorpen historiko" bat gogoratzen du: "Udalarekin Seminarioa erabiltzeko akordioa lortu genuen; horri eta dirulaguntza batzuei esker azpiegitura mailan obra garrantzitsu batzuk egin genituen gure eskaintza pedagogikoa zentralizatzeko. Obren artean aipatzekoa da, adibidez, behar gorria zuen fatxada margotu genuela". Pedagogia eta zerbitzu osagarriei dagokienez, XXI. mendeko erronkei heldu zieten dio Urrutiak: "Zaintza zerbitzua eskaintzen hasi ginen ordutegi zabalagoarekin, haurtzaindegi zerbitzuarekin hasi ginen, eleaniztasuna proiektuaren barruan ingelesaren irakaskuntza goiztiarrarekin hasi ginen, teknologia berriei begira informatika parkea handitu eta berritu genuen...". Zuzendari moduan egin zuen azken txanpan heldu zen 2007ko Kilometroen jaia, *Argi daukagu* leloarekin: "Azpiegiturak berritzeko horrenbeste lan eta borroka egin ostean, ikaragarria eta hunkigarria izan zen ikus-



Batxilergoko lehen promozioiko ikasleak Pirinioetan, 1994ko uztailaren. ARANZADI

tea kolektiboa nola batu zen; egunean bertan eguraldi zoragarria izan genuen eta ezin hobeto irten zen dena". Zuzendari egin zituen urteak "gogorrak eta borroka askokoak" izan arren, "oso esperientzia aberasgarria" izan zela dio Urrutiak.

2008-2018: pedagogia berria

Ane Barrusok hartu zion lekuak Patricia Urrutiari, eta eraldaketa pedagogikoa du gogoan: "Pedagogia berritzaile bat jarri genuen martxan, ikaslea protagonista eta irakaslea laguntzailea izango zena. Irakasleei esfortzu handia ekarri zien, eredu berri batean jantzi behar izan zutelako eta ia dena berria zelako. Baina ilusioa ere sortu zuen komunitate osoan; urte politak izan ziren". *Demasa* lelopean 2016ko Kilometroak antolatu zuen Aranzadik Barruso zuzendari zela; hain zuzen ere, eraldaketa pedagogiko hartarako "ezinbestekoa" zen instalazioak berritzera bideratu ziren etekin ekonomikoak.

2018-gaur egun: COVID-19a

2018a ezker Agurtzane Loidi da ikastolako zuzendaria. Pandemia da, zalantzarik gabe, Loidiren lehen urteak erabat baldintzatu dituen aldagaia: "Hezkuntza proiektua berritzeko lanean ari ginela harrapatu gintuen pandemiak. Egoera berrira eta ezezagunera oso azkar egokitu behar izan dugu eta egiteko moduak erabat aldatu behar izan ditugu; teknologia aldetik gauza asko ikasi behar izan ditugu bat-batean". COVID-19ak eragindako egoera gainditzeko ari garen honetan, aurrera begira jarri da Loidi: "Bi erronka nagusi zehaztu ditugu: batetik, 2019-2020ko ikasturtean birdiseinatutako hezkuntza proiektu berria sozializatu nahi dugu; eta, bestetik, komunitatea ehuntzen jarraitu nahi dugu ikastolaren proiektua sendotzeko".

Urteurreneko ospakizunekin komunitatea ehuntzen jarraitu nahi dute, eta baita Bergarako herriari "emandako guztiaren zati bat" itzuli ere.



Hirugarren solairua, obra aurretik; 2018ko uztailaren amaieran ziren lanak. ARANZADI

50. urteurrena ospatzeko ekintzak

Erakusketa Aroztegin, maiatzaren 13tik ekainaren 5era

- Inaugurazioa gaur izango da, 19:00etan. Poesia, zuzeneko musika, aureskua eta lore-eskaintza egongo dira.

Maiatzaren 28ko festarako ekintzak

- **10:30** Txistularien diana.
- **10:30etik 15:00etara** Artisauen eta sortzaileen azoka Eixu elkartearen eskutik, Irizar kalean.
- **11:00etatik 13:00etara** Umeendako jolas parkea, Usondon.
- **12:00** Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia, Muniben.
- **13:00** *Flash-mob*-a, Olaso dorrearen aurrean.
- **13:30** Trikitilarien kalejira, Bergarako Musika Eskolaren eskutik.
- **14:00** Herri bazkaria, San Martin plazan. Bazkalostean bingo girotua eta *photocall*-a egongo dira.
- **17:30** Musika maratona, Munibe plazan.
- **17:30** Erraldioen eta kilikien kalejira.
- **18:30** Ikastolako txaranga.
- **19:30** Mugi panderoa taldearen kontzertua, San Martin plazan.
- **22:15** Gozategi taldearen kontzertua, San Martin plazan.
- **Jarraian** Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuen taldearen kontzertua, San Martin plazan.

Herri bazkarirako txartelak erosteko egunak: maiatzaren 14an, Irala kalean –12:00etatik 14:00etara–; maiatzaren 17an, Seminarioko patioan –17:00etatik 18:00etara–; eta, maiatzaren 19an, Iralan –18:00etatik 20:00etara–. 486 txartel salduko dira, eguraldi txarrekin bazkaria udal pilotalekuan egingo delako. Pertsona bakoitzak zortzi sarrera erosi ahaliko ditu, gehienez.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
 aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
 KALITATEA
 Empresa Registrada V190/025



Iazko azokan gaztetxoendako postuak ere egon ziren. GOIENA

28 postuk jantziko dute San Isidroko azoka

Herri kirolak, bertsoak, sasoiko produktuak, jateko eta edateko postuak, artisauak eta herriko ganaduzaleen ganadua bertatik bertara ikusteko aukera izango da bihar. Bi urte gorabeheratsuren ostean, aurten indartuta dator baserriarren azoka handia

Maidar Arregi ANTZUOLA

Iaz ere ezohiko sanisidroak izan ostean, aurten guztiz indartuta dator baserriarren festa eguna. Guztira, 28 postuk jantziko dute herriko erdigunea, Herriko Plaza eta Kalebarrengo kalea bihar. Tartean, Antzuolako ekoizleak eta nekazariak ez ezik, herriko ganaduzaleen ganaduak ere izango dira ikusgai 09:30etik 13:00etara bitartean. 11:30ean, aldiz, umeentzako egurrezko jolasak egongo dira, eta eguerdiko hamabietan kalejira izango da txistulariekin eta trikitilariekin.

Zurrategi plazan, berriaz, 12:30ean, euskal pentatloi saioa egingo dute Karmele Gisasolak,

Lucia Orbek, Xabier Zalduak eta Araitx Mugerzak.

Udalak, gainera, salda eta txorizoa banatuko ditu Trekutzen, eta 14:30ean, 150 lagun ingururendako herri bazkaria egingo da eskolako patioan. Bazkalostea Udazken taldeak alaituko du.

San Isidro festa Imuntzo eta Belokiren erromeriarekin borbilduko da: 19:00etatik 21:00etara eta 22:00etatik gauerdia arte.

Bertso saioa

Ospakizune hasiera, aldiz, gaurko Torresoroako bertso saioak emango die, 22:00etan. Hurrenez hurren, Maialen Akizu urretuarrak, Urko Arregi oñatiarrak, Aitor Sarriegi beasainda-

rrak, Nerea Elustondo legazpiarrak eta Andoni Egaña zaraustarrak jardungo dute. Jon Matak gai-jartzaile lanak egingo ditu. 150 lagunendako sarrerak jarri dituzte salgai, 8 eurotan.

Elkartasun postuak

Ez dut moztuko bizarra taldeak zero kilometroko hanburgesak egingo ditu, eta Anelkarrek Bidezko Merkataritza postua jarriko du. Ndank Ndank elkarteak ere gonbidatu dute Senegalgo produktuak –arropa eta osagarri koloretsuak– salgai jar ditzaten. Bestetik, Gure Eskuk *Pirinioetako bidea* ekimenaren inguruko informazio eta izen-emate postua jarriko du.



Parte-hartzaileak, amaieran ateratako talde argazkian. OLALDE

Goi mailako partiduko nagusi herriko pilota txapelketan

Final estu eta lehiatua jokatu, Manex Balerdi pilotariak jantzi du txapela herriko Atzeko Txapelketan

M.A. ANTZUOLA

Herritar ugari joan zen egubakoitzean eta zapatuan jokatu-tako pilota partiduko ikustera. Giro ezin hobean, helduek eta gaztetxoek txapelketa bikainaz gozatu zuten. Eta, nola ez, finalera herriko bi pilotari ikur iritsi ziren txapelketari amaiera borobila emanaz: Aitor Mendizabal eta Manex Balerdi.

"Balorazio oso positiboa egi-ten dugu. Egubakoitz arratsaldean hasi eta zapatu osoan jende asko ibili da frontoian –pilotari zein ikusle–, kontatu du Olaldeko Pedro Iturbe kideak.

Nabarmendu du txapelketan zehar oso partidu politak jokatu zirela. "Eskerrak eman nahi dizkiegu txapelketan parte hartu duten pilotari guztiei. Baita frontoira etorri diren herritarrei ere. Eta azkenik, prestaketa lanetan laguntasuna eman diguten AKERI eta Antzuolako Udalarai".

Finala lehiatua eta oso estua izan zen. Lehen jokoa Balerdik irabazi zuen eta bigarrena, berriaz, Mendizabalek –zortzira ziren–. Hirugarrena eta azkena –laura zena– 4-3 Balerdik irabazi zuen.

GORA ETA BEHERA



Eztalako muralean pintaketak egin dituzte

Margotu berri duten Eztalako muralean hainbat pintaketa egin dituzte. Baita aldagela berrituaren hormetan ere. AKEk pintaketa horiek salatu ditu eta "lotsagarriak eta penagarriak" direla esan du. Era berean, errespetuz jokatzeko dei egin du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Kukumarro lehiaketa

Pandemiak pandemia, aurten, nola ez, urteroko lehiaketa esanguratsuen den kukumarro lehiaketak ez du hutsik egingo. Parte hartzaileek jada gertu dituzte euren lanak eta azokaren giroaren bueltan ikusgai jarriko dituzte bihar. Goizeko hamaiketan, baina, udaletxeko osoko bilkura aretoan kukumarro onenei saria banatuko diete.



Iaz, kukumarroek ere maskara jantzi behar izan zuten. GOIENA

Komikia, Mairuaren Alardea gizarteratzeko

Azkenengoz 2019an ospatu bazen ere Mairuaren Alardea, elkarteak sozializazio lanean jarraitzen du Alardearen komunitateari balioa ematen dioten ekintzen bitartez. Hala, Xabier Sagasta ilustratzailearekin elkarlanean komiki bat gertatzen hasiak dira

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bi urteren ostean, Mairuaren Alardea uztailaren 16an egingo dela iragarri berri du Alardearen Elkarteak. Bien bitartean, hainbat ekintza ere garatu dituzte: "Nahiz eta 2019. urtean ospatu azken Alardea, elkartetik saiatu gara herrian Alardearen oroimena bizirik mantentzen; horretarako, 2020an eta 2021ean Alarde egunerako bideotxoak kaleratzeaz gain, Herriko Plazan kanoiak sutu genituen, keinu gisa. Lourdes Odriozolak, berriz, ikerketa historikoa jasotzen duen lana egin du, eta aurkeztu ere egin dugu Udalarekin batera. Gainera, Alardearen komunitate eta kultura balioa irudikatzen duen horma-irudia egin dugu elkarlanean".

Alardearen sozializazioa

Alardearen gizarteratze prozesuan, baina, beste urrats bat egin du elkarteak, eta Xabier Sagasta ilustratzaile antzuolarrarekin komikia egiten hasiak direla aurreratu dute. Hala, urte hasieratik dihardute komikiak zein hizkuntza izango duen eta grafikoki zein forma edukiko duen adosten. "Nahiak eta desirak zeintzuk diren erabakitzen gabilta orain, eta horren arabera komikiari forma emango diogu. Elkarteak helburuak baditu finkatuta, eta komikiaren forma eta luzera definitzen gabilta, alegia", dio Sagastak. Ezohikoa eta grafikoki interesgarria izango dela dio. "Alardeak errealitate konplexua du, eta, horren baitan, hiru ataletan banatuta gai ezberdinak identifikatu ditugu".

Modu horretan, publikazio bakar batean hiru hizkuntza grafiko ezberdin izango duten hiru bloke jasoko ditu komikiak. Batetik, historia eta mitoa jasotzen ditu. Hau da, Alardearen historia denboran zehar, tradizio-mitoz jantzitakoa, nola bila-



Komikiaren atal batek eramango duen azala. XABIER SAGASTA

BI URTEREN OSTEAN, MAIRUAREN ALARDEA UZTAILAREN 14AN EGINGO DELA JAKINARAZI DUTE

kutzen den azalduko du. "Hor nahasten dira istorioa, gertatu zirenak eta mitoa. Alardearen sustraiak, hain zuzen ere".

Bestetik, Antzuolako egunerokotasuna jasotzen du. Nola prestatzen den Alardea edota Alardearekiko interesa dutenek nahiz interesik ez dutenek nolako elkarriketak dituzten, adibidez. "Hedapenean eta transmisioan eragitea ez ezik, narrazio interesgarri bat bilatzea ere bada helburua. Edonork irakurri dezakeen zerbait sortu nahi dugu, eta eztabaidarako tresna izatea. Pentsamolde ezberdinen arteko harremanetan du oinarria atal honek; zehazki, pertsona bakoitzaren ikuspuntutik Alardea nola ulertzen den eta Alardeaz zer espero duen".

Hirugarrenik, eta azkenik, Alardea gaur egun nola antzeztzen den eta zein forma duen

adieraziko da komikiaren bitartez. "Nola gauzatzen den Alardea, zein eszenografia duen, daramatzaten koloreak eta jantziak... Alardearen gaur egungo interpretazioa eta herrian hartzen duen presentzia kontatzea da asmoa. "Komikiaren konposizio ezberdinen bitartez, janzkeraren detaileak eta herriarren ikuspegi orokorra jasoko dira, besteak beste. Diseinura bideratuagoa egongo da azken atal hau".

Parte hartzeko deia

Aurten Alardea ospatzeko osasun baldintzak hobeagoak badira ere, elkarteak sumatzen du pandemiak eragina izan duela herriarren ohituran eta gogoan. "Orain arte Alardean parte hartu dutenak bereziki animatu nahi ditugu, eta, nola ez, herriar berriak ere bai. Garrantzizkoa da auzolana eta bizitza komunitarioa berreskuratzea eta antzuolar guztien ondarea den Alardea indartzea". Horretarako, izena eman daiteke udallexean, info@antzuolakoalardea.eus helbidera mezua bidalita edo Alardeko kideren bati jakinarazita.

Herriko atletismoaren historia gertutik Garitanoren eskutik

Maiatzaren 22an, domeka, Jose Inazio Garitanok ezarritako errekorra gainditzeko lasterketa egingo da

M.A. ANTZUOLA

Pandemiak bi urte luzez atzeratu bazuen ere, azkenik, *Antzuolako atletismoaren historia* izeneko aurkezpena egin egingo du Jose Inazio Garitanok maiatzaren 21ean, zapatua. Atletismoa ez ezik, saskibaloiaz ere jardungo du, eta gertatzen ibili den testigantza-blogak argia ikusiko du.

Ondoren, atletismoaren ibilbidea jasotzen duen argazki eta material erakusketa izango dute herriarrek ikusgai Olanaren berrituan bi asteburutan: maiatzaren 21ean eta 22an eta maiatzaren 28an eta 29an. Maiatzaren 22an, domeka, berriz, Garitanok Gorlako Igoeran jarritako duen errekorra gainditzeko saiatzeko lasterketa egingo da. Izan ere, 1955ean, 34 minutu eta 46 segundo behar izan zituen atleta antzuolarrak Antzuolako plazatik abiatuta Gorlara bidea igo eta jaisteko. Hala, marka ontzeko desafioan parte hartzeko dei egin dute. 2018ko ekainaren 2an, bi minutu eta 17 segundora geratu zen, esaterako, Aimar Larrea.

Odol ematea izango da hilaren 17an Torresoroa aretoan

Odola emateko aukera –urteko bigarren saioa– izango dute antzuolarrek Torresoroa aretoan hilaren 17an, martitzena. Horretarako, egunean bertan, goizean deitu eta hitzordua eskatu beharko dute herriko odol-emaleek, 943 00 78 84 telefonora deituta. 16:30etik 20:10era bitartean izango dute emailleek odola emateko aukera.

Liderrari irabazita mailari eusteko aukerak ditu AKEk

Bihar Dumboa Eguzki taldearen aurka Irunen jokatu duen azken jardunaldia irabaziz gero, promozio kanporaketa partiduak sailhestuko ditu Antzuolako lehen taldeak. Berdinduz gero, aldiz, aurkari zuzenen emaitzen menpe geratuko da. AKErekin batera, azken jardunaldian jaisteko arriskuan Getariako eta Gure Txokoa taldeak ere badaude.



ARROLA

Hesiak eta itxiturak jarri dituzte

Arrolakoek zuhaitzak landatutako lur eremuko hesiak eta Irikortako iturriaren itxiturak jartzen bukatu dute. Udalaren eta Arrolaren arteko elkarlana izan da, eta gustura geratu dira egindako auzolanarekin. Izan ere, 50. urteurrenaren baitan, zuhaitz landaketa egin zuten, eta landatutako zuhaitzak babesteko hesiak jarri dituzte han bertan.

Arantzeta da hedapen handieneko familia izena

Elgetako antzinako gizartearen sustraietara hurbiltzeko saiakera da Manolo Cainzosen 'Elgetako sustraiak' liburua. Eskura duen dokumentaziotik abiatuta idatzi du. Euskarri digitalean dago eskuragarri, doan, udal webgunearen 'Historia' estekan

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako artxibategian gordeta-ko Erdi Aroko 96 dokumentu heldu dira gaur egun arte; 1181 eta 1550 urteen artean idatzita-koak, hain zuzen. Auto sakramentatuen digitalizazioan egindako lanari gehituta material ezin interesgarriagoa aurkitu du bertan Manolo Cainzosek *Elgetako sustraiak* liburua idazteko. Aurretik kaleratutako *Elgeta lehen eta orain* eta *Elgetarrak historian* liburuak osatzera dator lan berria. "Liburu batek ekarri du hurrengoa. Lehenengoa idatzi nuenean konturatu nintzen bazegoela nahikoa materiala Elgetak emandako pertsonaia garrantzitsuen gaineko argitalpena egiteko, eta bigarren horrek ekarri du, besteak beste, Elgetako sustrai demografikoak, sozialak zein produktiboak jasotzen dituen hirugarren hau", azaldu du Cainzosek.

Elgetako sustraiak liburuan, gainera, ahaidetasunezko sustraiak ere aztertu ditu, eta 300 urteko historian esanguratsuenak izan diren leinu edo familia izenen behaketa egin du. "Arantzeta da mendeetan zehar Elgetan ibilbide luzeena eta zabale- na izan duen familia izena. Arantzeta auzoari lotuta dago,



Manolo Cainzos, Elgetako udal artxiboan, Erdi Aroko dokumentuekin. L.Z.L.

zalantzarik gabe. Nahiko garbi ikusten da hori dokumentuetan", azpimarratu du egileak.

Hedapen handiko abizenak

Hala, Elgetan hedapen maila handienekoak izan diren abizenen zerrenda egin du, eta ba-koitzaren inguruko zertzelada batzuk ematen ditu liburuan. "Istorio interesgarriak daude askoren atzean eta gehien-gehienek inguruko baserriren batean dute jatorria". Markiegitarrak, esaterako, eskribauak izan zirela ikusi du artxiboetan: "Be-

launaldi bat baino gehiago izan ziren Elgetako eskribauak".

Olañeta abizenak, berriz, lotura dauka XVIII. mendean Peru inguruan izandako gertaerekin. "Elgetako bost kidek emigratu zuten Ameriketara, eta haietako batazienda handi baten jabe egin zen, besteak beste, indigenen esplotazioaren bitartez", esan du Cainzosek. Askapen mugimendua sortu zenean, Espainiako erregearen armadan eman zuen izena, eta jeneral izatera heldu zen. Peruko erregeorde ere izendatu zuen erre-

geak, baina gerran hil zen, karguaren berri jakin aurretik".

Bilakaera produktiboa

Cainzosek garrantzi handia ematen dio sustrai produktiboen inguruan egindako lanari. Beste herri askotan bezala, iraupe- neko nekazaritza egiten zen Elgetan Erdi Aro hasieran, eta poliki-poliki baserriak sortzen eta nekazaritza zein abeltzaintza garatuz joan ziren. Gariaren eta artoaren laborantza garrantzitsua izan zen. Baita ere arbiarena eta patatarena.



L.Z.L.

"Ipuin bat prestatzen ari gara orain"

MANOLO CAINZOS

EGILEA

Elgetaren historia ipuin formatuan kaleratzeko lanean dihardute orain hainbat lagunek herrian. Erronka guztiz berria da Cainzosendako, baina ez dihardu bakarrik.

Nolatan proiektua?

Idea beti egon da hor, baina nik ez dakit ipuinak idazten. Azkenean, lagun askoren laguntzarekin jarri gara horretan ere, eta ipuina idatzita dago. Izar Irazabal ari da ilustrazioak egiten. Prest dagoenean kaleratuko dugu; ez dugu presarik.

Nortzuk dira ipuinaren protagonistak?

Protagonista 10 urteko neskatila bat da, Haize izenekoa. Eskolan Elgetaren historiari buruzko lan bat egiteko eskatu diote, eta halako batean aurkitzen du nork kontatu. Hain zuzen ere, horrela abiatzen da ipuina.

Egun-pasa dotorea


Xalbadorpe elkarteak antolatuta, egun osoko irteera egin zuten eguaztenean hainbat elgetarrek. 40 lagunetik gorako taldea elkartu zen, eta Ordiziako azokan egin zuten eguneko lehenengo geldialdia. Bazkaltzeko ordua heldu zen gero, eta Aginaga sagardotegian indarberritu ziren. Hain zuzen ere, sagardotegi aurrean ateratakoa da argazkia.



JOSE ANTONIO OJANGUREN

Urubi kumea elizpean

Hontzen familiako gainerako hegaztiak bezala, jaiotako txitak hazteko prozesuan dira urubiak ere. Asteon, neska-mutiko ugariren atentzioa erakarri du elizpean agertutako urubi kume horrek. Gaueko harraparia da urubia, eta animalia ikusgaitza gehien-gehienetan. Egun argiz eta erdi-lo ikusi dute, ordea, Elgetan. Argazkia ateratzeko aukera ere izan zuten.



LILI ARANTZABAL

Lehen saria Ordiziako garagardo azokan

Elgetako Baobeer garagardo markak Euskal Herriko VI. Artisau Garagardo Azokako lehiaketa irabazi du. Aste bukaeran jokatu zen sariketa, Ordizian, eta, hain zuzen, Tafarik Ddh Double Ipa izeneko edariarekin jantzi dute txapela

Hasier Larrea / L.Z.L. ELGETA

Ez da Maite Barrainkuak eta Mikel Irazabalek Ordiziako txapela jantzen duten lehenengo aldia. 2019an ere lehenengo saria eskuratu zuten. Orduko hartan, IPA arrunt bat aurkeztu zuten sariketara, eta oraingoan, IPA bikoitza. "Ohiko IPA baino intentsuagoa izaten da zaporez, eta gehiago betetzen du aho-zapaia", esan du Barrainkuak.

Elgetako Karraju dendan Baobeer markakoak eta garagardogile artisau gehiagoren edariak dauzkate salgai. Abendu hasieran zabaldu zuten saltokia, eta orain arte eskuratutako garaikurrak ere bistan dituzte. Esan gabe doa sariketak irabazteak beti zabalitzen dituela ate gehiago. "Azokan bertan garagardo irabazlea dastatu nahi izaten du mundu guztiak, eta horregatik bakarrik oso ondo egoten da", azaldu du Barrainkuak.

Kalitatearen aldeko apustua

Garagardogile nomadak dira, produktua beste fabrika batzuen instalazioetan garatzen dutelako. Langraizko Bira fabrikari egiten dituzte edariak, eta orain arte gehienbat kanpoan saltzen zuten arren, hasi dira Gipuzkoako saltokietan ere banatzen. Marka komertzialen aldean, kalitatea-



Irazabal-Barrainkuatarrak saritutako garagardoarekin eta garaikurrekin. H. LARREA

HALAKO SARIKETAK BULTZADA DIRA TOKIKO GARAGARDO EKOIZLEEN JARDUNARENDAKO

ren aldeko apustua egin dute hasieratik, eta ez bakarrik zaporean, baita diseinuan ere. "Garagardo berri bat ateratzen dugun unean beti izaten da kontzeptu global baten zatia: garagardoaren izena, etiketaren

diseinua, zaporea... lotuta joaten dira markaren jatorriarekin eta gure bizipenekin", adierazi du Irazabalek.

Ordiziako moduko hitzorduek bultzada ematen diote tokiko garagardo ekoizleen jardunari. Ez da beti erraza izaten espazio berrietara heltzea, baina poliki-poliki egindako lanak emaitzak ematen ditu.

Debagoienean ere horrelako ekitaldiak sustatzearen alde agertu dira Baobeer-ekoak. Hain zuzen ere, Osintxun jarriko dute postua bihar, zapatua.

Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik da

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeei zuzendua, lau astez emango du zerbitzua Udalak

L.Z.L. ELGETA

Ekainaren 27an zabalduko ditu ateak udaleku zerbitzuak, eta uztailaren 22ra bitartean 09:00etatik 13:00ak arteko zerbitzua emango du astelehenetik barikurako lan egunetan. Izenematea zabalik da hilaren 27ra arte udaletxean, udal webgunean eta udala@elgeta.eus helbide elektronikoan. Izena ematen duen haur kopuruaren arabera erabakiko da udalekuotako hezitzaile kopurua.

Jarduera, gehienbat, aire zabaleko espazioetan egingo da,

baina udalekuen kokapen ofiziala Herri Eskola izango da.

Aurtengo gaia *oihana* izango da, eta umeak bost taldetan antolatuko dituzte, adinaren arabera; 2-3 urtekoak sugandilak izango dira, 4-5 urtekoak kameleoak, 6-7 urtekoak tximuak, 8-9 urtekoak zebrak eta 10-11 urtekoak lehoiak.

Prezioak dira astebete 40 euro, bi aste 60 euro, hiru aste 75 euro eta lau aste 90 euro. Hobariak daude bigarren haurraren kuantan, eta baita ere egoera ekonomikoaren arabera.

GORA ETA BEHERA



Sofa bat utzi dute Asentzion

Argazkiak postaleko irudia dirudi, eta paisaia gozagarria da, baina Asentziaraino sofa bat eraman eta bertan uztea ez da zuzena. Eraman zutenen ardura zen erretiratzea.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Ozkarbi eguna, bertan behera

Bazkide gutxi eman dute izena eta hilaren 21ean egitekoa zen Ozkarbi eguna atzeratzea erabaki du zuzendaritzak.

Ipuinen Ordua gaur liburutegian

Funtzionamendu protokolo berriarekin, hogei minutuko hiru saio izango dira, 17:30etik 18:50era.

Podologoa erretiratuendako astelehenean

Txanda hartzeko, deitu: 669 99 81 65 (Maite Elkoro).

Mendi taldeak irteera Kruzetara hilaren 22an

Eguna da izena emateko azken eguna. Ohiko bideak erabili.

"Ordizia plaza garrantzitsua da"

Ordiziatik ekartzen duten lehen txapela ez bada ere, plaza garrantzitsutzat dute Baobeer-ekoek. Esku artean duten garagardorik onena eramaten saiatzen dira beti. "Tafarik Ddh Double Ipa duela hilabete inguru ateratako garagardoa da. Gure ustez, une honetan dago puntu onean. Horregatik erabaki genuen lehiaketara aurkezte", azaldu du Barrainkuak.



Maite Barrainkuak txapelarekin Ordiziako sariketan. BAUBEER

Basoari buruzko lanketa aurkeztu dute ikasleek

Agenda 2030 egitasmoaren barruan, basoari buruz egindako lanketa aurkeztu diete astean udal agintariei herriko ikasleek. Basoak eta parkeak garbitzeko eguna izendatzea proposatu dute, eta, eginez gero, parte hartzeko konpromisoa hartu

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Basoa. Horixe izan da aurtengo ikasturtean Agenda 2030 proiektuaren barruan herriko ikasleek landu duten gaia. Duen garrantzia aztertzea, horretaz jabetu, eta basoaren zaintza hobetzeko proposamenak egin dizkiete astean udal agintariei osoko bilkuren aretoan. Ekarpenekin batera, aurrerantzean hartuko dituzten konpromisoak ere aipatu zituzten ikasleek.

Konpromisoak ere bai

Zuhaitz eta lore gehiago landatzea, botatzen den beste zuhaitz landatzea berriz, sute arriskuak saihesteko baso naturalak hazten uztea, plaza inguruan ontzi handiagoak jartzea hondakinak jasotzeko, espezie inbaditzaileak kentzea eta animaliak babesteko guneak egitea. Proposamen horiek egin zituzten gazteek, besteak beste. Baita, erreka garbiketa eguna antolatzen den moduan, basoak edo parkeak garbitzeko egun bat jartzea ere. Antolatuz gero, joateko konpromisoa hartzen dutela esan zuten gazteek, baita landatutako loreak ez zapaltzekoa eta basora doazenean hondakinak lurrera ez botatzea.

Ikasturte osoan hainbat lanketa egin dituzte Agenda 2030

DATORREN IKASTURTEAN, ENERGIA LANDUKO DUTE AGENDA 2030 BARRUAN

ikasgaiaren barruan; irteerak eta taldekako lanketak, adibidez. Eguaztenean, lanketa horren emaitza erakutsi zuten osoko bilkuren aretoan. Ikastetxe bakoitzeko eta maila askotariko hamar gaztetxok ordezkatu zi-

tuzten gaia lantzen ibili diren herriko gainerako ikasleak. Txandan hartu zuten hitza zinegotzien eserlekuetatik, eta Asier Iraeta Ingurumen batzordeburuak eta Izaro Elorza alkateak erantzun zituzten argazki bidez erakutsitako ekarpenak. "Guk baliabideak jartzea beharrezkoa da, baina konpromisoak betetzea ere eta beharrezkoagoa, kontzientziarazioa egotea. Eta adin honekin jarrera hori izatea ikaragarria da", zioen alkateak ekitaldiaren amaieran; ekintza polita izaten dela gaineratu zuen.



Ikasleak osoko bilkuren aretoan Agenda 2030eko lana aurkezten. O.E.

Aurrez aurreko mintegiak berriz Lege Soziologia Institutuan

Aurrez aurreko mintegiekin hasi dira berriz, bi urteren ostean, Oñatiko Lege-Sociologiako Nazioarteko Erakundean. Aste honetan, hilaren 12an eta 13an, izan da lehenengoa. EHUKo eta Deustuko unibertsitateetako eta nazioarteko unibertsitateetako hainbat adituk desberdintasun estrukturalak jardun dute. Hain zuzen, Euskal Herriko, Herbehereetako, Brasilgo, Belgikako, Frantziako, Turkiako, Paraguai-ko, Valentziako, Israelgo eta Erresuma Batuko adituak etorri dira Oñatira.

Pandemiak eragindako bi urteko etenaren ondoren, hamar mintegi programatu dituzte iraila erdialdera arte.

Azkoagaingo eta Lezesarriko lanak, lizitaziora

Lezesarri auzoan, Azkoagaingik Urrintxo pareraino, oinezkoen-dako bidea egiteko lanen esleipena martxan dago. Irigarritasuna eta trafikoaren kudeaketa hobetzea da lan horien asmoa eta aurreproiektua eginda dago. Oinezko bideak bi metroko zabalera hartuko du eta horretarako errepidearen plataforma zabaldu egingo dute eta ibilbidearen kontrako erreia metro erdi estutuko dira. Hilaren 17an bukatzen da proposamenak aurkezteko epea, eta, lanak behin esleitura, hiru hilabeteko epean egin beharko dituzte. Bestalde, Azkoagaingo belar artifiziala jartzeko lanak esleitzeko prozesua ere dagoeneko martxan dago.

Hauteskundeko plangintzaz arituko da bihar EH Bildu

Herri batzarra egingo du bihar, zapatua, hilak 14, Oñatiko EH Bilduk. Eta datorren urtean izango diren udal hauteskundeak izango da mahai gaineratuko duen gaietako bat. Kultura etxeko beheko solairuan izango da herriar guztiendako zabalik egongo den batzarra, 10:30ean.

Hauteskunde prozesurako plangintzaz ez ezik, azken urtean

udalgintzan eta herrigintzan egindakoaren balantzea ere egingo du EH Bilduk, eta kokapen politikoa azaldu.

Datorren urteko maiatzean izango dira hurrengo udal hauteskundeak, eta horiek lantzen hasiko da Oñatiko EH Bildu, horretarako lantalde propio bat sortuz, plangintza jakin batekin. Azken bi agintaldietako esperientziatik abiatuta eta herri batzarrean landuko duten balantzea kontuan hartuta izango da hori.

GORA ETA BEHERA




Ibilgailuak espaloi gainean San Lorentzon

San Lorentzon "eguerdiro" autoak espaloi gainean egoten ei dira aparkatuta, "aldamenean tokia izanda ere aparkatzeko". Hori salatu du herriar batek, argazkia bidalita; handik pasatzeko arazoak egoten direla esan du. "Ez da ezer kostatzen espaloiak errespetatzea".


EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.




SARA ZUBIA ETA EIDER URZELAI ELKAR HEZI

"Ikastetxean boto gehien izan dituzten proposamenak eta konpromisoak ekarri ditugu. Baso naturalak hazten uztea da gure proposamenetako bat".



PAULA LOPEZ ETA JON BIAIN TXANTXIKU IKASTOLA

"Basoaren mantentze-lana egitea da gure ekarpenetako bat; eta konpromisoen artean, landare inbaditzaileak ikusiz gero, kentzea".



ANE MADINAGOITIA ETA IKER SERRANO URGAIN

"Taldea egin dugu lana. Errekako hondakinak garbitzea da eskaerretako bat, eta konpromisoa, zuhaitz landaketetan parte hartzea".

"Bizimodu bat agertzen da karten inguruan"

JOSE ANTONIO AZPIAZU HISTORIALARIA ETA IDAZLEA

'Los naipes de Euskal Herria' liburua atera berri du eta karten jolasa Euskal Herrian zabaltu zenean izan zuen harrera eta ondorioak jasotzen ditu, pasarte historikoein

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Esklabotza, era bateko edo beste-ko itsasgizonak, jokoak eta apustuak, pilota eta haren bueltakoak... Askok eta askotarikoak izan dira Jose Antonio Azpiatzuk liburuetan landutako gaiak; betiere, ikuspuntu historikotik. Hain zuzen ere, karta-jokoen bueltakoak batu ditu *Los naipes en Euskal Herria* izena duen azken liburuan.

Zergatik karta-jokoen inguruko liburua?

Eguneroko bizimoduan gauza harrigarriak agertzen dira, inoiz tratatu gabeak. Beti agertzen dira jendearendako garrantzia duten gertaerak. Karten inguruan ere bizimodu baten ikuspegi bat ageri da, beste leihobatetik begiratutakoa, baina oso aberatsa. **Noiztik erabiltzen dira kartak denbora-pasa moduan Euskal Herrian?** Oso zaharrak dira kartak, ekialdetik ekarritakoak, eta ez zituen edonork. XV eta XVI mendeetan, berriz, non-nahi agertzen dira, kanpotik ekarritakoak zein bertakoak. Erregea konturatu zen kartak negozioa izan zitezkeela, eta monopolioa ezarri zuen: soilik erregeak egin zitezkeen, eta hark ezarritako prezioan saldu. Hori agertu eta kontrabandoa eta ezkutuko produkzioa hasi, dena bat. Jendea dedikatzen zen kartak egitera. Ez zuten balio ofizialik, baina egiten eta saltzen zituzten. Beste profesional batzuk ere agertu ziren; haiek herriz herri ibiltzen ziren jende bila kartetan jokatzeko, apustuak egiteko eta dirua lapurtzeko. Horrek guztiak tranpak ekarri zituen, borrokak...

Artxiboan material ugari topatu duzula diozu.

Bai. Hernanin, adibidez, emakume bat jokatu zuten kartetan. Oiarzungo auzo batean, berriz, XVIII. mendean, emakumeek jokatzeko zuten kartetan. Gizonak arduratuta zeuden euren txanponak zeudelako jokoan, eta



Jose Antonio Azpiatzu azken liburua eskuetan duela. TXOMIN MADINA

"ERREGEK MONOPOLIOA HARTU ETA KONTRABANDOA HASI, DENA IZAN ZEN BAT"

alkatearengana eta erretorearengana joan ziren. Apaizak berak pulpitutik esan zuen lotsagarria zela emakumeek kartetan jokatzeko, baina emakumeek kontra egin zioten eta jokatzeko jarraitu gura zutela esan. Femenismoaren zantzuak agerian.

Estamentu sozial jakin bati lotuta zeuden kartak ala edozeinek jokatzeko zuten?

Edozeinek. Esan zidaten, adibidez, hemengo inguruko jauregi batera etortzen zirela inguruko aberatsak euren karrozetan propio kartetan jokatzera.

Diru asko mugitu izan da karten bueltan?

Askok. Hemen adibide bat: Hernaniko bati mandatua eman zioten Azkoitiko pertsona bati dirua eramateko. Batetik besterako bidean, benta baten egin zuen lo. Hangoak konturatu ziren dirua zeramala hark, eta

profesional bat agertu eta dirua jokatzeko hasi ziren; nagusiak emandako dirua jokatzeko hasi eta, azkenean, dena galdu zuen. Bizio handia sortu zuten kartek. Gasteizko pasadizo batean ere antzerakoa gertatu zen: Gaztelatik herriz herri Gasteizera merkataria batengana heldu zen gizon bat aitak emandako diruarekin zetorrela ikusi, eta kartetan irabazi zioten guztia jokalariei profesionalak. Horiek, baina, izandako auzietan agertzen diren kasu batzuk baino ez dira, agertzen ez diren beste mila egongo dira.

Bilboko pasarte bitxi bat ere jaso duzu.

Aristokrata antzeko bat agertu zen Bilbon, oso ondo jantzita, arma eta guzti. Lagunak egiteko prest zegoen eta emakumeak engainatzen trebea zen. Orduko Bilboko ostatu ezagun batean agertu zen eta karta-lagunak egin zituen han. Tranpak egiten zituen, eta irabazi. Baina ez ziren gauzak ondo bukatu. Tiroz hil zuten. Pentsa, hilketa gertatu zen. Epailea agertu zen, eta Valladolidera iritsi zen gertaera, lau liburu handitan jasoz.

Urgain eguna ospatuko dute bihar Irunberri plazan

Zapatuan, bihar, ospatuko dute Urgain eguna eta egun osoko egitaraua prestatu dute. Jolasak, kontzertuak, antzerkia, *lid dub*-a eta bazkaria izango dituzte, besteak beste. Bazkarirako 600 lagun elkartzeko dira. Irunberri plaza izango da gune nagusia. Hantxe egingo dute muntaia goizean, auzolanean, eta segidan, herri gosaria emango diete herritarrei komunitate sahararraren eskutik. Ondoren egingo dituzte gainerako ekintzak; Irunberri plazan gehienak, baina baita handik plazara bitarteko kaleetan ere. *Lip dub*-a, berriz, plazan bertan egin eta grabatuko dute. Antzerkia Zuazolako aretoan egingo dute ikasleek.

Bertso-paper lehiaketa jarri dute abian, gazteendako

Gaztelekuak eta Txinparta bertso eskolak elkarrekin bertso-paper lehiaketa antolatu dute aurten ere, gaztetxoendako. Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleendako izango da. Gazteenek bi bertso edo lau koplak osatu beharko dituzte. Gaia argazki bidez proposatu zaie aurten ere, eta Pablo Picassoren *Gernika* margolana, Oñatiko txorimaloak edo Urbia dira irudiak. 12-18 urte bitartekoen mailan, berriz, hiruna bertso osatu beharko dira, neurri eta gai librean. Hilaren 22a da lanak aurkezteko azken eguna. Sari bana-keta ekitaldia 28an egingo da, gaztelekuan.

NIRE USTEZ



MANU EGAÑA

Izarren hautsa

Zergatik dago ezer ez erorden? Zergatik agertu zen Unibertsoa? Ez dago lege fisikorik galdera horiei erantzuteko. Hala ere, legeek bere deskribatzen digute hasieran gertatu zena. Duela 14.000 milioi urte, Unibertsoak biltzen duen guztia, milaka milioi galaxia, txikitasun imajinaezin batean kontzentratuta zegoen. Unibertso osoa 10-33 zentimetroko esferan zegoen, atomo baten nukleoa baino askoz txikiagoa. Ezagutzen dugun guztia ezerezen itxura duen energia amaigabeko ozeano batetik dator. Ez dakigu nondik datorren *singularitasun* hori, espazioan eta denboran hedatzen den tapiz kosmiko itzelaren jatorria. Ia erabateko misterioa da. Ezagutzen duguna da tapiz horrek duen doikuntza zoragarria. Eta hor galdera: *espazioa*, *denbora* eta *kausalitatea* kontzeptuei sinkronizazio-printzipio bat gehitu behar al zaie? Kaosa, ausazkotasuna eta zoria al dira guztiak? Edo konstante fisikoak arautzen dituen agindua? Fenomeno horien guztien atzean printzipio boteretsu, aske, infinitu, inplizitu, ikusezin, esperimentera, betiereko eta beharrezko bat ezkutatzeko dela sinestea gustatzen zait.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Martitzen arratsaldean frontoian egin zuten spotaren grabazioan izan ziren lau pilotazaleak. AMAIA TXINTXURRETA

Pilota txapelketarako izen-ematea, zabalik

Bueltan da txosna batzordeak eta Aloña Mendik antolatzen duten Oñatiko Pilota Txapelketa. Maiatzaren 22ra bitartean eman ahal izango da izena, Arrano, Boga edo Ongi tabernetan; ekainean hasi eta San Migel jaien bueltan emango diote bukaera

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI
Pandemiagatik azken bi urteetan jokatu gabe egon ostean, bueltan da, beste urte batez, txosna batzordeak eta Aloña Mendik antolatzen duten Oñatiko Pilota Txapelketa. Ekainean eta uztailan jokatu dira lehenengo partiduak eta irailean izango dira finalerdiak eta finalak, San Migel jaien bueltan. Finala handia irailaren 30ean izango da, egubakoitza eta Herri Egunaren bezpera.

2019an azkenekoa

Bi urteko etenaren ostean, antolatzaileek ez dakite oraindik nolako harrera izango duen aurtengoan txapelketak, baina aurreko urteetako arrakastari eustea dute helburu: "2019an, esateko, guztira, 100 lagunek hartu zuten parte, 50 bikotek; 35 gizonenak izan ziren eta 15 emakumeenak. Urte hartan animatu ziren, gainera, inoiz baino emakume gehiago parte hartzeri. Eta egia da herritar asko erakar-

tzen dituen txapelketa dela, partiduetan animatzera ere geroz eta herritar gehiago azaldu izan dira azken urteetan eta giro polita sortzen da", adierazi du txapelketako batzordeko kide Oier Fernandezek.

Helburua, frontoira joatea

Azkeneko aldian 200 partidu inguru jokatu ziren txapelketan, eta helburua haxe dela azpimarratu du Fernandezek: "Herritarrek frontoira joatea eta pilotarekiko afizioa dutenek horrelako txapelketa batean jokatzeko aukera izatea da helburua". Gaineratu du batzuek irabazteko helburuarekin parte hartzen duten arren, "pike sanoa" egoten dela jokalarien artean

2019KO TXAPELKETAN 50 BIKOTEK HARTU ZUTEN PARTE: 35 GIZONEZKOK ETA 15 EMAKUMEZKOK

eta nabarmendu du herritar guztiei zabalik dagoen txapelketa dela, bakoitzak daukan pilotan jokatzeko maila edozein dela ere.

Sariak

Gizonezkoendako eta emakumezkoendako banatuko dituzte sariak. Txapeldunek txapela jasotzeaz gain, finalista guztiek izango dute aukera pilota jokarlari profesionalen finala ikustera joateko.

Izen-ematea, zabalik

Hilaren 22ra bitartean eman ahal da izena txapelketan parte hartzeko, Arrano, Boga edo Ongi tabernetan. 15 euro ordaindu beharko dira bikoteko eta gehienek ere federatu bakkira egon ahal izango da bikote bakoitzean. Herrian bizi direnek edo herritarrek direnek hartu ahal dute parte. Pilotazaleen izen-ematea sustatzeko, martitzenean spot bat grabatzen izan ziren frontoian.


Ikasleek askotariko piezak joko dituzte musika astearen barruan

Datorren astelehenetik zapatara bitartean musika eskolako ikasleek hainbat entzunaldi egingo dituzte

A.T.G. OÑATI

Musika astea ospatuko dute Jose de Azpiazu musika eskolakoez datorren astean. Orain artean egindako lana jendaurrean erakusteko aukera izango dute egingo dituzten emanaldien bidez. "Hasiera batean, geletan egiten ziren; ondoren, musika eskolan gurasoen aurrean; eta azkeneko urteetan herritarrei zabaltzen diegu entzunaldiak", adierazi du Arantzazu Bikuña irakasleak. Astelehenetik egubakoitzera bitarteko arratsaldeko entzunaldiak Santa Anan egingo dituzte, martitzenekoa izan ezik, hori gaztelekuan izango da. Ez da aurrez sarrerarik hartu beharko.

Hilaren 21ean, zapatua, 11:00etan, musika eskolan irakasten dituzten musika tresnak probatzeko aukera eskainiko diete herritar guztiei; 12:30ean,



Ikasturte amaierako kontzertuan. GOIENA

Herrixa Kantuan ekimena egingo dute, aspaldiko partez; eta 13:15ean, helduen konboaren eta triki-konbo taldearen zuzenekoak izango dira. Foruen plazan eta Atzeko kalean egingo dituzte, eguraldiak laguntzen badu; bestela, gaztelekuan.

Donostiako Orfeoia kontzertua emango du Arantzazun

Orfeoia 125 urte beteko ditu aurten abesbatzen etengabeko jardunean, eta hori ospatzeko lehen emanaldia Arantzazuko basilikan egingo du bihar, zapatua, 19:00etan. Kontzertu berezi horretan parte hartuko dute Donostiako Orfeoia eta Gerardo Rifon organistak, eta zuzendari lanetan izango dute Jose Antonio Sainz Alfaro.

Orfeoioek adierazi dute programa "erakargarria" prestatu dutela. Kantu hauek abestuko dituzte: Aita Madinaren *Aita gurea*, Tomas Araguesen *Ave Maria*, Pau Casalsen *Nigra SUM*, Leonard Cohenen *Hallelujah*, Francis Poulencen *Litanies*, *La Vierge Noire* eta Tomas Garbizuren *Meza ontzia*, besteak beste.

Sarrerak salgai daude <https://tickets.kutxabank.es-en>, 20 eurotan. Kontzertuaren egunean ere eskuratu ahal izango dira.

86.000 euroko dirulaguntza kultur proiektuetara

Dirulaguntza deialdi bat egin du Udaleko Kultura Departamentuak eta bi lerro zehaztu dituzte. Alde batetik, kultur proiektuak eta programak gauzatzeko 70.000 euroko diru poltsa izango da; eta bestetik, Oñatin, irabazi asmorik gabeko taldeek garatuko dituzten kultur sormen lanak egiteko 16.000 euroko beste poltsa bat jarri dute.

Eskatzaileek dagokien eskaera-orri orokorrari proposatutako ekintza edo ekintzei buruzko fitxak erantsi beharko dizkiote. Baita nortasun agiriaren kopia edota identifikazio fiskalaren kodearen kopia ere. Kontuan hartuko dituzte proposatutako programaren ezaugarriak, erakundearen ezaugarriak eta dituen finantza baliabideak. Eskaerak Udalaren erregistro elektronikoa aurkez daitezke, modu telematikoa, edo HAZ bulegoan, maiatzaren 23ra bitartean.



Realaren eta Atletico Madrilen arteko partidarako sarrerak **futbol zelaiko tokirik onenean**



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Atletico Madril partida (maiatzaren 22a) beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. .



Eserlekuak
Premium gunean



Catering
zerbitzua



Aldageletako tunelean
jokalariak ikusteko aukera



Ikus-entzunezko
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu
pertsonalizatua



353 metro karratuko
gunea

**Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!**



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

**goiena[™]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Mikel Ugarte –ezkerretik lehena– Victor Arroyorekin eta Roger Manyarekin podiumean. ESPAINIAKO TRIATLOI FEDERAZIOA

"Egunerokoan buruari kontra eginda lortu ditut emaitzak"

MIKEL UGARTE ESPAINIAKO DISTANTZIA LUZEKO TXAPELDUNORDEA

TRIATLOIA Asteburuan Platja d'Aron (Girona) egindako ironman distantziako lasterketan, elite mailan, bigarren sailkatu da oñatiarra (8.35.22)

Xabier Urtzelai ARRASATE

Ironman lasterketa amaitu berritan normala da gorputza oraindik minduta izatea. Mikel Ugarteren (Oñati, 1993) aldakako mina, baina, ez da zortzi ordu eta erdiz egurrean joatearen ordaina, bizikletako tartean izandako erorikoaren ondorioa baizik. Eta, edozelan ere, iazko Espainiako txapeldun Victor Arroyo bakarrik izan zen gauza oñatiarra harrapatzeko. Hain zuzen, gorabehera askoko lasterketa izan zen

domekakoa: gurutze-bidea eta, aldi berean, ikasgai ona.

Horrenbeste gorabehera gaintu ostean bigarren poztuak zapore hobea du?

Baliteke. Lasterketa amaieran bigarren nindoan, eta postu horretan erretiratu izana ez niokeen neure buruari barkatuko; hori egin izan banu, gaur negarrez egongo nintzateke. **Urrian Mallorcan lortutako berderatzigarren postuak baino zapore hobea utzi dizu zilar horrek?**

Errendimenduari dagokionez, Mallorcakoa lasterketa hobea izan zen, han nazioarteko atletak izan ziren. Domekako lasterketan postuarekin geratzen naiz, bigarren egin izanarekin. Eta lasterketan zehar izandako arazoak gaintu izanarekin.

Ez ziren gutxi izan...

Egia esan, ez. Igeriketako tartea amaituta –bosgarren–, bizikleta hartu eta segituan hartu nuen aurre. Banekien kontrario zuzenak ez zirela igeri ondo egin zuten horiek, atzetik etorriko zire-

la faboritoak, eta lehenengo 50 kilometroetan denetik izan nuen. Zirkuituan pasabide moduko bat jarri zuten, eta ondoren, hartxintxarra zegoen. Eta bihurgunea hartzerakoan, konturatu nintzen. Gerrialdearekin jo nuen lurra, baina berotan zaude, altxatu egiten zara eta jarraitu egiten duzu. Segituan konturatu nintzen minez nindoala, eta bizikletako tartean, akaso, ez –180 kilometro–, baina gero korrikako tartean –maratoia– arazo handiak izan behar nituela.

Gorabeherak, baina, ez ziren hor amaitu.

Ez; bizikletan lehenengo postuan nindoala hainbatetan hartu nuen bidegurutze okerra. Ibilbidearen markaketa ez zegoen batere ondo; pentsa, ni grabatzen zebiltzan antolatzaileen motorrak ere nahastu egin ziren hainbatetan. Eta hor denbora galdu nuen. Potentziometroak ere funtzionatzeari utzi zion, korrikako tartean komunera joan behar izan nuen tripak gaizki nituelako... Pentsamendu negatiboen eta positiboen arteko borroka etengabea izan nuen, baina tira, burugogorra ere banaiz, eta...

Maratoia elkarrekin hasi zenuten zuk eta lasterketa irabazi zuen Victor Arroyok.

Bai; zapatilak janzten ari ginela esan nion zalantzak nituela korrika egiteko kapaz izango ote nintzen. Bizikletatik jaitsi eta boxerako tartean gorriak ikusi nituen, errenka nindoan, eta neure buruari esan nion modu horretara 42 kilometro egitea gogorra izango zela. Arroyok segituan egin zuen aurrera, baina orduan ekaitza hasi zen eta euri zaparrada galanta bota zuen. Neure buruari gogorazazi nion Gasteizen zenbatetan entrenatu naizen baldintza horietan, eta Arroyo harrapatzeko kapaz izan nintzen. Hor estutu egin zela aitortu zidan gero, baina 20. kilometroan erritmoa aldatu zuen eta ezin izan nion erantzun. Azken kilometroak sufrikarioa izan ziren.

Urteko helburua izan da?

Helburu nagusia, akaso, ez. Uztailan Gasteizko ironman proba egingo dut, eta pentsatu genuen prestakuntza moduan ironman hau ondo etorriko zitzaidala. Ea kolpetik lehenbailehen erreku-peratzen naizen, errenka nabil oraindik.

Gasteizen, Hawaiiako txartelak egongo dira jokoan...

Ez da helburua. Hawaiiara elite kategorian sailkatzea gustatuko litzaidake, profesionalen mailan, eta horretarako oraindik goiz da. Hasiberria naiz distantzia hontan, baina ez dut baztertzen etorkizunean ahalegina egitea.

Atleta profesional bilakatzeko lanean zbiltza.

Gauza ederra izango litzateke, baina hemen ez da horren erraza. Espainian lauzpabost atleta izango dira ironman distantzian profesional dihardutenak. Gauza bat da marka ezberdinekin babesletzak izatea, edo kolaborazioak. Alegia, marka batek bizikleta ematea, neoprenozko trajea, elikadura... Gastuak aurrezten dituzu horrela, baina soldata lasterketako sarrietatik eskuratzea arriskutsua da, babesle indartsuak behar dira saltoa emateko. Alemanian badakit nire mailan profesionala izango nintzatekeela. Hemen zailagoa da, eta pena da, triatloiak baditu-eta jarraitzaileak. Hala ere, pozik nabil entrenatzaile, nirekin dabilztan kirolariengandik ere asko ikasten dut.

Eguneroko bizitza kirol jarduerara %100 bideratzea eskatzen du horrek.

Norbaitek pentsatuko du kirolari profesional baten moduan bizitzea ederra dela, entrenatzeaz bakarrik arduratzen garelako. Baina nik lortu ditudan emaitzak lortu ditut egunero neure buruari kontra egiten diodalako. Lagunek gauza bat egin behar dutela, zuk kontrakoa. Domeka goizean bost orduz bizikletan ibili eta gero atseden hartu nahi duzula, ba, arratsaldean korrika egitera. Hotz eta euria egiten duela, ba, entrenatzea tokatzen da. Metro bat ere ez dut barkatzen; izan ere, alde horretatik, oso-oso zorrotza izan behar duzu, eta lehen esan dudana, burugogorra.

"BIZIKLETAKO TARTEAN IZANDAKO ERORIKOAK DEZENTE BALDINTZATU ZIDAN LASTERKETA"

"HAWAIIARA ELITE KATEGORIAN JOAN NAHIKO NUKE, BAINA ORAINDIK GOIZ DA HORRETARAKO"

Kontrario gogorrak dituzte Herri Artekoan

PILOTA Aretxabaletak eta Oñatik asteburuan hasiko dute Herri Arteko Txapelketa txapelketa. Aretxabaletarrek etxean jokatu dute, domekan (16:30), Hernaniren kontra. Oñatiarrek, aldiz, Amezketan dute hitzordua gaur

Xabier Urtzelai ARETXABALETA

Asteburuan hasiko dute Aretxabaletak eta Oñatik Herri Arteko Txapelketa. GOIENA bi taldeetako ordezkariekin, Juan Mari Errastirekin (Aretxabaleta) eta Josu Osarekin (Oñati) izan da. Biek nabarmendu dute kontrario gogorrek egokitu zaizkiela lehen kanporaketa honetan, eta aurrez, oñatiarrek dute aurrera egiteko aukera handiena. Julen Aranbururen (Bergara) hitzak ere bildu ditu GOIENAK, baina pilotari baten lesio bat tarteko, atzo eguerdian uko egin behar izan zioten txapelketari bergarrek.

Aretxabaletak, etxean

Domekan (16:30), Iturri gorri pilotalekuak Aretxabaletaren eta Hernaniren arteko partiduak hartuko ditu. "Herritarrei dei egin nahi diet herriko pilotariak animatzera etortzeko. Hernani ez da kontrario berria guretako, iaz ere euren kontra jokatu genuen eta txapelketako herri indartsuenetako bat izango da aurtan ere. Iaz, ez genuen askorik egiterik izan, 6-0 galdu genuen, baina nik ez diet beldurrik. Halakoetan beti pentsatu ohi dugu kontrarioa norbera baino hobea dela, baina etxean partidu bat irabazten badiogu, itzu-



Manex Guridi oñatiarra, Herri Arteko Txapelketako kanporaketa batean. GOIENA

liko partidurako belarriak ten-te jarriko dizkiegu", adierazi du Errastik.

Egia da aretxabaletarrek erronka polita izango dutela aurrean, kadete mailan hutsunea dute eta. "Partidu horretan ez dugu zeregin handirik, kategoria horretan infantil mailako pilotariekin jokatu dugu. Baina gazte mailan eta seniorretan ordezkari txukunak ditugu".

Oñatik, kanpoan

Oñatiarrek "baikor" dira Amezketaren aurka jokatu duten lehenengo kanporaketari begira, aurrera egiteko aukera dutela sinetsita, nahiz eta onartu ez dela samurra izango: "Nahiko estu egongo da kanporaketa; esango nuke Amezketakoen eta gure artean indarrak nahiko parean daudela, eta, seguruenik, kadete mailako partiduak izango dira erabakigarriak. Baliteke gazte mailan eurak izatea faborito, eta, akaso, senior mailan guk talde hobea dugu. Horregatik diot kadete mailako lehia izan daitekeela erabakigarria, baina tira, kanporaketak jokatu egin behar dira", dio Osak.

Herri Arteko Txapelketan aurrera egitea oso zaila izaten da, badiarelako harrobi dezente handiagoa duten taldeak, baina lehen kanporaketa jarri nahi dute burua oñatiarrek orain. "Azkoitia, Azpeitia, Oiartzun... Talde horiek nabarmenduko nituzke nik faboritoen multzoan, eta horien kontra aurrera egitea zaila izaten da. Baina lehenengo kanporaketa gainditzea erronka polita izaten da, hori motibagarria izaten da pilotariendako, eta, modu batera edo bestera, txapelketari beste kolore bat ematen diozu. Ea Amezketan kanporaketa polita egin dugun; ondoren, etxean itzuliko norgehiagokan giro

polita izango dugu pilotalekuan, seguru".

Bergarak, ezin

Mahoneroek azkoitiarren etxera egin behar zuten. Jakitun ziren aurrez ere zaila izango zutela aurrera egitea, Azkoitiak "talde indartsua" izaten duela. Gainera, gazte mailan "zailtasunak" izan dituzte taldea osatzeko. Maddi Barrocalekin jokatzeko ere pentsatu zuten: "Gazte mailakoa da, baina egia da adin tarte horretan, eta tokeko pilotekin, gizonezkoen eta emakumezkoen artean aldea nabarmena izaten dela". Hala, kadete bat gazte mailara eta infantil bat kadete mailara igotzea zen lehen asmoa. Astean, baina, Azkoitian kantxaratzeko zein seikoteko kide bat lesionatu egin da, eta atzo eguerdian uko egin behar izan zioten.

"IAZ, HERNANIREN KONTRA GALDU EGIN GENUEN, BAINA EZ DIEGU BELDURRIK"

JUAN MARI ERRASTI, ARETXABALETA

"KANPORAKETA ZAILA DUGU AZKOITIARRREN KONTRA, BAINA GOGOZ GAUDE"


JULEN ARANBURU, BERGARA

"AMEZKETAREN KONTRA INDARRAK PAREAN DITUGULA ESANGO NUKE"

JOSU OSA, OÑATI

ATLETISMOA Ruiz de Azua Iberoamericano txapelketara doa

Maiatzaren 20tik 22ra bitartean jokatu dute, La Nucian (Alacant) nazioarteko Iberoamericano txapelketa, eta Espainiako Federazioak txapelketa horretan esku hartzeko aukeratu dituen 70 atleten artean dago Malen Ruiz de Azua. Txapelketa horren azken edizioa 2018an egin zuten, Perun. Monica Clemente izan da pertikan beste aukeratua.



Malen Ruiz de Azua. X.U.

ATLETISMOA Kuadrillen arteko santamas krosa, hilaren 22an

Osasun egoeragatik iazko abenduan jokatzekoa zen lasterketa bertan behera gelditu ostean, Arrasateko Kanpanzar Atletiko Taldeak kuadrillen arteko 43. santamas krosa maiatzean antolatzea erabaki du. Zehazki, maiatzaren 22an, domeka, jokatu dute (12:30). Haur eta gazteentzako lasterketak ere egingo dituzte aurretik.



2020ko santamas krosa. GOIENA

TXIRRINDULARITZA Itzulia Women Elgetatik pasako da bihar

Emakumezkoen elite mailako txirrindularitza lasterketa jokatu dute gaurtik hasi eta domekara bitartean. Hala, zapatuko etapak Mallabian izango du irteera eta helmuga. Bada, egun horretan lasterketa Elgetatik pasako da. Ziklistak Elorriotik igoko etorriko dira, 13:00 aldera, eta Karabietatik hartuko dute Eibarrerako bidea.

"Eszenografia eta musika ikusgarria du"

MARIA URZELAI AKTOREA

Eva Guerrero dantza konpainiaren 'LOF Ladies on Fight' ikuskizunarekin Amaia antzokiko taularen gainean izango da Bergarako aktorea domekan, 19:30ean

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Emakumeen borroka libre formatuan, dantza eta umorea nahasten dituen ikuskizun tragikomikoa da. Epailearen rolean da Urzelai. *Arrasate.eus*-en eta Amaia antzokiko leihatilan eskura daitezke sarrerak, hamar eurotan.

Arrasatera etortzeko gogotsu?

Bai, horixe! Hainbat alditan izan naiz antzezten han. Bilbon bizi naiz egun eta ilusio berezia egiten dit etxe ingurura itzultzeak. **Eva Guerrero konpainiarekin egin duzun lehenengoa da. Zer moduz?** Otsailean deitu zidan Evak dagoeneko estreinatuta zuten lanean parte hartzeko proposatzeko, eta martxoan Bilboko Arriaga antzokian izan zen nire estreinaldia. Ez naiz dantzaria, baina niretzako beti uztartuta izan dira mugimendua eta antzerki fisikoa; hortaz, dantza niretzako zerbait gertukoa izan da beti, eta oso gustura ari naiz. *Madame* naiz ni, epailearen eta aurkezlearen paperean.

Alboan dituzu lau dantzari. Zeintzuk?

Lau emakume ikaragarri dira, indartsuak eta dantzan zoragarri egiten dutenak: *Dancing Queen* (Garazi Lopez de Armenia) borrokalari glamurosoa; *La Pantera de Otxarkoaga* (Leire Otamendi); *Sobakova* (Helena



Maria Urzelai Bergarako aktorea, LOF Ladies on Fight ikuskizunean. EVA GUERRERO

"TESTUA EDO HITZAK BAINO, GORPUTZ HIZKUNTZATIK GEHIAGO DU GURE IKUSKIZUNAK"

Wilhelmsson) Errusiako borrokalaria; eta euskal labela duen *Lady Borroka* (Estibaliz Villa). Azazkalak ateratzen dituztenean, hobe da alde egitea.

Umorea eta dantza nahasten dituzue. Zer kontatzeko asmoz?

Ring batean kokatuta dago eta dantza du oinarri; euren arteko konfliktoak eta nik eurekin dauzkadan agerian geratuko dira. Gaztelaraz da, baina testu gutxi dago, gorputzaren hizkuntzak pisu nabarmena du eta. Kritika puntu bat ere badu; besteak beste, prekarietateaz eta lehiakortasunaz hausnartzea proposatzen du istorioak, eta baita espektakulu edo antzerki munduaren egoeraz ere, baina ikusleen begirada oso zabala da eta bakoitzak bere modura jasotzen du. Istorioarekin geratzen

dira batzuk eta dantza mugimenduek harrapatuta beste ikusle asko.

Eszenografia ikusgarriaz gainera, musika arloa ere ondo zainduta dagoela diozu.

Hala da, bai; musikaren bidez ibilbide polita egiten da, nire ustez, ikuskizunean. Nerea Alberdik sortu du eta 80ko hamarkadako diskoteka girora eramango gaitu une batzuetan.

Nori eskainiko zenioke, bereziki? Gazteentzako eta helduentzako da, hasiera batean, baina nire 10 urteko semea Arriagako emaldira etorri zen eta lanak duen estetikagatik oso erakargarria iruditu zitzaion.

LOF ikuskizunaz gainera, baduzu esku artean proiektu gehiago?

Aldi berean hainbat proiekturekin batera ibiltzea baino beste erremediorik ez dugu; lanbide honek prekarietate puntu bat du eta adi egotea eta eten barik birziklatzea ezinbestekoak dira aurrera egiteko. LOF ikuskizuna kale-ikuskitan bihurtzeko azken ukituak lantzen ari gara. Bestetik, datorren ikasturte hasierara begira, orain dela bi urte estreinatu genuen *Faces* lana taularatuko dugu berriz ere. John Cassavetes-en filmaren bertsio bat da, Khea Ziater konpainiaren eskutik datorrena eta Alex Gerediagak zuzenduta. Era berean, Yogurinha Borobarekin haurrentzako *Mari, Meri eta Lari* izeneko ikuskizunean ari naiz, eta EITBren irratsaio baten ere parte hartzen dut; hortaz, hor ari naiz malabarrak egiten. **Pandemiaren osteko aldapa ginditu da kultura arloan?** Eztanda antzerako bat dagoela ikusten dut orain; hala ere, nik neuk zorte handia izan dut, kallean bolo asko egiteko aukera izan dut eta.

Nerabeentzako euskarazko urban musika lehiaketa abian

Ekainaren 8a da kantuak bidaltzeko azken eguna; 'loramendielkartea.eus' helbidera bidali behar dira

A. A. DEBAGOIENA

Kaleko musika estiloak gazteen gainean duen arrakastari erreparatuta eta sortzen diren hitzak euskaraz ere sortzearen helburuarekin abiatu dute eskualdeko elkarteek –AED, Loramendi euskara elkarte, Jardun euskara elkarte, Txatxilipurdi elkarte eta Bergarako Xabalote gaztelekua– eta Elgetako, Eskoriatzako, eta Bergarako udalek nerabeentzako urban musika lehiaketa.

Euskarazkoak eta originalak

12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta lan guztiek jatorrizkoak, argitaratu bakoak eta euskaraz izan behar dute. Gutxienez minutu bat iraun behar dute eta MP3 formatuan bidali behar dira *euskara@loramendielkartea.eus* helbidera; ekainaren 8a da parte hartzeko azken eguna.

Bertako musikariak, epaile

Arrasateko Oihan Uribarren *Fane* eta Martin Errasti *Tata* eta Bergarako Iker Hiriart *HRT* izango dira epaimahaikideak eta eurek erabaki dute zein kantuk irabaziko duen SSky-sound estudioan grabatzeko eta bideoklipa egiteko aukera.

ITZIAR ARKAUZ

'LOTX' PAILAZOA

GOIENA TELEBISTA, 'GALDEGAZTE' SAIOA

MAIATZAREN 18AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

OÑATIKO BHI INSTITUTUKO IKASLEAK ELKARRIZKETATZAILE



DESCARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Des-kontrol taldea, domekan izan zen Herri Urrats jaian. JOKIN BEREZIARTUA

Punk-oi! emanaldia gaur Oñatiko gaztelekuan

Arrasateko Des-kontrol, Oñatiko Lehen Lerroa eta Madrilgo Knockout taldeak izango dira, 21:30ean hasita, taularen gainean; aurrez saldu dituzte sarrerak, hamabi eurotan, eta zaleen artean harrera ona izan dute, baina gelditzen dira oraindik

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Bi urtean jendaurrean apenas jo barik egon ondoren, "gustura" jardun zuten Des-kontrol taldekoek domekan Herri Urrats jaialdiaren baitan eman zuten kontzertuan. "Sekulako giroa egon zen, eta, urduritasun puntu batekin bazen ere, gu ere gogoz geunden zuzenekoetara itzultzeko. Oñatira joateko beti gaude gogoz, oso harrera ona egiten digute-eta han beti. Knockout Madrilgo lagun batzuk dira, eta pozik gaude kartela partekatuko dugulako, eta baita Lehen Lerroarekin ere, jende jatorra da eta indar handia dute", azaldu du Des-kontrol taldeko gitarrak Oier Beitia *Magu*-k.

"Egutegian aspaldi gorritz markatuta daukagun data da", dio Lehen Lerroa taldeko Aitor Regueirok, eta zera gaineratu du: "Des-kontrol eskualdeko erreferentzia da musika estilo horretan eta Knockout taldearen jarraitzaileak ere bagara".

Disko berriko kantak

Inoiz baino argiago izeneko lan luze berria argitaratzear dute Arrasatekoek eta horren isla izango du euren emanaldiak. "Diskoa erosteko aukerarik ez da izango, atzeratu egin da ekoizpena, orokorrean, bereziki, binilo formatuari dagokionez; beraz, ez dakigu seguru noiz izango dugun lan berria eskue-

tan. Oinarrian, orain arteko bidetik doaz kantu berriak. Hamaka dira, guztira; horien artean, apur bat gogorrak diren bi daude, baina gure ohiko melodia dutenak".

Taldearen izen bera duen eta orain dela gutxi argitaratu duten diskoko kantak dituzte Lehen Lerroa taldekoek euren zerrendan jasota. "Bost kanturekin osatuta dago bilduma; kantu azkarrak dira, orokorrean, baina hunkitzea bilatzen duten horietakoak ere badaude. Kontzertu asko ematen ari gara eta Oñatin orain dela gutxi eman genuenaren bidetik joango da gaurko emanaldia, baina izango da sorpresaren bat edo beste".

'Érase una vez... en Euskadi' filma, Netflix plataforman

Manu Gomez Arrasateko zinemagileak zuzendu duen fikziozko lehen lan luzeak "harrera ona" izan du

A. Aranburuzabala ARRASATE Urriaren 29an estreinatu zuten zinema aretoetan eta plataforma digitaletara egin du salto Arrasateko zinemagilearen filmak; maiatzaren 10ean Netflixen estreinatu zuten. "Oso pozik nago

plataformaren bidez mundu osora zabalduko delako. Filmen banaketa arloko aldaketa garaian gaude, eta plataformak, gaur egun, merkatu nagusia dira. Netflixera modu naturalean heldu da, plataformak bere katalo-

goan sartzeko proposatu zigun", kontatu du Gomezek.

Laster Filmin plataforman ikusgai egon daitekeela aurreratu du, eta ETBn eta TVEn eskainiko dutela ere bai.

Debagoienean grabatuta

80ko hamarkadako "Euskal Herri zahar, borrokatzailea eta aztoratua" irudikatzen du *Érase una vez... en Euskadi* (La Cabnica Films) filmak, Gomezen haurtzaroa, eta 12 urteko lau gazte dira protagonista.

Goienakideen txokoa

MAIATZEKO SARIAK



Telebista
TD System telebista (32")

Parte hartzeko sariaren
izena: telebista



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LOTTO 15/10000 legeraren arabera, aukeraketen dagoen zuzenbide pertsonalki Goiena Komunikazio Zerbitzuaren itxeragiz automatizazio baten bidez dira. Datoz biletak haren helbura helburu da indarrez dagoen zuzenbide pertsonalki. Lotakidetzaren zuzenbidearen arabera, bakoitzaren zuzenbidearen helbura helburu da. Datoz biletak haren helbura helburu da. Datoz biletak haren helbura helburu da. Datoz biletak haren helbura helburu da.

Irabazi bi lagunendako otordua

MONDRAGON HOTELARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 17



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jabetza

[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 60 €

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRI! > >

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. Etxebizitza bat erosi nahi dut Bergarako erdigunean, hiru logela, igogailua eta garajea dituen. 747 47 79 77

Oñati. Baserrri edo inguru natural batean etxebizitza erosi nahi dut. Telefonoa: 600 34 87 13

103. ERRENTAN EMAN

Donostia. Antigua auzoan etxebizitza ematen da errentan, udarako. 687 78 50 45

Ezkarai (Erriox). Uztailerako eta abuzturako errentan ematen da. Duplex berria da, erdigunean. Bi logela dauzka eta bakoitzean komuna dago. Sukalde amerikarra, egongela, garajea eta trastelekua. 688 84 36 04

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Errentan hartzeko etxebizitza baten bila nabil. 641 51 13 06

Arrasate. Etxebizitza behar dugu hiru logelakoa. Ahal bada erdigunean edo gertu. Telefonoa: 674 47 56 30

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Berdin da altzaririk gabe badago. Telefonoa: 688 71 07 53

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Erdigunean edo Musakolan izan daiteke. Igogailua behar dut, osasun arrazoiengatik. Telefonoa: 643 48 56 55

Arrasate. Lau kideko familia gara, bi ume txikirekin, eta alokairuko etxebizitza baten bila gabilta Arrasaten, lehenbaillehen sartu ahal izateko. Eskerrik asko. 653 72 43 19 edo 667 80 12 55

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. 645 72 92 87

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Pertsona batendako modukko logela behar dut errentan, kontratuarekin eta erroladatzeko eskubidearekin. 632 83 32 44

2. GARAJEAK

202. EROSI

Oñati. Garajea erosi nahi nuke Oñati erdigunean. 630 13 08 92

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Etxe, taberna eta abarrak garbitzen eta egunean zehar nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Titulazioak eta legezko agiri guztiak dauzkat. 632 83 32 44

Arrasate edo Bergara. Mutil arduratsua gertu goizetan zaintza lanak

egiteko. Baita asteburu goizetan ere. Telefonoa: 602 17 81 32

Arrasate edo Bergara. Nagusiak eta umeak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke egunean zehar. Baita orduka ere. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak dauzkat. 632 44 71 84

Arrasate eta Aretxabaleta. Sukalde laguntzaile moduan edo nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Asteburuetan, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 609 31 34 36

Arrasate eta Bergara. Lan bila nabil eta pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. 632 11 51 27

Arrasate. 26 urteko mutila naiz eta etxebizitza behar dut errentan. Logela batekoa edo bikoa. Telefonoa: 608 15 37 07

Arrasaten eta inguruan. Orduka nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erreferentziak aurkez ditzaket. 617 91 43 33

Bergara. Emakumea prest pertsona nagusiak goizez edo gauzez zaintzeko. 647 31 48 17

Bergara. Emakumezkoa prest astelehenetik ostiralera bitartean nagusiak zaintzeko. Interesa duzenok deitu telefono honetara: 602 34 68 69

Bergara. Legezko agiriak dituen emakumea orduka etxeko lanetan, garbiketan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest. 666 07 42 98

Debagoiena. Garbiketa lanetan edo umeak zaintzen lan egin nahi dut. Euskara ikasten ari naiz. 688 71 08 09

Debagoiena. Adineko pertsonak zaintzen lan egin nahi dut. Telefonoa: 632 77 13 43

Debagoiena. Astean zehar arratsaldetan eta asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 600 00 51 60

Debagoiena. Astelehenetik ostiralera eta asteburuetan baita, gizonezkoa prest, eraikuntzan, garbiketa lanetan eta tabernan ere zerbitzari bezala. Interesa duenak deitu telefono honetara. 747 49 00 21

Debagoiena. Baserriko lanetan, nekazaritzan eta abeltzaintzan lan egingo nuke. Nagusiak zaintzen ere bai, eta gainera deneratiko garbiketarako etxeko titulazioa daukat. 643 47 39 37 (Yessid)

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko, eta sukaldeko lanak eta garbitasun lanak egiteko. 632 87 98 63

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusien edo haurren zaintzarako edo garbiketarako lan bila.

Oso arduratsua eta esperientzia askokoa. Telefonoa: 635 36 96 21

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko, goizetan eta gauetan. Legezko agiri guztiak eguneratuta dauzkat. 647 31 48 17

Debagoiena. Emakumea, nagusiak zaintzeko prest. Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsalde. 631 75 03 97

Debagoiena. Eskarmentu handia daukat pertsona nagusiak zaintzen, baita titulazioa ere. Etxetik kanpo bizi izaten lan egiteko prest nago. 688 72 88 97

Debagoiena. Esperientzia duen emakumezkoa prest nagusiak zaintzeko eta baita garbiketa lanetarako. Astelehenetik ostiralera, eta baita asteburuak ere. 695 83 48 64 (Felisa)

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila lanerako gertu. Nagusiak zaintzen, taberna eta abarren garbiketan, jangelako zerbitzari moduan eta abar. Gidabaimenarekin. 638 85 43 36

Debagoiena. Etxean adinekoei laguntzeko emakumea prest, titularekin eta esperientziaduna; egunez. 688 72 88 97

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 602 06 52 12

Debagoiena. Garbiketa lanetan jarduteko prest nago. 645 72 92 87

Debagoiena. Lan bila nabil: pertsona helduen zaintzan, garbiketa lanetan. jarduteko prest nago... 641 51 13 06

Debagoiena. Lan egin nahi dut pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Telefonoa: 641 09 15 58

Debagoiena. Mutila gertu garbiketarako edota nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 632 36 84 97

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Baita baserrietan ere. Telefonoa: 672 55 67 35

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Orduka, etxean bertan bizi izaten zein asteburuetan. 632 76 59 52

Debagoiena. Mutila, esperientzia eta erreferentzia onak dituen, etxeko etxeko zaintza lanetarako gertu. Legezko agiriak eta autoa. 662 43 08 54

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago egunean zehar edo gauean. 610 99 70 46

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta etxeko lanak egiten jarduteko gertu nago. 662 54 79 50

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. 631 48 83 51

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egiteko gertu nago. 632 96 34 01

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke: gauzez astelehenetik ostiralera eta goizez orduka. Legezko agiriak, txartel soziosanitarioa eta gomendio-gutuna ditut. Telefonoa: 647 31 48 17

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Asteburuetan. Neska arduratsua eta tituladuna. 688 85 44 78

Debagoiena. Neska arduratsua naiz eta eskarmentu handia daukat pertsona nagusiak zaintzen. Lan egiteko prest nago. 644 19 11 28

Debagoiena. Neska gertu orduka, baita asteburuetan ere, garbiketa eta zaintza lanetan aritzeko. Telefonoa: 631 69 01 65

Debagoiena. Neska lan bila: dendarri, zerbitzari, garbiketan, umeak zaintzen, fabriketan eta abar. 656 79 28 37

Debagoiena. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egin nahi dut pertsona nagusiak zaintzen. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 67 51 01

Debagoiena. Pertsona helduak zaintzen eta garbiketa lanetan jardun nahi dut. 641 14 00 86

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan lan egiteko prest nago. Telefonoa: 697 99 26 04

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, nagusi eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Asteburuetan etxean bertan bizi izaten ere bai. 609 31 34 36

Debagoiena. Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko gertu nago. Telefonoa: 600 64 14 50

Debagoiena. Zaintza eta etxe garbiketa lanak egiteko gertu nago, egunean zehar edo etxean bertan bizi izaten. 612 28 42 74

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke, etxean bertan bizi izaten,

egunez zein orduka. Telefonoa: 602 01 32 58

Debaogiena. Persona helduak zainduko nituzke asteburuetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 81 08 63

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Marrazketa teknikoa. Marrazketa teknikoko eskola partikularrak jaso nahiko nituzke, batxilergoan irakasle gisa aritzeko. 688 77 68 79

6. MOTORRA

602. EROSI

Autoa. Bigarren eskuko autoa erosi nahi dut. 1.500 euro gehienez. Presazkoa da. 662 38 14 18

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak. Opari ematen dira txakurkumeak. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 64 27 61

ESKER ONA



Carmen Iturriaga Etxebarriarteun

Fastino Elkororen alarguna

2022ko maiatzaren 11n hil zen, 96 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko maiatzaren 13an.

ESKER ONA



Antoni Elkorobarrutia Gallastegi

Felix Ojangurenen alarguna

2022ko maiatzaren 7an hil zen, Elgetan, 97 urte zituela.



Alabak eta suhiak: Isabel eta Jose Egizabal (†), Carmen eta Jose Antonio Retolaza, Juli eta Juan Mazorriaga, Mariasun eta Fernando Bastida, Eugeni eta Joxe Goikoetxea, Mari Jose eta Juanra Aguirre. Bilobak, birlobak, lehengusuak, Diana laguntzailea eta beste senide guztiak.

Pozik oroituz zure bizitzan izan garela parte irudi hoiak guregan beti oroimen ona dakarte ohore handiz bihotz bihotzez Agur, amama Antonia, betirarte.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

ESKER ONA



Albertina Veloso Gonzalez

Jose Manuel Perezen alarguna

2022ko apirilaren 28an hil zen, 76 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, maiatzaren 14an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Bertaratuko zaretenoi aldeaz aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2022ko maiatzaren 13an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.



URTEURRENA



Pedro Maiztegui Goitia

2021eko maiatzaren 12an hil zen, 90 urte zituela.

Beti gure bihotzetan eta oroitzapenean egonen zara.

Urteurreneko meza larunbatean izango da, maiatzaren 14an, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2022ko maiatzaren 13an.

URTEURRENA



Mari Paz Letamendi Olalde

2021eko maiatzaren 6an hil zen, 78 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, maiatzaren 14an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2022ko maiatzaren 13an.

URTEURRENA



Susana Maiztegui Ariznabarreta

2021eko maiatzaren 14an hil zen, 86 urte zituela.



Juan Arcauz Vicuña

2017ko maiatzaren 9an hil zen, 87 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, maiatzaren 14an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2022ko maiatzaren 13an.

OROIGARRIA



Josebe Landaluze Ruiz de Alegria

2022ko maiatzaren 8an hil zen, 68 urte zituela.



Eskerrik asko, Josebe, zurekin pasatu ditudun momentu onengatik.

Txabolako lagunak.

Arrasaten, 2022ko maiatzaren 13an.

OROIGARRIA



Josebe Landaluze Ruiz de Alegria

2022ko maiatzaren 8an hil zen, 68 urte zituela.

Plazer bat izan da bizitza zurekin elkarbanatzea. Asko maite zaitugu.

Porrak.

Arrasaten, 2022ko maiatzaren 13an.

OROIGARRIA



Josebe Landaluze Ruiz de Alegria

Zure irribarre goxoa gure bihotzean biziko da beti, Josebe. Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeru gainean.



Udalgintzako zure lagunak.

Arrasaten, 2022ko maiatzaren 13an.

OROIGARRIA



Marian Muruamendiaraz Berriozabal

2022ko maiatzaren 11n hil zen, Gasteizen, 76 urte zituela.

Ez adiorik, gero arte baizik.

Zure Bergarako familia.

Bergaran, 2022ko maiatzaren 13an.

OROIGARRIA



Guiomar Fernandez Aguirre

2012ko maiatzaren 12an hil zen, 35 urte zituela.



Alaitasunez poztu izan duzu zuk beti gure tristura. Hurbilekua beti, etxeko, ederra zure lotura. Famili eta lagunetik ardura, guztiongan sortuz lilura. Orain gero arte esan arren ere ez dugu negarrik egin gura, haize freskoz etorri zaitezzen goizero gure ingurura.

Bergarako eta Gernikako familia.

Bergaran, 2022ko maiatzaren 13an.

OROIGARRIA



Maximo Sanz Sanz

2022ko maiatzaren 10ean hil zen, 90 urte zituela.



Aitona, porroia eskuan topa egingo dugu eman eta erakutsi diguzun guztiagatik. Hontangaseko eremu ederretatik begiztatuko dugu zure bidaia berria. Egin hegaz altu. Asko maite zaitugu.

Zure bilobak eta familia.

Arrasaten, 2022ko maiatzaren 13an.

HILETA



Maria Urcelay Iturricastillo

Luis Elguero 'Takolo'-ren alarguna

Atzo hil zen, Bergaran, 101 urte zituela.



Seme-alabak: Mari Nieves eta Koldo Ilarduya (†), Jose Luis (†) eta Juanita Mancisidor, Iñaki eta Maite Aranzabal, Javier, Jesus Mari eta Gurutze Mendiola(†). Bilobak: Amaya eta Josean, Iñaki eta Silvia, Ion, Iker eta Bea, Lierni eta Pako. Birbilobak: Nora, Ane, Sara, Ines, Katixa, Pello, Telmo, Malen. Anai-arrebak: Paula(†) eta Manuel Iraola (†) Mauricio (†), Mari Tere eta Jesus Iturbe (†), Elisabet eta Eduardo Castellano (†). Ezkon anai-arrebak, ilobak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela gaur, egubakoitza, 19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian egingo den hiletara.

Familiak Oroilore Tanatorioan hartuko zaituzte

10:30etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

HILETA



Francisca Oquina Isas-Isasmendi

Javier Beitia Zugastiren alarguna

Atzo hil zen, Aretxabaletan, 91 urte zituela.



Alabak: Mariasun eta Joxemari, Mari Carmen. Zaintzailea: Candi.

Azken agurra eta hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, gorpua bertan dela, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian. Aldez aurretik mila esker.

Familiak Aretxabaletako Tanatorioan hartuko zaituzte

10:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.



Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Gure artean agurtutako guztiak euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA

**Lanbide Eskolan bisitan**

Konbustio motorra elektrikora eraldatzeko K2 proiektuaren bueltan, 35 bat lagunek taldea egon da Aretxabaletan. Finlandiatik, Turkiatik eta Kataluniatik etorritakoak, astebetez egon dira ALEko kideekin.

81eko kinto oñatiarrak

Bi urteko etenaren ostean, berriro elkartu ziren. Oñatiko Agustindarren elizan hildakoak gogoratu ostean, Txopekuan elkartu ziren afaletzeko 35 bat lagun. "Egun ederra pasa genuen. Gustura ibili ginen kontu-kontari".

**Bisita bikoitza**

Bidean Heziketa Zentroko parte-hartzaileak Bergarako bi enpresatan egon ziren bisitan: Miguel Altuna institutuan eta Elikagai Bankuan. Hango funtzionamenduak eta zereginak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.

**Bordelen**

Oñatiko institutuko DBHko laugarren mailako ikasleak Bordelen egon dira, ikas bidaian. Askotariko ekintzak egiteko aukera izan dute han egondako egunetan. Besteak beste, kultura-bisitak egin dituzte eta tirolinan ibili dira.

**Mendizabaltarrak**

Aretxabaletako Gellao auzoko Uritte baserrian jatorria duen Mendizabal familia mahaiaren bueltan elkartu zen, Baldomeraren 102. urtebetetzea ospatzeko. Haren ahizpa Tomasa (92 urte) eta Juana (87) ere egon ziren bazkarian.



Zenbat pisatzen zuen enborrak?

Sara de Salterain uruguaiarrak asmatu zuen Makilakorta jaian ipinitako enborrak zenbat pisatzen zuen: 1,995 kilo. Gatzagan oporretan egon da egun batzuetan, eta sari potoloarekin joan da bueltan Montevideora.



Audi Crea lehiaketako finalean

Espainia mailako hamar talde sailkatu dira ekainaren 18ko finalerako. Maialen Agiriano, Lia Aierbe eta Manex Balentziaga bergararrek landu dute *Josizuk* proiektua. [Voting.audicrea.com](https://www.audicrea.com) atarian eman daiteke botoa, egunero.

Udaberri Jaia

Aretxabaletako Arizmendi Ikastolakoek festa giro ederrean ospatu zuten Udaberri Jaia. "Egun osoko egitaraua aurrera atera genuen gogotsu, komunitatean eta guztiok elkarlanean. Egun aparta pasa genuen, benetan!".



Saskia lortu du

Gourmet produktuen banaketan jarduten duen Riko Experiencias Gastronomicas-ek Aretxabaletako Danona kafetegian banatu du apirileko kanpainaren saria. Manoli Gonzalez Vicentek lortu du 1.000 eurotan balioztatutako saskia.

52 urte eta erdi ezkontuta

Juantxo Axpe eta Petra Mari Inda arrasatearrek maiatzaren 7an ospatu zituzten urrezko ezteiak, etxekoekin. "Pandemiak ez zigun utzi zegokionean ospatzen, baina oraingoan ederto pasa genuen Arteagan, elkarrekin. Zorionak, bikote!".



93 urtekoei omenaldia

Maiatzaren 4an, 80 urtetik gorako arrasatearrek bazkaria egin zuten. Han, emakumezko eta gizonezko zaharrenak omendu zituzten: 93 urteko Sabina Altuna eta Felix Aiastui. Maria Ubarretxena eta Maitane Muñoz egon ziren ekitaldian.



ZORION AGURRAK



ONATI
Maidier Arenaza Arriaran
Maiatzaren 16an, 4 urte. Zorionak, Maidertxu!



BERGARA
Enara Gisasola Sevillano
Maiatzaren 14an, 12 urte. Zorionak, Enara! Pilo bat disfrutatu zure eguna. Muxu potolo bat zure familia guztia partetik.



BERGARA
Ager Esnaola Tello
Maiatzaren 13an, 6 urte. Zorionak, prexioxo! Sei urte honezkerok! Mutil handi egin zara. Patxo pila, batez ere, Areneren partetik. Asko maite zaitugu denok.



BERGARA
Oxel Uriarte Sebal
Maiatzaren 13an, 4 urte. Zorionak, Oxel! Ondo pasatu eguna eta muxu pilo bat, etxeko partetik!



ARRASATE
Danel Garcia Salaberri
Maiatzaren 12an, 8 urte. Zorionak, Danel! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu potolo bat, familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu.



ONATI
Hegoi Aranburu Zabaleta
Maiatzaren 11n, 6 urte. Zorionak, Hegoi! Aia da zeure eguna! Ondo-ondo ospatu eta patxo pila bat etxeko danon partetik! Pila bat maitte zau!



ONATI
Noa Urtaza Hernandez
Maiatzaren 11n, 9 urte. Zorionak, printzesa! Egun ona pastua eta patxo handi handi bat etxeko danan partetik!



ARETXABALETA
Laida Eraña Larrea
Maiatzaren 11n, 11 urte. Zorionak, Laida! 11! Ze handi! Muxu erraldoi bat danon partetik!



ANTZUOLA
Irati Sodupe Larrea
Maiatzaren 11n, 11 urte. Zorionak, maitia! Egun polit-politta pasatu! Eta segi irribarre horrekin! Patxo handi-handi bat etxekuen partetik!



BERGARA
Zigor eta Izan Medina
Maiatzaren 6an eta 11n, 39 eta 5 urte. Zorionak, bikote, amaren eta Nahiaren partetik. Ondo ospatu eguna. Muxu asko.



ONATI
Joseba Ortiz Gavilan
Maiatzaren 9an, 36 urte. Zorionak, Joseba!



ONATI
Garazi Abarzuza Lasheras
Maiatzaren 9an, 34 urte. Zorionak, amatxu. Maite zaitugu!



ARRASATE
Nere Garin Zabaleta
Maiatzaren 8an, 5 urte. Zorionak, Nere! Patxo erraldoi bat familia guztia partetik! Pilo bat maitxe zaitxugu!



BERGARA
Noa Mera Arteaga
Maiatzaren 7an, 3 urte. Zorionak, Noa! Marisorgin! Asko maite zaitugu. Patxo pila, danon partetik.



ONATI
Aimar Ferreiro Garcia
Maiatzaren 6an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



LEINTZ GATZAGA
Ekain Garcia Heriz
Maiatzaren 5ean, urtebete. Zorionak, Ekaintxo! Egun ederra pasatu deizula, saltsero! Mila muxu!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 13

ARRASATE Musakolako jaiak
Gaur, Erretiratuen Eguna ospatuko dute, askotariko ekintzekin. Informazio osoa, 13. orrian. *Musakolan.*

ARRASATE Ipuin kontaketa Belunen
Laino artean delako saioa, 4 urtetik gorakoendako, Vanessa Gonzalezek eskutik. *Belun dendan, 17:30ean.*

BERGARA 'Arrautzen jokoa'
Haur Hezkuntzako 4. eta 5. mailetak umeendako, Aidau haurren zerbitzuaren eskutik. *Oxirondo azokan, 17:30ean.*

ELGETA 'Ipuinen ordua'
17:30ean, HH-3ko eta 4ko umeak; 18:00etan, HH-5eko, LH-1eko eta LH-2ko umeak; eta 18:30ean, LH-3tik 6ra artekoak. *Liburutegian.*

OÑATI Lodifobiari buruzko hitzaldia
Mijo Lizarzaburuk egingo du berba, Jabetze Eskolaren baitan. *Zinema aretoan, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Ecstatic dance' saioa
Oskar Estangaren eskutik, Jaiki elkarteak gonbidatuta. *Ibarra kiroldegian, 18:00etan.*

ARRASATE Rap tailerra
Gaur, bigarren saioa, Peru Magdalenarekin eta Saroa Bikandirekin. *Kulturaten, 18:30ean.*

OÑATI Hiru Haundiak taldea
Etxeko taldearen lehen kontzertua, lehen diskoa aurkezteko. Sarrerak, hiru euro. *Antixenean, 19:00etan.*

ARAMAIO Produktuen dastatzea
Lorabari Astearen baitan. *Ekonomatuan, 19:00etan.*

ARRASATE Arrasate Musikaleko hari-orkestra
XVIII. Musikaldiaren baitan. *San Frantzisko elizan, 19:30ean.*

OÑATI Des-kontrol, Lehen Lerroa eta Knockout taldeak
Sarrerak, hamabi euro. *Gaztelekuan, 21:30ean.*

ANTZUOLA San Isidro jaiak
Bertso saioa. Urko Arregi, Maialen Akizu, Aitor Sarriegi, Andoni Egaña eta Nerea Elustondo oholtaza gainean. Sarrerak, zortzi euro. *Torresoroan, 22:00etan.*

BERGARA Beatriz Egizabalen bakarrizketa
Maiatz feminista-ren baitan, Bergarako Sortuk gonbidatuta. *Arrano tabernan, 22:30ean.*

ZAPATUA 14

ANTZUOLA San Isidro jaiak
09:00etan, azoka; 11:00etan, kukumarro lehiaketa; 11:30ean, umeendako jolasak; 12:00etan, txistularien eta trikitilarien kalejira; 12:30ean, pentatloia Zurrategin; eta 14:30ean, bazkaria. *Antzuolan.*

ARETXABALETA Futsal Eguna
UDAren 75. urteurrenaren harira, hiruko lehiaketak, sagardo dastatzea, bazkaria, kontzertuak eta beste. *Kurtzebarri eskolako pistan, 09:00etan.*

ARRASATE Galarrako kobara bisita gidatua
Ondare geologikoa ezagutzeko aukera. *Galarran, 09:00etan eta 11:00etan.*

ARETXABALETA 'Uretsen ibilbidea'
Ondare geologikoa ezagutzeko aukera. *Aretxabaletan, 09:30ean.*

ARAMAIO Autodefentsa feminista ikastaroa
15 urtetik gorakoei zuzenduta. *Osoko bilkuren aretoan, 10:00etan.*

ARRASATE Musakolako jaiak: Kuadrillen Eguna
Gaur, Kuadrillen Eguna ospatuko dute, askotariko ekintzekin. Informazio osoa, 13. orrian. *Musakolan.*

OÑATI Urgain Eguna
10:00etan, gosari herrikoa; 10:45ean, pregoia; 11:00etan, kalejira musikatua; 13:00etan, *lip dub* erraldoia; 14:00etan, bazkaria; 15:30ean, antzerkia; 16:00etan, tailerrak; 17:30ean, apar festa; 18:00etan, argazki erraldoia; eta 18:30ean, Aiert Alberdiren eta Tintz Djaren emanaldiak. *Irunberri plazan.*

ARAMAIO Lorabari azoka
Askotariko produktuak erosteko eta dastatzeko aukera. *Bizente Goikoetxea plazan, 10:00etan.*

OÑATI EH Bilduren herri batzarra
Azken urtean udalgintzan eta herrigintzan egindakoaren balantzea, kokapen politikoa eta hauteskunde prozesurako plangintza landuko dituzte. *Kultura etxean, 10:30ean.*

OÑATI 'Espeleotxiki' abentura
Ondare geologikoa ezagutzeko aukera. *Arrikrutzen, 10:30ean.*

BERGARA Osintxuko jaiak
11:00etan, salda; 11:30ean, umeendako jolasak; 12:30ean, bisita gidatua Osintxun; 14:30ean, auzoen arteko bazkaria; 15:30ean, puzgarriak; 17:00etan, lekuko aldaketa; 17:30ean, ipuin kontalaria umeendako, eta nagusiendako jolasak; 19:00etatik 21:00etara, GOT txaranga; 21:00etan, bokata-afaria; eta 23:00etatik 02:00etara, Laket taldearekin erromeria *Osintxun.*

OÑATI 'Oñati geomonumentala' bisita gidatua
Ondare geologikoa ezagutzeko aukera. *Turismo Bulegoan, 12:00etan.*

ARETXABALETA Debagoieneko Trikitilari Eguna
12:00etan, kalejira; 13:00etan, trikiti eskolen emanaldia; 14:30ean, bazkaria; 17:30ean, eskola guztiekin kalejira; 18:00etan, Mugi Panderoa taldearekin erromeria; eta 20:00etan, triki-poteoa. *Aretxabaletan.*



OSCAR ESTANGA

ARETXABALETA 'Ecstatic dance'
Oskar Estangarekin, Jaiki elkarteak gonbidatuta. Estangak ipintzen duen musika nork bere erara dantzatzeko aukera ematen duen emanaldia. Izena emateko: 688 81 96 65. *Gaur, egubakoitza, Ibarra kiroldegian, 18:00etan.*

OÑATI Pentsiodunen sinadura bilketa
Olakuako urmaelaren ondoan, Eltzian eta Foruen plazan egongo dira batzen. *Oñatin, 12:30ean.*

BERGARA Bergarako geologia ezagutzeko bisita gidatua
Ondare geologikoa ezagutzeko aukera. *Bergaran, 15:00etan.*

ARETXABALETA Artzain Txakurren Txapelketa
Lehen aldiz egingo dute. Bost txakurrek euren abileziak erakutsiko dituzte. *Aozaratzan, 17:30ean.*

ARAMAIO Arabako Bertsolari Txapelketako hirugarren final laurdena
Andere Arriolabengoa, Asier Rubio, Felipe Zelaieta, Manuel Bendala, Oihane Perea eta Unai Anda oholtzan. *Kultura etxean, 17:30ean.*

OÑATI Donostiako Orfeoiaeren emanaldia
Abesbatzaren 125. urteurrenaren harira egingo dute emanaldia, Jose Antonio Sainz Alfarok zuzenduta, eta Gerardo Rifon organistarekin. Sarrerak, Kutxabanken, 20 eurotan. *Arantzazun, 19:00etan.*

ARRASATE Piacere Dei Traversi taldea
XVIII. Musikaldiaren baitan. *Kulturaten, 19:30ean.*

DOMEKA 15

ARRASATE 'Kobandi eta Lezetxiki, ingurune karstikoa' bisita gidatua
Ondare geologikoa ezagutzeko aukera. *Arrasaten, 09:00etan.*

ANTZUOLA Antzuolako geologia ezagutzeko bisita gidatua
Ondare geologikoa ezagutzeko aukera. *Antzuolan, 09:30ean.*

ARETXABALETA Ojala Zelai eguna
10:00etatik aurrera, haurrendako lasterketak, adinka banatuta; 11:00etan, 42. Ojala Zelai krosa, helduendako; 12:30ean, animaliekin jolasak; 13:30ean, sagardo festa; 14:30ean, herri bazkaria; 16:00etan, euskal disko festa; 18:00etan, Leizarra dantza taldearen emanaldia; eta 19:00etan, euskal disko festa. *Ojala Zelain.*

ARRASATE Musakolako jaiak: San Isidro eguna
Gaur, San Isidro eguna ospatuko dute, askotariko ekintzekin. Informazio osoa, 13. orrian. *Musakolan.*

OÑATI 'Espeleoarrikrutz' abentura
Ondare geologikoa ezagutzeko aukera. *Arrikrutzen, 10:30ean.*

BERGARA 87 urtekoei omenaldia
10:30ean, bedeinkapena eta agurra Santa Marina elizan; ostean, taldea argazkia eta kalejira egoitzaraino; eta gero, aurreksua eta ongietorria, oparien banaketa eta luntxa.
Bergaran, 10:30ean.

LEINTZ GATZAGA 'Urre zuriaren paisaia' bisita gidatua
Ondare geologikoa ezagutzeko aukera.
Gatz Museoan, 11:30ean.

ARRASATE 'Ladies on fight' ikuskizuna
Dantza eta umore ikuskizun bat da, konplexurik gabeko borroka aske batetik ironizatzen duena. Antzezlanaren batean gauzatzen da.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 16

ARRASATE 'Sukaldaritza, etxetik atzerriraino. Zer aurkitu eta ikasi dugu bidean?' hitzaldia
Michelin saria berri duen Haroko Nublo jatetxeko sukaldari Dani Lasak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ELGETA Podologoa erretiratuendako
Txanda hartzeko 669 99 81 65 telefonora deitu behar da.
Kultura etxea, 15:00etan.

OÑATI Musika Astea
17:00etan, abesbatza, pianoak eta zeharkako txirula; 18:15ean, gitarrak, ahots teknikakoak eta perkusioa; eta 19:45ean, helduak.
Santa Anan.

ESKORIATZA Larrain dantza: entsegua
Ekainaren 4ko emanaldira begira, bigarren entsegua.
Pilotalekuan, 20:00etan.

MARTITZENA 17

ANTZUOLA Odol emateko aukera
Gaur bertan deitu eta hitzordua eskatu behar da: 943-00 78 84.
Torresoroan, 16:30ean.

OÑATI Musika Astea
17:15ean, Musika eta Mugimendua 2 taldea; 17:45ean, Musika eta Mugimendua 3 taldea; 18:15ean, triki-pandero taldea.
Santa Anan eta gaztelekuan.

ESKORIATZA Hasiberrientzako sukaldaritza ikastaroa
Gamarrako Ostalaritza Eskolako irakasle Simon Lizarralderekin.
Dorleta elkartearen, 18:00etan.

ARRASATE 'Sexualitateaz gehiago ikasi, beste kulturak entzunez' solasaldia
Sexologia zerbitzuko kideen eskutik.
Kulturaten, 18:00etan.

EGUAZTENA 18

ARRASATE Sasoibide ibilaldia
Mendi aldera joango dira, eta momentuan erabakiko dute nora joan.
Biterin, 16:00etan.

OÑATI Musika Astea
17:00etan, akordeoiak eta panderoak; 18:00etan, biolinak, txistuak, haize-egur eta haize-metal taldeak, eta banda gaztea.
Santa Anan.

BERGARA Sukaldaritza tailerra
Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoko umeendako, Aidau haurren zerbitzuaren eskutik.
Oxirondo azokan, 17:30ean.

ARRASATE 'Bizitzako galerak' hitzaldia
Maite Urzain erizainak egingo du berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.
Kulturaten, 17:30ean.

OÑATI Literatura solasaldia Peru Calabazarekin
Xamurtasunaren historia Zaldibian lanarekin egingo du saioa Peru Calabaza Sabanek.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARRASATE 'Jan eta jabe. Elikaduraren bidez, herria eraikitzen' solasaldia
Tasio Erkizia Almandozek egingo du berba, Karkabatik Herria zikloan.
Irati tabernan, 19:00etan.

OÑATI 'Journey to Utopia' dokumentala
Gnat egitasmoaren barruan.
Zinema aretoa, 19:30ean.

BERGARA 'Las ilusiones perdidas' pelikula
Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 19

ARRASATE Sasoibide
Elgetako Intxortan ibiliko dira.
Biterin, 10:00etan.

OÑATI Musika Astea
17:00etan, abesbatza eta pianoa; 18:00etan, perkusioa; eta 19:00etan, triki-panderoa.
Santa Anan eta gaztelekuan.

ARRASATE Tertulixan, Belunen
Gure txikien elikadura aitzakia gaiaz egingo du berba Amaia Diaz de Monasteriogurenek.
Belun dendan, 18:00etan.

BERGARA '¿Por qué no nos dejáis entrar?' liburuaren aurkezpena
Ostean, Mari Romero Fernandez egilearekin solasaldia.
Seminarixoan, 19:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Gailu taldea
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
La ciudad perdida
Zapatua eta astelehena: 19:30.

BERGARA
SEMINARIXOA
Las cartas de amor no existen
Domeka eta astelehena: 19:30.

El secreto de Vicky
Domeka: 17:00.

OÑATI
KULTURA ETXEA
El hombre del Norte
Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

EIBAR
COLISEO
Alcarrás
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

KRITIKA

El hombre del Norte ★★★★★
Zuz.: Roberts Eggers. **Herr.:** AEB (2022). **Aktoreak:** Alexander Skargard, Nicole Kidman, Anya Taylor-Joy. **Iraupena:** 136 minutu.

Mendeku nahia

ANTONIO ZABALA

El hombre del norte bikingoen kulturaren eta kondairetan oinarritutako filma da. Erregea bere anaiak hiltzen du. Honek tronua lortzen du, eta erregea haren eramanen du. Erregearen semeak, Amlethek, dena ikusi eta ihes egitea lortzen du. Hortik aurrera, haren helburua, sarritan errepikatzen duen moduan, aita mendekatzea, ama salbatzea eta osaba hiltzea izango da. Mendeku nahiak itsutu egiten du. Baina maitasuna haren bidean gurutzatuko da. Hori horrela, gorrotoaren eta maitasunaren artean aukeratu beharko du. Robert Eggeren proposamena ez da abenturaz eta ekintzaz beteriko erritmo biziko filma egitea. Zuzendariaren begirada

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:40, 22:20. Zapatua eta domeka: 16:45, 19:30, 22:20. Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:30, 21:15. **El hombre del Norte** Eguber, egubakoitza izan ezik: 19:35, 22:15. Egubakoitza: 19:35, 21:35. **X** Egubakoitza: 22:15. Domekatik eguenera: 21:35. **Los tipos malos** Domekatik eguenera: 17:00. Zapatua: 15:45. Egubakoitza: 17:00. **Sonic 2** Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:00. Astelehenetik eguenera: 18:00. **Animales fantásticos** Eguber: 20:50.

La ciudad perdida Zapatua: 18:00. Egubakoitza, domeka eta eguena: 19:10. **El secreto de Vicky** Astelehenetik eguenera: 17:00. Zapatua eta domeka: 15:45. **Downton Abbey** Eguber: 17:00.

GORBEIA
Los tipos malos Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00. **Las aventuras de Pili** Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00. **La ciudad perdida** Egubakoitza eta zapatua: 19:35. Domeka: 12:00, 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:30. **Sonic 2** Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 11:45, 17:00.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Hezkuntzaz

Tentuz ibili izan naiz hezkuntzaren inguruan sortu izan diren eztabaidetan. Gaia erpin askotarikoa izanik, ikuspegi zabala behar duelako, nondik gatozen ahaztu gabe. Irudipena izan ohi dut sarritan muturreko jarrerak korporatibistek ez ote duten ezkututzen eztabaidaren funtsa. Azken hilabeteetan, ordea, Hezkuntza Akordioaren bueltan agertu diren zenbait jarrerak sortu didate halako ezinegon bat. Ikusi ditut publikotasunaren kontzeptua *berrasmatzeko* zenbait jarrera *ausart*, esaterako, inolaz ere partekatzen ez ditudanak.

Nik argi dut *publikoa* = *unibertsala* dela. Aldebiko irismen mailak unibertsala izan beharko duela, alegia, bai ikasleari begira, doako hezkuntza zerbitzu gisa, eta baita langileari begira ere, enplegu publikorako berdintasun printzipioagatik. Besterik da errealitate jakin batzuk zuzitzeko eufemismoen itsasoan murgiltzea. Euskal Herriko bilakaera demografikoak erronka itzelak jartzen dizkigu garai berri hauetan inklusio, kulturartekotasun eta euskalduntzearen bidean, eta hemen, Eskola Publikoak jokatzeko duen papera zentrala izanik, politika publikoen aldetik lehentasun osoa izan behar duelakoan nago.

GOIENA OKM GIDA

"Irudietan naturaltasuna jasotzen saiatzen gara"

ION ANDUEZA ETA JONE ALBENIZ THE BADASS PROJECT

Argazkilaritza dokumentala dute oinarrian bi argazkilarien lanek; gainera, bezero asko posatuekin ez direla indentifikatuta sentitzen diote, "behartutako egoerak baitira"

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

The Badass Project proiektua 2020ko ekainean sortu bazen ere, duela lau urtetik ari dira elkarrekin lanean. Argazkilaritza-estudio bezala funtzionatzen dute. Enpresetarako bideoak nahiz ezkontza eta familia erreportajeak ere egiten dituzte; azken horiek, argazkilaritza dokumentalean zentratuta.

Argazkilaritza dokumentala lantzen duzue erreportajeetan.

Lan dokumental klasikoak ikustean, bagenekien bioi gustatzen zitzaigula. Orduan esan genuen: "Zergatik ez gurera ekarri?". Uste dugu, luzera, bat-bateko argazki horiek eramaten zaituztela ospakizuneko unera. Anekdotak jasotzen dituzten irudiak gustatzen zaizkie bezeroei. Aurretik ezkontza munduan ibiliak gara, eta, korranteak bultzatuta edo, askotan, sortzen dituzun edukiak beste argazkilariek sortzen dituzten berdinak dira. Beraz, zergatik ez jarri zalantzan argazkilaritza mota hori?

Zer ikusi daiteke zuen argazkietan?

Argazkietan naturaltasuna jasotzen saiatzen gara. Benetan gertatzen denaren momentu erreala jaso nahi dugu, posatu barik. Ezkontza bateko ohiko



Jone Albeniz eta Ion Andueza, Bergarako dendan. I.A.

Neurrira egindako ezkontzak

"Bezeroek ezkontza egunean zer egin behar duten galdetzen digute, eta nahi dutena egiteko esaten diegu, euren eguna da. Badirudi ezkontzetan gauza batzuk ezarrita daudela, baina nork bere gustura antolatu behar ditu. Ezkontza ez da kuadrifikatua. Penintsulaz kanpoko argazkilarien irudietan ikusten dugu jendeak norbere neurrira egiten dituela ezkontzak, norbere gustu eta zaletasunen arabera. Hori egitera animatzen dugu jendea".

egoerak ere jasotzen ditugu; egun horretan sortzen diren uneak direlako, ez guk sortzen ditugunak.

Zein motatako bezeroak dituzue?

Gurekin lan egitea aukeratu duten pertsonak oso naturalak eta arruntak dira. Askok esaten digute ez zaiela posatzea gustatzen. Hasieratik argi izan dugu zer nahi genuen egin, baina zalantzak ere bagenituen, zaila delako estereotipoetatik ateratzea. Hala ere, jendearen harre-ra oso ona eta baikorra izan dela ikusi dugu.

Lanaren alderik onena eta txarrena?

Onena monotonian ez jaustea da. Gure proiektuan sinesten dugu guk, eta guk aukeratzen dugu nola bideratu gure lana. Txarrena, batzuetan dena ezin heldu izatea. Gure proiektuaren atzean lanordu asko daude.

Batzuk festan dabilzan bitartean, zuek lanean.

Guk ere ondo pasatzen dugu, pribilegiatuak sentitzen gara. Astero aukera daukagu familien bizitzetan sartzeko eta istorio horiek guztiak kontatzeko. Ateratzen ditugun argazki mota horrek asko betetzen gaitu.

Eskuko telefonoak zuen kompetentzia dira?

Errealitatearen parte dira, eta ezin gara horien kontra joan. Fenomenoa gelditu ezin dugunez, hobe da aliatu eta erabili. Gonbidatuek eskuko telefonoekin ateratzen dituzte argazkiak; beraz, une horiek ere gure argazkietan integratu behar ditugu, konnotazio positiboarekin.

Goiena Okm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

Osasun
larrialdiak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Mikroinformatika
sistemak eta sareak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizaintzako
zaintza
osagarriak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Gizarte eta kirol
animazioaren
irakaskuntza

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

**Lan
bide**
HEZIKETA



Aurrematrikulazio epea zabalik

Izena eman

**Maiatzaren
9tik 27ra**

ai arizmendi
ikastola **pro**